



# ttipi-ttapa



**Baztango liburutegiak 50 urte bete dituela eta, Sonia Lopezekin** / 8



**Lagun arteko hirugarren apustua jokatu du Mikel Leizaolak** / 16



**Iker Gomezek eta Iraitz Uriartek LHL erronka borobildu dute** / 32

## SINADURAK

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA / 3

AITOR AROTZENA ALBIZU / 3

IZASKUN IGOA JAIMERENA / 4

MIKEL RODRIGUEZ LANDA / 4



## EUSKARAZKO OSASUN ZERBITZUA

### BERMATU GABE

Eremu euskaldunean osasun zerbitzua euskaraz izatea legez aitortua da, baina ez da betetzen. Eskualdeko osasun zentroetan ehun lanpostu daude eta 39 langileri baino ez diete eskatzen euskaraz jakitea. Zenbaitetan hizkuntza eskakizuna izan arren, ez dira herritarrekin euskaraz komunikatzeko gai. / 10

GORKA RUBIO / FOKU

# Mendiola ez isolatzeko

Tunelen bikoizketaren proiektu hau baztertua eskatuz 143 sinadura bildu dituzte Almandozen. / 42

## BERA LESAKA

# Agenda 2021

UZTAILA

[www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)  
[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)

LESAKAKO UDALA

**1-22** UZTAILA | **ARGAZKI ERAKUSKETA ESPRESIO TRANSITORIOAK (MOI RUIZ DE AZÚA)**

Lekua Kultur etxeko erakusgelan  
**Ordutegia** 10:00-13:00 / 17:00-19:00  
 Asteartetik igandera irekia (astelehenetan itxia)  
 Igandeetan eta besta egunetan arratsaldez itxia

BERA

**3-25** UZTAILA | **ARTE ERAKUSKETA IKASTOLAKO IKASLE OHIAK**

Lekua Komentuan  
**Ordutegia** 16:00-20:00  
 Ikasle ohiak Maddi Irazoki, Unai Ruiz, Jone Taberna, Irantzu Pastor, Kemen Pumar, Andrea Gouraud

LESAKA

**16** ORTZIRALEA | **MUSIKA MICE**

19:00 Plaza Zaharrean

LESAKA

**18** IGANDEA | **BERTSOLARITZA BERTSO SAIOA**

Bertsolariak J. Sanjurjo, E. Zapiain, A. Mendihuze, A. Labaka eta S. Colina  
 19:00 Plaza Zaharrean

LESAKA

**18** IGANDEA | **HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA AMETSEN URTEBETETZEA (KANTU KOLORE)**

19:00 Altzateko plazan  
 Argibide gehiago: [www.kantukolore.eus](http://www.kantukolore.eus)

BERA

**24** LARUNBATA | **KONTZERTUA KEU AGIRRETXEA & PABLO NOVOA**

19:00 Altzateko plazan  
 Argibide gehiago: [www.keuagirretxea.com](http://www.keuagirretxea.com)

BERA

**25** IGANDEA | **TXIRRINDULARITZA PROBA BERAKO XIII. SARIA (KADETEAK)**

Luzera 44 km Irteera 11:00 Bidasoa karrika  
 Helmuga 12:00 (g.g.b.)

BERA

**25** IGANDEA | **PILOTA BINAKAKO CAIXABANK TORNEOA**

17:00 Eztegara pilotalekuan

BERA

**25** IGANDEA | **DANTZA MUXIKOAK ETA JEIKI HADI TALDEA**

18:00 Eltzetan

LESAKA

**29** ORTZEGUNA | **MUSIKA XABI SOLANO ETA ZIGOR DZ**

19:30 Irubideko atarian

LESAKA

## Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIESeK **Nafarroa Garaiko mendialdean** hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.

**erran.eus**  
9.000 erabiltzaile

*noticiasdenavarra.com*  
8.000

*diariodenavarra.es*  
8.000

*berria.eus*  
3.000

*nalz.eus*  
2.000

*navarra.com*  
1.000

### SEXUAREN ARABERA

**%70,8**  
EMAKUMEAK

**%29,2**  
GIZONAK

---

### ADINAREN ARABERA

Adina	Porzentaia
14-19 urte	%15,4
20-24 urte	%0
25-34 urte	%0
35-44 urte	%14,9
45-54 urte	%14,7
55-64 urte	%45,8
+64 urte	%9

---

### IKASKETA MAILAREN ARABERA

Maila	Porzentaia
Oinarriko ikasketak	%15,5
Oinarriko batxilergoa	%9
Goi mailako batxilergoa	%24,1
Unibertsitatea	%51,4

DATU ITURRIA: CIES, 2021eko lehen neurketa

SINADURA: Ttipi-Ttapa



## NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

### Bisitarien neurria mendian

Bazen behin basoan zehar ur garbien ondolik mendian barrena sartzen zen bide zoragarria. Bertakoek betidanik ezagutu zuten ingurua, baita bertan lasaitasun osoz gozatu ere. Egun batean aldizkari batek txoko 'magiko' horren berri eman zuen. Ondoren telebistan, turismo bulegoetan eta Interneten zabaldu zen, eta txokoa jendez bete zen. Bisitarien etengabeko ibiliaren ibiliaz, bidea belarrak gabe utzi arte zapaldu eta desitxuratu zen. Eta halako batean, joandako bisitarien oldeak ondoko herrietako ohiko martxa ere oztopatu zuen. Bisitariekin negozio zuzena zutenentzat izan ezik, gainerakoentzat txoko honek magia galdu zuen. Norena izan zen errua? Bisitariena? Txoko honen berri eman zutenena? Ingurua kontrolatzeko gai ez ziren agintariena? Halakoetan garrantzitsuena erabilera ongi antolatzea dela uste dut, eta ahal den neurrian eremuaren balioak berreskuratzea. Ez bagara gai etortzen den jendetza kudeatzeko, ateak poliki zabaltzea komeni da. Guztion ondarea guztion artean zaindu behar dugu, hori egiteko gai ez bagara gu eta zetetik datozen guztiak izanen baikara galtzaile.

**«GUZTION ONDAREA GUZTION ARTEAN ZAINDU BEHAR DUGU»**



## EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

### Kolore guziak homofobiaren kontra

Donostian lau *gixon* harro agertu dira kamera aitzinean, homosexualen bat topatuz gero nola jipoiu eta akabatuko luketeen adieraziz... Futbol Eurokopian, harmailetan ortzadarraren bandera gordearazi zion UEFak ikusle bati. Coruñan urrunago joan dira eta gazte bat joka hil dute, ustez, gay zelako... Zuri-beltzaren garaia aspaldi joan zen.

## NABARMENTZEKOAK



JUAN MIGUEL GIL  
ZIRUJAU



IXABEL DANBORIENA  
IRAKASLEA

Madrilgo Gregorio Marañon ospitalean haur kardiologian Juan Miguel Gil Jaurenak egindako lan guztia azpimarratuz Elizondoko herriak omenaldia egin zion uztailaren 3an.

1983az geroztik Arantzako eskolako irakasle izan da Ixabel Danboriena eta urte hauetan guztietan egindako lana eskertzeko omenaldia egin zion Arantzako Guraso Elkarteak ekainaren 26an.

## ATZERA BEGIRA



2011-07-07 · TTIPI-TTAPA · 546 zk.

### Martxel Arribillagarekin freestyle kirolaz

«Bizikletarekin saltoak egin eta airean zauden bitartean akrobaziak egitea». Halaxe laburbildu zuen duela 11 urte Martxel Arribillaga Indaburu beratarrak freestyle kirola. Espainiako txapeldun izan zen eta bigarren urtea zuen profesionalen mailan. TTIPI-TTAPAri azaldu zionez, «bizikleta garrantzitsua da, baina ez garrantzitsuena. Praktikatzeke tokia izatea hagitz inportantea da. Honetaz aparte, teknika eta indarra behar dira». Hala ere, bere ustez, «inportanteena ausardia handia izatea» dela adierazi zuen, «kirol honek beldur handia ematen du eta». Bertzetik, aitortu zuenez, «zenbat eta akrobazia arriskatu eta konplikatuagoa egin, puntuazioaz aparte, zure gorputzeko tentsioa eta adrenalina guztia ere handitu egiten da».



**Argitaratzailea**  
Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,  
Ruben Oskariz, Eneritz Iraola  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
Usoa Vicente  
**Berriemalleak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maidar Petrirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Ebekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

**Fundazioaren Presidentea**  
Pello Apezetxea  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia  
**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Mallerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte  
**2021eko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi eta Mallerreka 40€  
Leitza 30€  
Hego Euskal Herria 48€  
Ipar Euskal Herria, Europa 94€  
Amerika eta Australia 140€





## KOLABORAZIOAK

MIKEL RODRIGUEZ LANDA

## Eremu euskalduna?

«Argi erran dugu ez dugula euskara meritutzat hartu nahi eremu ez-euskaldunean». Nafarroako Gobernuak lehendakariak erran zuen hori duela hilabete inguru. Lehendakaria bera, argi uzten herritar batzuk bigarren mailakotzat jotzen dituela. Marra argi bat ezarri nahi dutela ematen du: euskarari ez zaio utzi behar tokirik eremu *ez-euskaldunean*, eta ez da orain baino gehiago garatu behar *eremu mistoan*. Eta *eremu euskaldunean*? *Eremu euskalduna* hor konpon.

PSNk Nafarroan dituen 233 zinegotzietatik eremu euskaldunean daudenak Olatzagutiko pare bat eta gutti gehiago dira. **TTIPI-TTAPA** banatzen den herrietan, berriz, bakarrik ere ez. Zifra adierazgarria, azaltzeko alderdi horrek euskaldunei buruz eduki dezakeen ezagutza, sentsibilitatea eta interesa zer-nolakoa den. Espainolistek Nafarroa hegoaldeko euskaldunen eskubideak ukatzeko maiz erabiltzen duten argudioetako bat da gutti direla, eta presentzia ttikia dutela euskararen aitortza handitzea aldarrikatu ohi duten alderdiek, hau da,

## «ESPAINOLISTEK BADAKITE HAIEN PRIBILEGIOAK NOLA INPOSATU»

Bidezkoena litzateke, hortaz, Nafarroa hegoaldeko euskaldunei eskubiderik ez aitortzeko «errealitate soziolinguistikoa» aitziakiazat erabiltzen bada, *eremu euskaldunean* ere modu berean jokatzeko. Hau da, gaztelania administrazioaren hizkuntza gisa desagertzea, hezkuntza publikoan D eredua ez den bertze bat eskatzeko eskubiderik ez izatea, gaztelania karriketako letrero ofizialetatik kentzea, eta harreman ofizial guziak euskaraz bakarrik egitea. Hori litzateke egiazko *eremu euskaldun* bat ezartzea, *eremu ez-euskaldunaren* pareko estatusa lukeena. Belgikan dutenaren antzekoa: iparraldean Flandria, nederlandera hizkuntza ofizial bakarra duela; erdian Brusela, eremu mistoa; eta hegoaldean Valonia, frantsesa hizkuntza bakartzat. Baina espainolistak bizkorrik dira, eta badakite haien pribilegioak nola inposatu.

Lehenik, Espainiako Konstituzioak espainola ezartzen du lege jakin beharreko hizkuntza bakartzat, eta Espainiako Estatuak behar diren baliabide guziak paratzen ditu haren menpeko herritar guzietatik hizkuntza hori jakin dezaten. Behin marko hori alde dutela, espainolistek Nafarroako parlamentutik eta gobernutik segregazioa exekutatzeko dute: euskaldunei guttiengoa diren eremuetan ez zaie hizkuntza eskubiderik onartzen edo arruntan mugatzen zaie, eta gehiengoa diren eremuetan euskara ofizial izan dena dutela erraten zaie, baina borondatezko hizkuntza bat baino ez da, eta exijitzen da gaztelaniak administrazioan guttienean euskararen pare egon behar duela. *Eremu euskalduna* paper errea baino izan ez bada espainolistentzat, nola ez dute horrela tratatuko, bada, euskalduntzat ez duten eremua?



IZASKUN IGOA JAIMERENA

## Zenbat ordu ditu egunak? Zenbat denbora du orduak?

Gero eta gehiago aditzen da bizitzari zentzia ezin harrapatu ibiltzen dela jendea. Gazte eta ez hain gazte, baina ez guti. Bertze batzuentzat zentzurik ez duena, halako esaldietan pentsatze hutsa da. Bagara manera guztietakoak; batzuk denbora gutiago eskaintzen diote beren pentsamenduetan kateatzeari: di-da edo ez hain di-da, baina erabakiak argi xamar hartzen dituzte (hala ez diren ikuspegirako bederen). Bertze batzuk, pentsamendu bat hartu, behin pentsatuta gehixeko pentsatzea pentsatu eta hola segi, hondarrea buruaren kontrola galdu artio. Eta tartean bertze modu andana, bien arteko *mixekin* edo *diferenteekin*.

Terapeuta, bidelagun eta bertze gisako profesional batzuek diote, gaur egun jendartean behin eta berriz ateratzen den kezka edo arazo batek gure existentziarekin lotura gehiago duela, gaixotasunekin baino. Hau da, ohikoa dela pentsatzea burua 'gaizki' dugula, eri gaudela, traumaren bat dugula, iraganezko zerbait konpondu gabe edo etab. luze bat. Batzuetan edo gehixegotan, bai; batzuetan laguntza behar izaten da halakoak konpontzen laguntzeko. Baina, bertze batzuetan, arazoa izaten da ez dakigula nola *leetxes* bizi. Ez dakigula zer egin nahi dugun, zertan aritu nahi dugun, zer dugun eskaintzeko edo zer eskaini nahi dugun (edo ez dugun nahi) gure inguruetan. Eta

## «NOLA IKUSI ZENTZUA? NOLA LAGUNDU ELKARRI?»

aldia berean, mila gauza diferente momentu berean egiteko presioa sentitzen dugu. Gehienetan kontrajarririk gainera. Gehi, ezin da denborarik hartu, dena segidan erabaki eta jakin behar dela iruditzen baitzaigu edo mezu horiek hartzen ditugu kanpoaldetik. Hainbertzeko aukera zabala dugu orain, gure bizitzaren gain 'ustez' hainbertze erabaki hartzeko aukera, horrek berak blokeatzen gaitu. Etorkizunerako antsiak bizi gara maiz eta hala, egunak 24 ordu ditu, baina ez du denborarik. Egundatek denbora duela sentituen azken aldia konfinamendua ote zen? Egin nahi-behar den dena egiteko denbora falta dela pentsatzeak eta sinesteak, ezinegon handiak sortzen ditu eta akaso jendarteko antsietate mailak goititzeko erremedioa ere bada. Lehenago lan egin gabe egotea bekatua zen bezala, egundatek, denbora batez zerbait produktiboa egin gabe egotea aski igualtsua da. Hortaz, harat eta honat ibiltzen gara, zenbat eta gauza gehiago egin, hobeki izanen delakoan. Eta bertze batzuk, hori ezin egin, eta beren etxeetan, geletan gelditzen dira (bekatutik hurbil, zerbaiten errudun sentitzen). Jendeak beldurra emateraino eta jende aitzienera ezin atera. Eta antsietate zirkulu horietan, nola ikusi zentzua?

Zer egin ahal dugu honen aitzinean? Nola lagundu elkarri? Bizitzak bere horretan zentzurik ote duen... Baina egia da zentzua ematen saiatzen ahal garena edo akaso horretan zerbait egin dezakegu elkarrekin. Nahiz eta ez ongi sentitu, zentzua eman nahi dionak aunitzetan zentzua gauzarik xumeenean harrapatzen baitu: egunsenti bat, kantu bat, malko batzuk, begirada bat edo arbola bateko adarrak, urtez urte hostoak galduta, behin gehiago hostoari emaneko sorrera.

## 11 GALDERA LABUR

ENEIT BERTIZ APEZETXEA SUNBILLAKO TXIRRINDULARIA

## «Entrenamendurik gabe aitzinean egotea hagit zaila da»

Zaletasun bat baino gehiago da txirrindularitza Eneit Bertizendako. Hainbat garaipen lortu ditu dagoeneko bere ibilbide laburrean eta ideiak argi ditu etorkizunerako.

**Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?**

16 urteko mutiko sunbildar bat naiz.

**Zein dira zure zaletasunak?**

Egia erran, zaletasun anitz ditut, adibidez: bizikletan ibiltzea, motoan ibiltzea, lagunekin egotea, kotxeak, ehiza...

**Noiz ikasi zenuen bizikletan ibiltzen?**

Bi urterekin hasi nintzen bizikletan ibiltzen. Gainera, gibelesko gurgiltxorik gabe, nire anaia ordurako bizikletan normal ibiltzen zen eta nik bera bezala ibili nahi nuelako.

**Noiz hasi zinen txirrindularitza serioago hartzen?**

Orain dela bi urte hasi nintzen serioago. Ordura arte futboleko jokatu nuen, baina lagunek lasterketetan parte hartzeri animatu zidaten eta orduan hasi nintzen.

**Podio anitzetara igo zara, azkenaldian Euskadiko Irekian eta Lizarrako Superprestigioan. Zein da sekretua?**

Nire ustez sekreturik handiena entrenatzea da, entrenamendurik gabe aitzinean egotea hagit zaila delako. Baina bertze gauzek ere inportantzia dute, adibidez, zorteak.

**Zenbat denboraz entrenatzen zara astean?**

Normalean zortzi-bederatzi orduz entrenatzen naiz, ka-



rerrak barne. Baina anitzetan aldatzen ahal da, eskola garaian denbora gutiago daukat eta udangehiago entrenatzen naiz. **Zeintzuk dira zure erreferenteak txirrindularitzan?**

Mathieu van der Poel txirrindulari herbeheretarra da nire erreferenterik inportanteena. **Zer da kirol honetan gehien eta guttien gustatzen zaizuna?**

Gehien gustatzen zaidan gauza lagunekin bizikletan ibiltzerajotea da eta guttien behar den dedikazioa.

**Etorkizunari begira, txirrindularitza ogibide bihurtzea gustatuko litzaizuke?**

Gustatuko litzaidake, bai. Baina hagit zaila ikusten dut, maila altua dago eta arrakatsua izatea hagit zaila da. **Zure asmoak epe motzera?**

Epe motzera, Espainiako Txapelketara joatea eta han lan ona egitea da nire asmorik handiena.

**Eta epe luzera?**

Epe luzera, arrakasta izatea bizikletan.



1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

**Albornozak**  
**Mantelak**  
**Kuxinak**  
**Edredoi nordikoak**  
**Ohe estalkiak**  
**Maindireak**  
**Toailak**  
**Edredoi-azal nordikoak**



## IRAKURLEAK MINTZO

### Igantzikoko merkatua

ANHOA MITXELENA ETXEBERRIA

IGANTZIKO GURASO ELKARTEAREN IZENEAN

Joan zen ereiaroaren 20an Igantzin izan zen Merkatu edo Azoka egin ahal izateko modu zuzenean eta bazterretik lagundu zeniguten guzietan eskerrak eman nahi dizkizuegu. Lan ederra egin zenuten eta zuek gabe ezin izanen zen hain egun borobila burutu. Eguraldia lagun, eta dantzari, kankailu, buruhandi eta musikarien animazioarekin egun hagitz polita izan zen. Egiatan, eta bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

### Zorion 'bru-ta-la'!!!

EDURNE GOMEZ

COVID-19ak, ez ditu ondorio negatiboak soilik ekarri. Izan ere, egoera normal batean, Euskal Herria Mendi Erronka (EHME) antolatuko zuten ekainean eta seguruenik, bertan parte hartuko zuten Iraitzek eta Ikerrek. Baina birus hau dela eta, Iraitzi eta Ikerri beste motatako erronka bat bururatu zitzaizkien beraien erroaldietako batean.

Erronka honetan, auzolana, ume nahiz helduen elkarlana, behar bereziko haur eta umeekiko sentsibilizazio eta enpatia, zailtasun edota behar bereziak dituzten pertsonen hitza, herrian pertsona hauek egunerokotasunean izan ditzaketan oztupoen ikusgarritasuna edota albo batean ezkutatuta dagoen gai garrantzitsu hau azaleratzea lortu duzue, besteak beste. Herritarren portzentaje urri baten lekuan jarri eta beraien mugak ikusgai bihurtu dituzue. Modu batera edo bestera, herritarren gehiengo mugiaraztea lortu duzue. Eskerrik asko horrelako ekimen hunkigarri batean parte hartzeko aukera eskaintzeagatik.

Eta lan horren atzean jende asko egon arren, ezin gelditu sei familien lana zoriondu gabe. Zorionak hilabete hauetan egin duzuen guztiagatik. Buru-belarri aritu zarete etengabe lanean, bakoitzak bere familia, lana, etxea, egoera pertso-

nala... uztartuz. Hori gutxi balitz, zuen haurrak zuekin batera lanean aritu dira, horrelako ekimen batean, pertsona orok, adina kontuan hartu gabe, parte hartu dezakeela erakutsiz. Lan egiterakoan, berdin izan zaizue astelehena, larunbata edota igandea izatea, oso garbi izan baituzue zeintzuk ziren zuen helburuak. Larunbateko [ekainaren 26a] herritarren ongiatorria, hilabete hauetan egin duzuen guztiaren erantzuna izan da. Hitzik gabe utzi gaituzue. Zuen kuadrillan esaten duzuen bezala, lan BRU-TA-LA egin duzue. Ikaragarria, itzela, hunkigarria, handia, intentsoa, kontzientziagarria, enpatikoa, eredugarria... Hitz horiekin deskribatuko nuke zuen erronka.

Eta nola ez, zorionak Iraitzi eta nire anaia Ikerri 150 kilometroko kirol erronka borobila burutzeagatik. 33 orduz gelditu gabe aritu zarete abenduan ingurukoei aipatzen hasi zineten lorpen-adierazle horiek lortzeko. Lortu dituzue bai, baina hasierako zazpi lorpen horiek labur gelditu dira lortu dituzuen guztiakin alderatuz gero. Gure *attunak* esanen lukeen bezala, bejondeizuela! Aupa LHL eta aupa zuek!! Sinetsi lortu duzuenen, zuen garaipena da eta!

### Larrialdi irteerak

ARANTZAZU LIZARTZA SAIZAR

Atrebentzia irudituko zaizue akaso, lotsagabetzat hartuko nau zuetakoren batek; edo, areago, egonen da errespetua galtzen ari naizela pentsatuko duenik ere. Hala ere, zin dagizuet, premiazkioa ikusiko ez banu, ez nintzatekeela suizidioaz mintzatuko. Albert Camusen aburuz, gatazka filosofiko serio bakarra suizidioa bera da, hau da, benetan bizitza bizitzea merezi ote duen itauntzea. Nik zera gehituko nuke: gatazka filosofikoaz gain, arazo existentzial, moral eta klinikoa ere bada. Baina zein da suizidioaren logika?

Min psikiko jasanezin baten azken ondorioa da suizidioa, eta, beraz, sufrimendurik ez badago, ez dago autolisirik. Ukaezina da osagai ezberdineko heriotza

## BOTA BERTSOA

**JON AROSTEGI IRAZOKI**  
BERAKO  
BERTSOLARIA  
BAZTAN-BIDASOKO  
BERTSOPAPER  
LEHIAKETAN  
A MAILAN 2. SARIA



### Klima aldaketa

*Klima aldaketa da guk sortzen duguna gaua hotzagoa da beroa eguna.*

*Ibaietan zaborra fabrikaren kea guk sortzen dugunak du egiten kaltea.*

bat dela, besteak beste, gertakari auzipetua —eta ez edonola— delako; baina, pronostiko ororen aurka, azpimarratzekoa da ez dela erabaki libre bat, sufrimendua guztiz baldintzatua baizik. Metaforikoki adierazita, demagun sufrizten ari den pertsona neurri egindako kaxa baten barruan aurkitzen dela, uzkur-tuta, mugitzeko ahalmenik apenas izan gabe. Heriotza min jasanezin horretatik ateratzeko irtenbide bakartzat ikusten du pertsonak, baina ez heriotza bilatzen duelako, baizik eta sufrimenduari amaitzea. Heriotza, horrenbestez, bitarteko bat da; ez helburua. Heriotzaren osagai ezberdinak nola, doluarenak ere baditu bere berezitasunak. Batzuk nabarmentzekotan, metabolizatzen zaila den erru sentimendua, hipotesien etengabe bonbardaketak, lotsa, eta galderak gailenduko nituzke; erantzunik izanen ez duten zientoka galdera.

Testu honen xedea ez da suizidioaren inguruko tabu sozial, kultural eta erlijiosoak desegiten hastea besterik; honelako heriotza bati bizi irauten dion horren bizipen traumatiko eta mingarria arinagoa izan dadin.

# Zaindu maite duzun hori...

# Zein da zuzena?

## Nola erran?

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

### 'Egiten ikasten da' ala 'Eginez ikasten da'?

Aunitzetan zalantzak sortu izan dira honetakoetan: 'egiTEN ikasten da' ala 'eginEZ ikasten da'?

Bi aukerak zuzenak dira, baina erran nahi dutena desberdina da.

- *-t(z)en ikasi* 'ZERTAN ikasi' galderaren erantzuna da. Adibidez:
  - Igeri egiTEN ikasten ari naiz.
- *-z ikasi* 'NOLA ikasi zerbait egiten' galderaren erantzuna da. Adibidez:
  - Uretan sartuZ, besoak mugituZ eta oinei eraginEZ ikasten da igeri egiTEN.
  - Taka-taka ibiliZ ikasten da oinez ibiltZEN.

### \*Bolondres edo boluntario?

Euskaltzaindiak, *bolondresek* euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, hitz hori ez erabiltzea gomendatzen du. Hortaz, *boluntario* erabili behar dugu.

### \*Poltsa edo poltsa?

Euskaltzaindiak *poltsa* arautua du, eta ez *\*poltsa*.

## Hizki-zopa

Bilatu baserri munduko hamar hitz!

I	G	I	T	A	I	G	O	L	D	E	A	N	J
I	Z	U	A	R	R	A	S	T	E	L	U	J	P
O	K	D	N	P	O	Z	Z	T	Y	F	X	S	L
C	Y	S	K	K	R	S	A	I	T	Z	U	R	K
R	S	N	X	K	A	R	S	E	G	A	Q	O	U
Y	S	B	L	O	J	F	Q	D	J	C	D	B	Z
I	S	A	R	D	E	N	L	A	I	A	U	Y	E
T	R	R	R	R	D	B	N	P	Z	S	S	Y	S
X	E	F	G	A	N	B	E	L	A	M	F	N	B
M	L	R	T	P	I	K	E	T	E	E	N	M	I
M	E	T	A	T	O	W	L	D	U	Y	G	S	Y
F	K	G	P	L	X	R	F	A	M	A	F	G	Q

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61



Maria Angeles Iturralde Arraztoa eta Ines Zayas Iturria liburuzain izanak eta Sonia Lopez Igartua, egungo liburuzaina. ONDIKOL

## «Liburutegia gizartearen erdigunean kokatu beharko genuke»

**SONIA LOPEZ IGARTUA** BAZTANGO LIBURUTEGI PUBLIKOKO LIBURUZAINA

Baztango Liburutegi Publikoak 50 urte bete ditu aurten. Azken 43 urteetan Sonia Lopez Igartua arduratu da atea irekitzeaz eta heldu den uztailan erretiroa hartuko du

### **NEREA BAZTERRIKA**

Apal xume batzuk eta 300 bat liburu. Liburutegiaren hasierako bilera akta batean irakur daitekeenez, horixe bertzerik ez zituela ireki zituen atea Baztango Liburutegi Publikoak. Mende erdia pasatu da orduetik eta, gaur egun, datu zehatzik ez dagoen arren, «35.000 euskarri baino gehiago» izanen direla uste du Sonia Lopez Igartua liburuzainak. Lau hamarkada baino gehiago daramatza Lopezek lan horretan. Liburutegia udaletxearen azpian zegoenean hasi zen, Arizkunenean lekualdatu zuten gero eta Jaime Urrutian dago egun. Urte horietan guztietan aldaketa bakoitzaren lekuko eta aldaketen bultzatzaile izan da Lopez.

### **Noiz hasi zinen liburutegian lanean?**

1978ko martxoaren 1ean. Liburuzain bat behar zutela jakin nuen eta merituen arabera lehiaketara aurkeztu nintzen. Orduko hartan ez zen azterketarik egiten, urte hura izan zen hautaketa prozesua azterketarik gabea izan zen hondarreko urtea. Hala hasi nintzen eta 43 urte daramatzat hemen.

### **Ordutik zenbat aldatu da liburutegia?**

Gaur egungo liburutegiak ez du ordukoarekin zerikusirik. Hasi nintzenean norbaitek izanen zela erran izan balit ez niokeen sinetsiko. Lehen isililik egoteko tokia zen liburutegia, liburuak eta irakurleak

isilik eta ni agintzen. Erabiltzaileei behin eta berriz isiltasuna eskatzen aritzen nintzen. Gaur egun liburutegia topagunea da, bertakoen eta bertakoak ez diren bilgunea, informazioa jasotzeko, euskarriak maileguan hartzeko... gunea. Liburuak baino aunitzez ere baliabide gehiago dago, eta espazioak ere ez du zerikusirik. Sare sozialek ere indar handia hartu dute eta garrantzitsuak dira, ni horretan ez naiz sartu baina... Izugarriko garapena izan du. Nire ustez, Kataluniako liburutegiak erreferenteak dira. Han liburutegiak laguntzeko gune ere badira, informazioa eskatzeko baliatzen ditu jendeak. Katalanak aitzinetik doazen arren, Euskal Herrian gero eta gehia-

go hurbiltzen ari gaitzaizkie eta, gaur gaurkoz, hemen ere erreferenteak badira.

**Garapen hori ez da bere kasa ailegatu... Horretarako lan egin behar izan duzue.**

Bai, eta prozesu horretan momentu onak eta txarrak izan dira. 90eko hamarkadan, adibidez, lan handia egin zen. Beran, Lesakan, Baztanen... dendetara liburuak eraman genituen, erakusleihoetan paratzeko eta karririk hartu genituen. Jendeari liburutegia hor dagoela eta eurena dela erakutsi nahi izan genion. Egun ere lantzen da hori. Eskolako irteerak ere izaten ditugu, liburutegia gizartearen erdigunera eraman nahi dugu.

**Mende erdia joan da Baztango Liburutegi Publikoak atea ireki zituenetik...**

Hasiera hartan liburuzaina eta idazkariak lan egiten zuten Liburutegian eta hilabetero bilera bat egiten zuten. Orduko akta batean irakur daiteke Baztango liburutegi Publikoak 300 bat libururekin ireki zituela atea. Arras guti eta klasikoak ziren, noski.

**Kokalekua ere aldatu da urte hauetan guztietan...**

Udaletxean azpian hasi nintzen, kartzela zen tokian. Hortik Arizkunenean joan ginen, lehenbiziko pisura eta 2010az geroztik Jaime Urrutian gaude. **Eguno tokiak ez du ordukoaren antzik...**

Leku garbia eta argia da, nahiz eta bere hutsuneak ere badituen, ederra da. Leihorik ez du eta karga arazoak ere baditugu. Horregatik, liburuak alde batean daude. Bertze aldean, gu gauden tokian, erreka ganean gaude eta hor ezin da pisu aunitz paratu. Azpiko alde indartuz gero, liburutegiari aise probetxu gehiago ateratzen ahalko genioke...

**Espazio aldetik, nolakoa da liburutegia?**

Haurrendako gela bat, ikasketak gela eta aurkezpenetarako gela ttiki bat ditu. Azken hau lehen etxerako lanak egiteko ere erabiltzen zen. Beraz,



sarrera handi bat, bi gela handi eta gela txiki bat ditugu.

### **Liburuak, diskoak... kontuan hartuz, zenbat euskarri dituzue?**

Ez dakit zehatz-mehatz zenbat izanen diren. Berriki liburu batzuk erregistratu ditut eta 30.000 inguru zeuden baina datu hori ez da guztiz fidagarria. Gehiago dira. Liburuak, diskoak, filmak... euskarri guztiak kontatuta guti goiti-beheiti 35.000 baliabide fisiko daudela erranen nuke. Horrez gain, ordenagailuak ere baditugu, noski eta horien bitartez ehunka euskarri digitaletara sarbidea dago, eBiblio, eFilm eta InfoMagazinera bertzeak bertze.

### **Nolakoa da zure egunerokoa liburutegian?**

Etortzen naizelarik, ordenagailua martxan paratu, argiak piztu eta barreneko lanak egiten ditut: korreo elektronikoa begiratu, egunkariak hartu, eskaerak egin, katalogatu, materiala bere tokian paratu... Ordenak garrantzi handia du liburutegiko egunerokoa. Alde horretatik informatikak aunitz lagundu du, dena hortik egiten dugu. Gehiago ere bada, erabiltzaile aunitz erabiltzaile birtualak dira gaur egun eta nik ez ditut ezagutu ere egiten.

### **Guztira zenbat txartel dituzue?**

Ez dakit. Lan hori egin nahi dute. Aunitz daude, baina eguneratu gabe daudenez eta hil zirenak, hemen bizi ez direnak... oraindik hor daudenez ezin da jakin.

### **Jende aunitz ibiltzen da liburutegian?**

Koronabirusaren kontua ailegatu aitzinetik liburutegi fisikoan bai. Joan den urtean bi hilabetez itxita egon zen eta liburutegi digitalak gorakada izan zuen. Egoitza fisikoa ireki zenean beldurra sumatu zen. Joan den neguan liburuak hartu eta uztera etortzen ziren baina bertan egotera guti. Neurri guztiak betetzen dira baina... Orain pixkanaka normaltasunera bueltatuko garela uste dut. Erdi-erdian gaude, jendeak badaki non gauden eta hori inportantea da.



Liburutegiaren 50. urteurrenari keinu egiteko ekitaldi instituzional bat egin zuten maiatz hondarrean. JM ONDIKOL

### **Zein adin tartekoak dira erabiltzaile gehienak?**

Egoteko bereziki gurasoek eta haurrek erabiltzen dute. Hori belaunaldiz belaunaldi transmititu da. Orain gurasoak direnak lehen nire neska-mutilak ziren. Horrez gain, ikasleek, eskola liburutegien faltan, estudiatzeko erabiltzen dute nahiz eta hori ez den liburutegi publikoaren funtzioa. Helduek liburuak hartzeko ere erabiltzen dute.

### **Negutik udarako aldaketa, arratsalde irekizetik goizez aritzera, sumatzen da?**

Bai, sumatzen da. Goizez ez da arratsalde bezainbertze ibiltzen. Udan Dolores Redondoren kontuarekin turistak ere etortzen dira... Edozein modutan, nire ustez Baztanek hartzen duen eremu osorako, hau da, 15 herri direla kontuan hartuz, langile gehiago paratu eta goizez eta arratsalde ireki beharko litzateke, 09:00etatik 21:00etara. Herrietako jende aunitz goizetan etortzen

da, mandatuak egitera eta neguan goizez itxita dago...

Aldi berean, eskolaz kanpoko jardueretara etortzen diren inguruko gaztetxoendako aukera ona da liburutegia. Bertzela, garraio zerbitzua behintzat, liburuak herriz herri banatzeko, izan beharko litzatekeela uste dut.

### **Nola animatuko zenuke jendea liburutegira?**

Hasteko, liburutegia euren dela erranez eta hamaika aukera eskaintzen dituela oroitaraziz: harremanak egiteko, jendea ezagutzeko, jakintzak partekatzeko, kulturak ezagutzeko, liburu bat hartu eta gozatzeko... aukera ematen du. Guztiona da eta denak dira ongi etorriak hemen, ez dugu inor baztertzeko. Hitz gutitan, nahi dena egiteko aukera ematen du liburutegi publikoak. Eskoletako liburutegiek, unibertsitatekoek... bertze funtzionamendu bat dute.

### **Liburutegiaren urteurrena ospatzeko ekitaldi instituzional bat**

### **egin zenuten... Nola bizi izan zenuen egun hori?**

Erakusketa bat martxan paratu genuen, liburu baten aurkezpena egin genuen eta hiru liburuzainak elkartu ginen. Hainbertze denboraren ondotik denak elkartzea arras polita izan zen. Alkatea, zinegotzia... etorri ziren eta urteurrenari keinu egin genion.

### **Zer da liburutegia zuretzat?**

Goxo egoteko tokia. Nire bizitza da. Ez da lana bakarrik, egunero arras kontent etortzen naiz. Non gaude liburutegi batean baino hobeki? Errekarren ondoan, liburu bat eskuartean duzula egotea... zoragarria da.

### **Heldu den urtean erretiroa hartuko duzue... Zer egingen duzue horrenbertze denborarekin?**

Bai, uztailean da nire urtebetetzea eta orduan utziko dut. Hurrengo belaunaldiei tokia egin behar zaie, jende gaztea behar da. Irakurtzeko behintzat aprobetxatuko dut, hemen ez dut horretarako denborarik. Horixe izan zen konfinamenduan gehien egin nuen, dozena bat liburu irakurri izanzen nituen. Falta sumatuko dut, baina ordutegirik gabe bizi-tzeko, bidaiatzeko... baliatuko dut denbora.

**«LIBURUTEGIA NAHI DUTEN GUZTIEN TOPAGUNEA DA»**

**«LIBURUAK HARTU ETA ERAMATEKO ZERBITZUA BEHARKO GENUKE»**



Abenduan UEMAko herritarren hizkuntza eskubideen urraketak biltzen dituen borzgarren txostena aurkeztu zuen UEMAK parlamentuan. Aitor Elexpuru hartu zuen hitza.

## Osasun zerbitzuan legea betetzetik urruti

Eskualdeko osasun zentroetan dauden ehun lanpostuetatik 39ri baino ez diete eskatzen euskaraz jakitea. Zenbaitetan, hizkuntza eskakizuna izan arren, ez dira herritarrekin euskaraz komunikatzeko gai eta, alderantziz, eskakizunik izan gabe badira zerbitzu elebiduna bermatzen dutenak

### G. PIKABEA

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko herrietako bortz osasun langiletik batek ez daki euskaraz. Hala ondorioztatu du UEMAK mankomunitateko 90 udalerrietako osasun zerbitzu publikoetako datuak aztertu ondotik. Tartean dira UEMAko kide diren Arantza, Areso, Baztan, Bera, Etxalar, Goizueta, Igantzi, Leitza eta Lesakako datuak.

Nafarroan, ordea, egoera «are makurragoa» da Aitor Elexpuru Berako alkatearen eta UEMAko zuzendaritzako

kidearen hitzetan, «Nafarroako Gobernuaren osasun zerbitzuan eta UEMAko udalerrietako lanpostuetan hamarretik seitan ez baitute euskaraz jakitea eskatzen». Horixe da, hain zuzen, eskualdeko osasun zentroetako egoera. Nafarroako Gobernuaren

**«NAFARROAN EGOERA MAKURRAGOA DA»**

AITOR ELEXPURU, ALKATEA ETA UEMA

2020ko plantilla organikoa kontuan hartuz, Baztango eta Urdazubi-Zugarramurdiko, Bortzirietako, Malerreka-Bertizaranako eta Leitzalde-Urumealdeko osasun zentroetan ehun langile daude eta horietatik 39ri baino ez diete eskatzen euskaraz jakitea. Elexpu-

**«LEGEA BETE ORDEZ URRATZEN ARI GARA»**

AITOR ELEXPURU, ALKATEA ETA UEMA

uren ustez, datu horiek «egoera zein larria den erakusten dute. Gure etxean bertan, euskaldunak diskriminatuak gara». Gaineratu duenez, «oinarrizko gabezia edo akatsa lanpostuen hizkuntza eskakizunetan dago. Lanpostu horiei eskakizun elebiduna jarri behar zaie herritarrek langile publikoekin euskaraz aritzeko duten eskubidea berriaz bermatua izan dadin. Hori zuzenduko bagenu, urte batzuen buruan egoerak hobera egingen luke, zalantzarik gabe. Egungo medikuak erretiratu ahala berriak euskaldunak balira, errelebo horrek lagunduko luke».

Gehiago ere bada. Zenbait kasutan, hizkuntza eskakizuna izan arren, ez dira gai herritarrekin euskaraz komunikatzeko, eta hori, «hagitz larria eta onartezina» iruditzen zaio: «Ez dugu legeak agintzen diguna bermatzen, legea urratzen ari gara». Alderantzizko kasuak ere, «zorionez», badi-

rela dio, hau da, «hizkuntza eskakizuna izan ez arren, euskaraz aritzen direnak». Baina hori ez zaio nahikoa iruditzen: «ezin dugu euskarazko zerbitzua langileen borondatearen esku utzi. Legez bermatua izan behar da, eta lege hori beteazari beharko litzateke».

Horren harira, Nafarroako Euskararen I. Plan Estrategikoak «arnasguneak aintzat hartzen dituela» oroitarazi du: «Legeak dio zonalde euskaldunetan, hau da, udalerri euskaldunetan, euskaraz gizarte bizitzan duen nagusitasuna zaindu eta sendotu behar dela. Baina eremu euskaldunetan legea ez da betetzen, eta gure hizkuntza eskubideak urratuak dira». Alde horretatik, «osasan eskubidea ez da inoiz eskubide osoa izanen hizkuntza eskubiderik gabe», azpimarratu du.


### Osakidetza eta Osasunbidea

Hizkuntzaren gaiari lotuta, Osasunbidearen eta Osakidetzaaren arteko «alde nabarmena» ere hizpide izan du. UEMAREN arabera, «Nafarroan udalerri euskaldunetan postu garrantzitsu batean eskatzen da euskaraz jakitea, bortzetik bitan ere ez. Osakidetza, berriaz, UEMAKO kide diren udalerrietan, ia lanpostu guztietan derrigorrezkoa da euskara gaitasuna egiaztatzea».

### 2013tik bortz aldiz parlamentura

Egoerari buelta emateko eskaera aspaldikoa da. UEMAK, erraterako, 2013az geroztik, bortz aldiz jo du Nafarroako Parlamentura. Abenduan aurkeztu zuen udalerri euskaldunetako herritarren hizkuntza eskubideen urraketak biltzen dituen borzgarren txostena, pediatren, familia medikuen, erizainen, harrerako langileen eta larrialdietako langileen datuak bilduz. Aitzineko aldiandian bezala, parlamentuko agerraldian izan zen Elexpuru eta «orokorrean harrera ona» egin izan dietela aitortu du: «Azken

## Eremu euskaldunetan osasan zerbitzua euskaraz izatea eskubidea da eta legez aitortua



Datuak 2020koak dira, ordukoak baitira azken datuak.

bi legegintzaldiko gobernuek jarrera hobea erakutsi dute. Hitzez bederen, talde politiko gehienek babesa izan dugu. Jarrera ona eta ulerkorra erakutsi dute, baina hitzetatik ekintzetara pasatu behar da, eta alde horretatik aurrerapausoak motel doaz. Beti zailtasunez solastatzen dira, langileen eskubideez...». Gaiaren «konplexutasuna» onartu du UEMAKO zuzendaritzako kideak, baina «ezinbertzekoa» iruditzen zaio «aurrerapausoak ematen segitzea».

### Plantilla organikoan aldaketak

Heldu den urtera begira, Euskarabideak egindako aurreikuspena ere mahai gainean jarri du: «Heldu den urteko

plantilla organikoan lanpostu hizkuntza eskakizunetan aldaketak izan direla erran digute, eta ea hala den». Baina gainerakoan, «urteotan, zoritxarrez, gutti aitzindu» dela ikusten du Berako alkatetik: «Azken agerralditik ona ez da aldaketa nabarmenik izan». Eta bereziki, «pediatra zerbitzuetan nabarmen gibelera» egin izana gaitzetsi du.

### Pediatrak

UEMAREN arabera, pediatren hiritik bat ez da euskalduna eta, eskualdean hori ere ez: Alde horretatik, kexu da «gure haurrek ez dutelako euskaraz artatuak izateko aukerarik, eta beraie hizkuntza eskubideak urratuak direlako».

Gaiaren harira, pediatren «eskasia nabaria» aipatu du, «eta horrez gain, daudenak erdaldundak direnez, hagitz egoera txarrean gaudela» uste du. Bere irudiko, «oraindik okerragoa» da «nahiz eta pediatrek hizkuntza eskakizuna izan, pediatra euskaldunak ez izatea. Legea ez da betetzen».

Larrialdietako medikuen egoera ere «hagitz larritzat» jo du, «gure hizkuntza eskubideak etengabe urratuak diren» seinale. UEMAKO kide diren eskualdeko herrietan Leitzaldekoek bakarrik egiten dute euskaraz eta horregatik adierazi du «euskarari dago-kionez, larrialdi egoeran gaudela».

### Lanean segitzearen beharra

Hala ere, «etsipenean erori gabe», sinetsita dago «lanean segitzea» dela bidea: «Euskararen arnagune garen aldetik gure eskakizunekin aitzinera segitu behar dugu, administrazioa garen aldetik ere →

## «OSAKIDETZA ETA OSASUNBIDEAREN ALDEA NABARIA DA»

AITOR ELEXPURU, ALKATEA ETA UEMA

## «BORROKA HONETAN DENEN BEHARRA DUGU»

AITOR ELEXPURU, ALKATEA ETA UEMA

du izan behar dugu, euskaraz bizitzeko egin dugun hautuarekin aitzinera segi behar dugu». Argi du: «Guk ez badugu egiten nork eginen du ba?». Bide horretan, «jendar-tearen presioaz» ere mintzatu da. Hizkuntza Eskubideen Behatokiak Nafarroako Gobernari egindako 71 kexa bildu zituen 2019an eta horietatik 38 osasun arloari lotutakoak ziren. UEMAKo zuzendaritzako kidearen hitzetan, «osasun arloko kexak ez dira gutti» eta nabarmendu duenez, «borroka honetan inor ez dago sobera, denen beharra dugu».

«Bidea erraza ez dela» jakitun den arren, etorkizunari «baikor» begiratzen dio: «Lanean segitu bertze erremediorik ez dugu. Ezin gara erlaxatu eta lasaitu, bertzela gibelera pausoak heldu dira, eta horiek bai agudo ematen direla».

### Nafarroako Gobernuari eskaerak

Behin baino gehiagotan parlamentuko lan-saioretan adierazi izan duen bezala, UEMAK Nafarroako Gobernuari egindako eskaerak zein diren ere oroitarazi du. Alde batetik, «eremu euskaldunetako osasun etxeetan, eskakizun elebiduna ez duten lanpostuei eskakizun elebiduna jartzea» ezinbertzekoa dela azaldu du, «bertzeak bertze, pediatren, medikuen, larrialdietako medikuen, erizainen edota administrari-harreragileen lanpostuetan». Bertzetik, «behar bezalako zerbitzua emateko EB2 jakite-maila eskasa dela ikusirik, lanpostu horietan EC1 maila» eskatu du.

Eta horrekin batera, «hurrengo urteetarako aurreikuspen plan bat» exijitu du, «plaza elebidun gehiago izan daitezen bermatzen joateko eta plaza elebidunetan eta haien ordezkapenetan langile elebidunak egon daitezen bermatzeko». Ez hori bakarrik. «Gainerako arloetan ere pau-

## Eskualdeko osasun etxeak UEMArekin arabera



### Baztan eta Xareta

- **MEDIKUAK:** Arizkunen, Oronozen, Iruritan eta Urdazubi-Zugarramurdi mediku bana ari da eta zerbitzu elebiduna bermatua dute. Elizondoko osasun etxean hiru mediku ari dira, bi elebidunak.
- **LARRIALDI ZERBITZUETAKO MEDIKUAK:** Sei lanpostu daude, baina plaza horietan ari direnek ez dakite euskaraz.
- **PEDIATRIA ZERBITZUA:** Pediatrako lanpostu bat lanaldi osoan eta bertze bat Elizondon eta Ultzamako osasun zentroan aritzen zen. Lanaldi osoan ari dena ez da gai zerbitzu elebiduna emateko. Elizondon eta Ultzaman aritzen zena bai, baina joan egin zen. Pediatrako bi erizainek zerbitzu elebiduna ematen dute.



### Leitzaldea eta Urumealdea

- **MEDIKUAK:** Goizuetako medikuaren plazak hizkuntza eskakizuna du eta medikua gai da zerbitzu elebiduna emateko. Goizuetan, bertzetik, laguntzako medikuaren plaza dago, hutsik. Egun plaza horretan dabilen medikuak ez du hizkuntza gaitasunik zerbitzu elebiduna emateko. Leitzan, berriz, bi mediku plaza daude, UEMArekin azken txostenaren arabera, bat hutsik dago. Hutsik dagoen postuak hizkuntza eskakizuna du, baina jardunean ari den medikuak ez daki euskaraz. Bertzeak badaki euskaraz.
- **LARRIALDI ZERBITZUETAKO MEDIKUAK:** Hiru lanpostu daude. Ez dute hizkuntza eskakizunik baina bik euskaraz dakite.
- **PEDIATRIA ZERBITZUA:** Lanpostuak hizkuntza eskakizuna du baina hutsik dago. Gaur egun plaza erdia langile batek betetzen du eta erdalduna da. Erizaina, berriz, lanaldi erdian dabil eta euskalduna da.

### Bortzirriak

- **MEDIKUAK:** Arantzako eta Igantzako medikuak hizkuntza eskakizuna du eta euskalduna da. Etxalarren eta Beran dabilten bi medikuek ez dute hizkuntza eskakizunik, eta ez dira gai zerbitzu elebiduna emateko.
- **LARRIALDI ZERBITZUETAKO MEDIKUAK:** Hiru lanpostuak hutsik daude eta bik hizkuntza eskakizuna dute. UEMAK ez du horien hizkuntza gaitasunaren informaziorik lortu.
- **PEDIATRIA ZERBITZUA:** Pediatraren lanpostuak hizkuntza eskakizuna du, baina langileak ez daki euskaraz. Erizainaren kasuan, lanpostuak ez dauka eskakizunik, baina langileak badaki euskaraz. Eszedentzian dago, ordea, eta ordezkoak ez daki euskaraz. Urte luzez bigarren pediatra eskatzen aritu ondotik, azkenean zerbitzu hori osatu dute. Bigarren pediatraren lanpostua ez da azaltzen plantilla organikoan. Zerbitzua Bera eta Etxalarko haurrei ematen die, eta ez da gai zerbitzu elebiduna emateko; zerbitzu horretan pediatraren erizaina ere badago, baina ez daki euskaraz. Hortaz, egun Bortzirietan pediatrian dauden lau lanpostuak euskaraz ez dakiten langileek betetzen dituzte.




Datuak UEMArekin txostenetik ateratakoak dira. Malerreka eta Bertizarana ez dira ageri, ez daudelako UEMAn sartuak.

soak ematea garrantzitsua» iruditzen zaio: «paisaia linguistikoa, informazio-orriak, mamografiatarako hitzorduak, mamografiako txostenak, erradiografia zerbitzuko inkestak,

hitzorduak jartzeko SMS-mezuak, baja-agiriak...».

Eskaera horiek, ordea, osasungintzaz haratago egin nahi izan ditu: «orain osasungintza euskalduntzeaz ari gara, bai-

na administrazioan orokorrean bada zer hobetu». Eta UEMArekin «lehentasuna jende aitzineko lanpostuek izan behar lukete, herritarrekin harreman zuzena dutenak».



Gaur egun 40 egoiliar eta 23 langile ari dira Zahar Etxean.

## San Jose Zahar Etxe berriaren 25 urteak ospatu dituzte

Berako Abesbatzaren kantak, Bernardo Barredoren jotak eta Jon Zelaietaren aureskua izan zituzten ekainaren 29an

### TTIPI-TTAPA

Duela 25 urteko San Pedro Egunean estreinatuta zuten San Jose Zahar Etxearen egoitza berritua. Lehenbiziko egoitza 1883an ireki zuten. Aurten, ekainaren 25ean ospakizun-besta egin zuten. 25 urteotan laguntzen ibili diren guztiei esker ona eman zien Leire Ardanzak: suziria, ongietorria, meza, Berako Abesbatzaren kantak, Bernardo Barredoren jotak eta, duela 25 urte bezala, Jon Zelaietaren aureskua. TTIPI-TTAPAREN 185. zenbakian Manuel Iriarte orduko alkateak

zioenez, «etxea egitea 210 milioi pezeta kostatzen da eta mogleak ordaintzeko bertze 30 milioi pezeta», 1,5 milioi euro inguru, gaur egungo balioetara ekarri gero.

Orduko kronikaren arabera, bakarkako hogeitaz logela, hamar logela bikoitz eta mojudako bertze zazpi egin zituzten, baina inauguratu zenean, 28 egoiliar ziren «bizitzeko izena emandakoak eta dagoeneko etxe berrian daudenak». Gaur egun 40 egoiliar bizi dira zahar etxean eta 23 langile inguru ari dira lanean.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Babes ofizialeko etxeak Kaxernagainan

Agudo alokairuan jarriko dituzten babes ofizialeko zortzi etxebizitza eraikitzen hasiak dira Kaxernagaina-Suspel Ttikin. Hamabi hilabetez egingen dituzten obrak eta bukatutakoan, Nasuvinsak kudeatzen duen Nafarroako Gobernuaren etxebizitza-errolan izena emana dutenei esleituko dizkiete.

## Eztegarako frontoiaren erabilera desegokia salatu du Udalak

Pandemia dela eta, itxita mantendu dute Eztegarako pilotalekua hainbat hilabetez jendearentzat, Covid protokoloak betetzen zituzten ekitaldi batzuetan izan ezik. Duela aste batzuk berriz ere ireki zuten frontoia eta horrekin batera «arazoak heldu dira».

Garbitzaileak behin eta berriz kexatu direla jakinarazi du udalak, eta salatu dutenez, «zaborra nonahi zabaldua aurkitzen dute eta komunean paperontziak desagertu dira». Gainera, frontoi barrenean eta kantxan jendea bizikleta-

rekin ibiltzen dela jakinarazi dute, «lohia eta zikina edonon zabalduz» eta hau pilotan aritu behar dutenentzako kaltegarria dela adierazi dute «kantxa zikina egoten delako eta zolan kaltea eragiten duelako».

Jarrera horiek gaitzetsi nahi izan ditu udalak, «Eztegarako frontoia kirol instalazio publikoa den aldetik, denoi dagokigun erabilera egokia egin eta zaintzea, espazio publikoak denonak direlako. Modu honetan herritar guztiek izan dugu frontoi eder honetaz gozatzeko aukera».

**MARTIX**

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK

- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

Legia, 23 - BERA

## Alberto RETEGI

abokatua

abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

### ERAKUSKETA

TALLER MUSEOA

# ArMi

JOKIN ARMAN  
Margolaria / Eskultorea

TRINI MIQUELARENA  
Margolaria / Marrazkilaria

SUSPELA auzoa, 1A

## BERA

ORDUTEGIA

10:30-13:30

16:00-19:30

Tel.: 670 260 424 - 677 471 966

# Ixtegi berriak paratu ditu udalak erretako eremuetan

Hainbat azpiegituren artean, Leandroren kantina zegoen ingurukoa eta Alkozpeko lepokoa kaltetuak izan ziren

## TTIPI-TTAPA

Otsailaren 20ko sute handiaren ondotik, jendeak eskatuta, kontu korronte bat ireki zuen udalak herritarrek kalteei aurre egiten ekonomikoki lagun zezaten. 1.010 euro bildu dituzte guztira eta udalak zinez eskertu ditu egindako ekarpen guztiak.

Sutearen ondorioz, bertze azpiegitura batzuen arteanazienda biltzeko bi ixtegi erre ziren, Leandroren kantina zegoen tokian eta Alkozpeko lepoan. Dirua ixtegi horiek probisionalki konpontzeko erabiliko dutela jakinarazi du. Berriak eraiki bitartean, burdinezko hamar ataka erosiko dituzte behin-behineko ixtegia egiteko. Ondorengo egunetan esleituko dituzte lanak.

Azienda biltzeko ixtegiak konpontzeko eta ur baltsa



Leandroren kantinako ixtegi errea.

berria egiteko 48.194,30 euro erabiliko ditu guztira udalak. Diru kopuru hori Nafarroako Gobernuak itzultzea espero du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak hitz eman bezala. Lanak irailaren erdialdean bukatuko dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Uda Bizia musika eta dantzarekin abian

Uda Bizia egitaraua ekainaren 26an abiatu zen kultur etxean, Alos Quartet taldearen musikarekin eta Amaia Elizaranen dantzekin (argazkian). Uztailaren 3an, azken orduan, Lukiek taldeak Joseba B Lenoir Gang ordezkatu zuen Altzateko Plazan eta hilaren 9an Sara Zozaya aritzekoa zen.



Hilabeteko hausnarketaren ondotik, berriz ere asteazkeneko biltzen hasiak dira.

## Osasun etxe aitzineko elkarretaratzeekin hasiak dira berriz ere

### TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 19an egin zuten azken elkarretaratzea bortz hilabeteren ondotik. «Hausnarketa ueña» hasi zuten, Osasunbideak eskatutakoa betetzen zuen ikusteko. Hala ere, hobekuntzarik lortu ez dutela ikusita, elkarretaratzeak berrartzea erabaki dute.

Ekainaren 30ean elkartu ziren berriz ere hilabete bateko geldialdiaren ondotik, osasun zerbitzuaren baldintza kaskarrak salatuz. Lesakan «hurrengo urteetan lau langile erretiratuko dira eta lanbaldintzak direla eta, ez da ordezkorik sartuko, pediatrik gabe gelditzen ari gara».

**Giltzak eta aginteak**  
**AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

**IBARGOYEN**  
 SUMINISTROS CARROCEROS

**www.ibargoyen.net**    **943 616 587**  
**Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN**



Sorginxulo kultur bilguneke eta udal ordezkariak zikloaren aurkezpenean.

## Udako II. Kultur Ziklo zabala prestatu du Sorginxulo bilguneak

Asteburu honetan hasi eta irailera bitarte, hemezortzi kultur emanaldi antolatu dituzte, publiko anitzari zuzenduak

### AITOR AROTZENA

Udalaren laguntzaz Udako Zikloaren II. edizioa aurkeztu du Sorginxulo kultur bilguneak, «garai hauetan hain beharrezkoak ditugun sormenean eta bizipozean oinarritutako eskaintza anitzarekin». Adin guzietako jendeari bideratutako ekitaldiak izanen dira; musika, antzerkia, dantza, bertsoa, ipuina, jolasa... Emanaldi guztiak doakoak izanen dira, bete arte. Antolakuntza sare bat eratzen ari da Sorginxulo herritarrekin emanaldi guztien segurtasuna bermatzeko. Elkartek herritarren parte-hartzea eskertu nahi izan du; «beraiek gabe ezinezkoa litzateke hain agenda bete aitzinera eramatea».

### Egitaraua

**Uztailaren 16an**, ortziralean, 19:00etan, MICE taldeak kontzertua eskainiko du Plaza Zaharrean.

**Uztailaren 18an**, igandean, 19:00etan, bertso saioa izanen da plazan: Josu Sanjurjo, Ekhiñe Zapiain, Aitor Mendilze, Ane Labaka eta Sustrai Colina ariko dira kantari.

**Uztailaren 25ean**, Muxikoak Jaiki Hadi taldearekin, 18:00etan Eltzetan.

**Uztailaren 29an**, Xabi Solano eta Zigor DZ kontzertuan, 19:30ean, Irubideko atarian.

**Uztailaren 30ean**, sormen ginkana 18:00etan Biurranan.

**Uztailaren 31n**, dantza entsegu irekia Led Silhouette taldearekin, 19:30ean Harriondo Kultur Etxeko atarian.

**Abuztuaren 1ean**, Txamukos Mariatxiak, 12:30ean Onin erreka inguruan.

**Abuztuaren 6an**, Tempora taldearen kontzertua, 20:00etan Plaza Zaharrean.

**Abuztuaren 8an**, *Yijaa* antzerki familiarra, 19:00etan Iturbenako plazan.

**Abuztuaren 19an**, Olaia Intziarteren kontzertua, 21:00etan Bixkantxeneko plazan.

**Abuztuaren 22an** Iñaki Dieguez eta Xabier Leturiaren *Beti bizi erromeria*, 19:30ean Ziobi atarian.

**Abuztuaren 27an** Maialen Lujanbio eta Amets Arzallusen bertso saioa, 19:30ean zubi konkordunean.

**Abuztuaren 29an**, Hurih kontzertuan, 19:30ean Alkaia gan.



BETI GAZTE

## Elias Garralda margo lehiaketan sarituak

Elias Garralda VIII. Margo Azkarreko Lehiaketan Javier Espigares donostiarrak lortu zuen lehen postua, Castro Urdialeseko Alipio Ruanok bigarrena eta Jaxinto Otxotekok lesakar onenarena. Ttikietan Maddalen Vambogelen, Ioritz Iriarte eta Cristina Sandra Gaston saritu zituzten.



BETI GAZTE

## V. Argazki Rallyko sariak eman dituzte

Beti Gazteren V. Argazki Rallyko bilduma onena Txomin Ribera egindakoa izan da, baita *Islada* gaiaren argazki onena ere. *Erroak* eta *Arkuak* gaien argazki onenak Arantza Rodriguezenak izan dira eta *Zerura begira* gaikoa Jose Antonio Barrose-na. Bortzirietako bilduma onena Fred Ramos Lasagarena da.

Denok Bat  
Hemen erabili  
kattagorria  
LESAKA  
948 627 514  
www.kattagorria.com

Astelehenetik ortziralerara:  
07:15etik aitzinera  
Larunbata eta igandea:  
08:00etatik aitzinera  
948 631 076 • BERA

F. LANCHAS  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailera jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

## «Kuadrilla arteko apustua espero nuen baina gehiago izan da»

MIKEL LEIZA IGARZABAL LESAKAKO GAZTEA

Lagun arteko hirugarren apustua jokatu zuen joan den ekainaren 19an Mikel Leiza Igarzabalek. Orain, garaipenaz gozatu eta «uda lasai hartu» nahi badu ere, ondotik bertzeren bat etorriko denik ez du baztertu

### TTIPI-TTAPA

«Zaletasun gehiegi eta denbora gutti» du Mikel Leiza Igarzabalek (Lesaka, 1995). Txandaka, goizez aste batean eta arratsalde hurrengoan, aritzen da lanean eta tarte libreak «motoan ibiltzeko, lagunekin egoteko, argazkiak ateratzeko, dronearekin grabatzeko...» aprobetxatzen ditu. Azken boladan entrenamenduak izan ditu lehentasun, ekainaren 19ko apustura begira egon baita. Egun horretan, Iker Iriartek botatako erronka onartuta, Lesakako plazatik Igantziko bentetara joan-etorria lasterka egin (13 km) eta plazan 20 kiloko karga hartuta Agiñako kaskora goitu zen bikotea. Leizak bi ordu eta sei minutu behar izan zituen eta zortzi minutu gehiago Iriartek. Ikusmira handia eragin zuten apusturako egindako prestaketaz, egun handiaz eta etorkizuneko asmoez aritu da Leiza TTIPI-TTAPAREkin.

**San Anton Egunean onartu zenuen erronka. Kontatu nola sortu zen apustua...**

Urtero bezala San Anton Eguna joan ginen egun-pasa. Hainbat kuadrilletako gazteak elkartu ginen eta gero sagardotegian bazkaldu genuen. Trago batzuk gainean genituela, Ikerrek bota zidan erronka. Ordurako bolada bat zerraman apustua egin nahi zuela erranez eta onartu egin nuen.



Eskuinetik hasita bigarrena Leiza, helmugan.

### Ez zen erronka makala...

Aitzinetik, orain lau urte, antzeko apustu bat egin nuen Jon Erroren kontra. Orduko hartan Agiña kaskoan bukatu beharrean Banartan bukatu genuen, Bordatxo baserriaren ondoan. Hori baino handixea goa egin nahian, ibilbide hori bera luzatu genuen. Hura irabazi nuen, erronka bota zidan, hori gainditzeko edo.

**«EGIA ERRAN USTE BAINO HOBEBI IKUSI NUEN NEURE BURUA»**

### Noiz hasi zinen entrenatzen eta astean zenbatetan entrenatzen zenuen?

Apustua adostu bezala gimnasia joaten hasi nintzen, baina serio martxotik aitzinera. Ordutik lasterka entrenatzen hasi nintzen. Astean hiruzpatalu entrenamendu egiten nituen. Asteburuetan ez baina astegunez horri eusten saiatu naiz.

**«AZKEN APUSTUAZ GEROZTIK BERTZE ERRONKAREN BAT AILEGATU ZAIT»**

### Gogorra izan al da prestaketa?

Bai, hasieran nahiko lasai hartu nuen, garrantzi handiegirik eman gabe. Baina data hurbildu ahala geroz eta serioago hartu nuen. Azken asteburuetan besta egiteagatik gaizki sentitzen nintzen, nire alde apustu egin zutenengatik... eta banuen ailegatu eta egiteko gogo.

### Apustuaren eguna nola bizi izan zenuen?

07:00etan urduri ernatu nintzen, dutxa bat hartu nuen baina horrek ez ninduen lasaitu. Lasterketa hasi ondotik hasi nintzen lasaitzen eta egunaz gozaten. Jende aunitz etorri zen, mugimendu handia sortu zuen. Zahar eta gazte goiti-beheiti ibili ziren animatzen. Hagitz polita izan zen.

### Lorik egin zenuen?

Gauean lo egin nuen bai. Eskerrak lanetik nekatuta ailegatu nintzen... Ez pentsa, banuen beldurra!

### Hasiera-hasieratik aitzin hartuta ibili zinen...

Hasieratik estutzen hasi nintzen, distantzia hartzeko aprobetxatu nuen eta gero hori kontrolatuz egin nuen aitzinera. Nire sentsazioaren arabera gehiago edo guttiago eman nuen.

### Zubiraino elkarrekin joan zineten.

Berez nire asmoa berarekin joatea zen, nahiko parekatua izanen zela espero nuen eta. Nire helburua batera segitzea zen eta, sentsazioen arabera, gehiago ematea. Urduritasunagatik-edo agudo abiatu nintzen eta nire gorputza erritmo hori mantentzera behartu nuen. Argi nuen geldituz gero Ikerrek borrokatzen ahal zuela eta, beraz, distantzia hartzen hasi nintzen.

### Nola ikusi zenuen zeure burua?

Uste nuena baino hobeki. Asatelehen horretan eskuineko hankan gainkarga izan nuen eta amari deitu behar izan nion trenbidera joateko ezin nuelako bukatu. Egia erran beldurra nuen. Lasterketa egunean, egin nituen prestakuntzekin, ongi eramaten





Apustuaren ondotik sagardotegian bazkaldu zuen lagun taldea.

saiatu nintzen eta sentsazio ona izan nuen, bai lasterka baita kargarekin ere.

#### **Eta Iker?**

Hasieran beldurra eman zidan, nire erritmoa mantentzen zuela ikusi nuen, gogor ikusi nuen... Nik, egia erran, neure buruarekin ere sorpresa eraman nuen, erritmo horretan segitzen banuen leher egingen nuela uste nuen.

#### **Momenturen batean aldea tiki-titzen eta hurbiltzen hasi zitzaizun...**

Plazatik abiatu ginenean nik lasaiago hartu nuen. Lehenbiziko maldara arteko puska lasterka egin nuen baina ondotik heldu zena buruan izan nuen... Ikerrekerritmo handian segitu zuen eta hor minutu bat guttitu zuen bion arteko aldea.

**Probaren bigarren zatia bereziki gogorra izanen zen... Zein momentu izan zen zailena zuretzat?** Sagardotegiko malda hagitz luzea da eta hogeiki kilo gainean izanik hankek sumatzen dute. Nik uste horixe izan zela gogorrena.

#### **Ibilbide hori bera aunitzetan egin duzu?**

Ez, egia erran ez. Entrenamendu guztiak lasterka edo kargarekin egin ditut, biak bate-

ra ez. Kargarekin behin egin nuen, lagun batekin. Agiñara ailegatzeko gai nintzela ikusi nuen eta hortik aitzinera lasterka eta muskulua lantzen aritu naiz.

#### **Zer nolako giroa izan zenuten apustuan?**

Kuadrilla arteko kontua izatea espero nuen baina hori baino gehiago izan zen, sorpresa handia hartu nuen. Zahar, gazte... euren kotxeekin eta bizikletekin bueltaka ikustea ez nuen espero. Hori hagitz polita izan zen... Agiñan ere mendi guztia jendez betea ikustea zoragarria izan zen.

#### **Nola bizi izan zenuen helmugako momentua?**

Lehiakide bakoitzak lagun-tzaile bat izan zuen, ni Jabier Maiarekin eta Iker Aimar Otxotekorekin aritu zen. Helmugara ailegatzen ari nintzela, aitzin hartu eta han egotea nahi nuela erran nion eta besarkada batekin ospatu genuen. Momentu ederra izan zen, jendea txaloka...

#### **Halako aldearekin irabaztea espero zenuen?**

Egia erran ez. Parekatuagoa, borrokatuagoa, izanen zela espero nuen. Seinale ona izan da, gauzak ongi egin ditudala adierazten du.

#### **Sariren bat izan zen tartean, sorpresa eta guzti.**

Helmugara ailegatu ginenean erronka hasi aitzinetik atera genuen argazkia oparitu zigiten parte-hartzaile eta lagun-tzaileei, baita xanpain botila bana ere. Horrez gain, irabazlearentzat birziklatutako kopa bat prestatu zuten eta 'Aker apustuko txapelduna' paratu zioten boligrafoz. Horrek bereziki ilusio handia egin zidan, eta ongi gordea dut.

#### **Apustua bukatu zen baina giroak segitu zuen...**

Bazkaltzeko izena emana genuen 40 lagunak poteoan bildu ginen. Sagardotegian bazkaldu eta 21:00 arte hortxe izan ginen. Gero, herrian afaldu genuen.

#### **Zer-nolako giroa izan zenuten mahai inguruan?**

Bozgorailu tiki bat eraman genuen eta giro polita izan zen. Bazkaria irekia zen, Irungo eta inguruko batzuk etorri ziren, kuadrilla batzuetako jendea elkartu ginen eta giro ederra izan genuen.

#### **Aitzinetik ere apusturen bat jokatua zinela aipatu diguzu... Orduko oroitzapena ere horrelakoa duzu?**

Ordukoa kuadrilla artekoa izan zen. Ttikia eta hurbilekoa,

ez zuen horrelako sonarik izan. Kasu honetan, jende aunitzek apustuak egin dituelako edo, gehiago zabaldu da.

#### **Bigarrenez txapeldun izan zara... Noizbait hirugarren bat egiteko gogoz gelditu zara?**

Bi aldiz irabazi dut baina hiru apustu jokatu ditut guztira. Lehenbiziko apustua galdu egin nuen, lo hartu eta ez nintzelako agertu. Joel Orozoren kontra nuen, zortzi kilometro lasterka. Kuadrilla guztia agertu zen eta denak nire esperoan egon ziren... (irri artean).

#### **Ea berriz ere erronka botatzen dizun...**

Hemendik luzatzen diot (irri artean). Egunean bertan bakarren batek bota zidan, baina badakizu, trago batzuk eginda... Beratik ere ailegatu zait proposamena baina orain uda lasai hartu nahi dut eta gero geroakoak.

#### **Bertzerik gehitu nahi duzu?**

Hemendik eskerrak eman nahiko nizkieke apustura agertu ziren guztiei eta, batez ere, nire alde apustu egin zutenei. Horiek izan dira egun polit hori posible egin dutenak eta entrenamenduetarako motibazio.



Iriondoa etxeko garajejan prestatu dute kontrabandoa eta usategiak gaitzat daukan jarduera. ETXALAR SCAPE ROOM

## Etxalar Scape Room areto berriak atekak zabaldu ditu

Bi eta sei lagun arteko taldeak joan daitezke Iriondoko garajera herria ezagun egin duten gaien inguruan jostatzera

### IRUNE ELIZAGOIEN

Uztailaren 2az geroztik Escape Room jokoaz gozatzeko aukera dago Etxalarren. Herria

bera ezagun egin duten kontrabandoa eta usategien gaia hartuz nagusiki, ihes gela prestatu dute Iriondoa etxe-

ko garajejan. Hurbiltzen den taldeak 60 minutu izanen ditu bertan dauden pistak jarraituz gelatik ateratzeko, iragan hurbileko historia ezagutzeko aukera izanik, bidenabarkoan. Bien bitartean, teknologia berriak eta ez hain berriak erabiltzeko modua izanen dute. Pertsona guztientzat pentsatutako jarduera da, baita gurpildun aukietan mugitu behar dutenentzat ere.

Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: [www.etxalarescaperoom.com](http://www.etxalarescaperoom.com)

### Kontrabandoaren inguruko gaueko bisita gidatuak

Bertze urte batez jarraian gaueko kontrabandisten ibilaldiak gidatuko ditu Xanti Elizagoien kontrabandista ohiak. Ibilaldiak uztaileko eta abuztuko larunbat gauetan egingen dituzte, 21:00etan Etxalarko plazatik abiatuta. Hiru ordu inguruko iraupena izanen dute (zortzi kilometro mendian) eta gutxienez lau laguneko taldea beharko da ateraldia egiteko eta pertsonako zortzi euro ordaindu behar dira. Erreserbak egiteko, 24 ordu lehenagotik deitu behar da horretarako egokitutako telefonoetara.

### Turismo bulegoa zabalik uztailean eta abuztuan

Uztailaren 1ean ireki zen turismo bulegoa eta zabalik egonen da abuztuaren 31 arte. Honako ordutegia izanen du: Asteartetik ortziralerara 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Asteburuetan, berriz, 10:30etik 13:30era irekiko dute eta astelehenetan itxita egonen da. Bisita gidatuak egiteko aukera ere eskaintzen ari dira; aste barrenean 19:00etan eta asteburuetan 13:00etan.

## Nafarroako txinga-eramate txapelketa eta 3. mailako aizkora kanporaketa

### IRUNE ELIZAGOIEN

Nafarroako Hirugarren Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa eta Nafarroako Txinga Txapelketa jokatu dituzte uztailaren 18an, igande eguerdiko hamabietan plazan, Nafarroako Herri Kirol Federazioak eta udalak elkarlanean antolatuta.

Aizkoran, Beintza-Labaiengo Jacinto Etxekonanea eta Berako Endika Goia izanen dira eskualdeko ordezkariak. Beraiekin batera, Iker Gorriti (Uharteko Arakil), Iosu Santamaria (Iturgoien), Aritz Oiar-

bide (Etxarri Arantx), Ioan Goikoetxea (Etxarri Arantx) eta Victor Suarez (Navacerrada-Madril) ariko dira, bina kanaerdiko mozten. Bortz lehenbizikoek irailaren 11n Beran jokatu den finalean izanen dira.

Txingetan, gizona eta emakumezkoetan, Jesus Goñi lekaroztarra izanen da eskualdeko ordezkari bakarra eta emakumezkoetan, aldiz, txapela jokoan izanen duten hiru kirolariak: Xanta Sousa lesakarra, Sela Goñi lekaroztarra eta Esti Gastearena sunbildarra.

**USOA**  
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214 M. 605 631 244  
**ETXALAR**

**Baztango**  
higiezin agentzia

San Esteban 11 behea BERA (31780) Nafarroa

620 028 625  
[www.baztango.com](http://www.baztango.com)

Askatasunaren Hirib. 17-2\* DONOSTIA (02004) Gipuzkoa



Buruilaren 5era arte zabalik izanen dira igerilekuak.

## Berriz ere zabalik dira herriko igerilekuak

Uztailaren 3an ireki zituzten eta buruilaren 5a arte egonen dira zabalik, Igantzi eta Arantzako boluntarioen laguntzarekin

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Bi urteren ondotik ireki dira herriko piszinak. Udalak honen kudeaketa eramateko helarazitako lehenbiziko deialdian inor aurkeztu ez zela eta Igantzi eta Arantzako boluntario talde baten laguntzarekin ireki dituzte atek.

Ostaturik ez da izanen aurtengoan eta ordutegi aldetik ere mugatua egonen da. Uztailaren 3an ireki zituzten atek eta buruilaren 5ean itxiko dituzte. 15:00etatik 20:00etara zabalik daude.

Urtero bezala, bonoak udaltxean hartu beharko dira.

### Udaberriko Bestak arrakastatsuak

Aspaldixko pasatuak baldin badira ere, ezin aipatu gabe utzi Udaberriko Bestek izan zuten arrakasta. Jende andana ibili zen herriko hainbat elkarte antolatutako ekitaldi batean zein bertzean. Guraso Elkartetik aipatu digutenez, «eskerrak aunitz herritar orori merkatuan izandako parte-hartzearengatik». Asteburuz asteburu egindako ekitaldiak *Bideak* dokumentalarekin eta Aritz Ganboa artzainaren solasekin borobildu zituzten.



OSKAR TXOPERENA

### Elizateko moldatze lanen esleipena

Aspaldi ikusia genuen Herriko Etxe zaharra, Elizatea, hustutzen ari zirela. Udalak adierazi duenez, birgaiketa lanen esleipen prozedura bukatu da eta Cobosa (Construcciones Boreste S.A.) enpresak laister hasiko ditu obrak. Guttienez hamabi hilabetez lanean ariko direla aurreikusi dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Hamabortz haur udalekuetan hasiak

Urtero bezala aurten ere Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udaleku irekiak antolatu ditu. Hamabortz bat haurrek eman dute izena herrian eta Ninbe Urtxegi Urria eta Eider Urrutia ari dira begirale lanetan. Goizetan 10:00etatik 13:00etara eskolan elkartzen dira egunero.



EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika · BERA  
zubiondojatetxea.com



**BERRI S.L.**

**TXIMISTINDAR**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK



Zelain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65



**ZUMARBEL**  
creaciones metálicas  
Igantzi (Navarra)  
948 63 74 11





**Lehen A.T.M. S.A**  
Berrizaun 25,  
31790 IGANTZI  
T. 948 63 74 11  
@zumarbel@hotmail.com  
www.zumarbel.es



## Uztaileko larunbat guztietan auzolana deitu du udalak

Herri ingurua txukundu eta eskolan pintatze lanak egin nahi ditu udalak

### NEREA ALZURI

Eskolako gelak pintatu, herri ingurua txukundu eta bertzelako pintatze lanak egin... Horiek dira uztailean udalak auzolanean egin nahi dituenak. Hori horrela, hilabete honetako larunbat guztietan auzolanerako deialdia egin du.

Interesa dutenek bezperarako, ortzirale eguerdirako, eman beharko du izena, herriko etxera deituta.

Bide batez, 18 eta 55 urte bitarteko herritar guztiek auzolana egin behar dutela oroitarazi du udalak. Urtean bortz orduko bi saio egin behar dira.



Ixabel Danboriena omenaldi egunean familiakoekin.

## Merezitako omenaldi goxoa egin diote Ixabel Danborienari

### N. ALZURI

38 urtez herriko haurren hezikuntzan eta heziketan lan ederra egin ondok, erretiroa hartu du Ixabel Danboriena irakasleak. Eta berari esker ona adierazteko, guraso elkar-teak merezitako omenaldia egin zion ekainaren 26an. Lankide, irakasle eta ikasleek

eskerrak emateaz gain, berekin izandako oroitzapen politak partekatu zituzten eta Beñat semeak bertsoak eskaini zizkion. Guraso elkar-tekoek ere oroigarria eman zioten. Ixabelekin pasatutako momentuak goxoki oroitzen ditugu bere ikasle izan ginenok. Eskerrak aunitz denagatik!



BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

## Goizak udalekuetan

Deseatzen zeuden herriko haur eta gaztetxoak udalekuen esperoan eta uztailean 5ean abiatu ziren. Harrera ezin hobea izan du aurtengo deialdiak ere herrian, adinaren arabera, taldeka banatuz 42 haur ari baitira goizetan udalekuetan parte hartzen. Hilabete osoan, hainbat jarduera egingen dituzte.



IBAN ZUGARRAMURDI

## Hasi da Aterpeko udako kontzertu sorta

Uztailean 3an Niko Etxartek eta Xabaltzek eman zuten saioarekin abiatu zen Aterpeko udako kontzertu zikloa. Geroztik Joseba Tapia aritzekoa zen eta larunbat honetan, hilaren 17an, Satelitik taldeak joko du. Uztailean 24an, Gregorio, Beñat eta Andoni Mitxelenarekin bazkaria eta kontzertua izanen dira.

**Aterpe**  
arropa-denda  
etxeko osagarriak | lentzeria  
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

**ORBELA**  
SENDERSMOA ATERPEZTEA  
BEINTZAKO OSTATUA  
Idoia · Mikel  
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN  
info@orbela-beintza.com  
www.orbela-beintza.com

**Ainhoa Alzuguren Mitxelena**  
Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Lan aferak  
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.  
BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

**Jauzena**  
Denda, 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean  
Erreformatik, etxe berriak  
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa  
eta etxeko konponketa  
Antenak, satellite bidezko instalazioak

## Igerilekuen eta pilotalekuaren erabileran aldaketak

Frontoian gehienez ere lau pertsonako taldetan sar daiteke eta aitzinetik erreserba egin beharko da

### MAIDER PETIRENA

Aitzineko zenbakian aipatu bezala, igerilekua uztailaren 1ean ireki zuten. Argazkietan ikus daitekeen bezala, aitzineko urteetatik aldaketa tiki batzuk izan dira pandemia dela eta.

Frontoiaren erabilerari dagokionez ere aldaketak izanen dira. Astelehenetik ortziralera 18:00etatik 22:00etara eta larunbat eta igandetan 09:00etatik 13:00etara irekita egonen da. Gehienez ere lau pertsonako taldetan erabili ahalko da eta erreserba [sunbillako-frontoia.com](http://sunbillako-frontoia.com) helbidean egin

behar da. Erreserbaren erantzunak astelehenetik ortziralera bulegoko ordutegian emanen dituzte. Arratsalde edo asteburuan, egunean bertan jolasteko egiten bada, ezin izanen da erantzunik eman.

### Eneit Bertiz Superprestigioan ere garaile

Ekainaren 27an Lizarran egin zen Superprestigio proba irabazi eta sailkapen orokorra ere irabazi du Eneit Bertizek. Berarekin batera, Oihan Apeztegia eta Koldo Herrera ere gozor aritu ziren.



Igerilekuetan zenbait aldaketa egin dituzte segurtasuna bermatzeko. UTZITAKOAK



ARTXIBOKOA

## Arrauna utzi du Iker Marizkurrenak

Hasi berria da arraun denboraldia eta ez dugu Iker Marizkurrena Imaz herriko arraunlari handia ikusterik izanen. Joan den urtekoarekin utzi zion Hondarribiko arraunlari izateari. Hiru urtez segidan Kontxako bandera herrira ekarri zuen, bere ibilbidea borobiltzeko.

**Eramateko janaria**  
astelehenetik ortziralera

*Zalain*  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. [www.zalain.info](http://www.zalain.info)

**eLi**  
Language school

Datorren ikasturtean martxan Donezteben

**HAU DA ZURE LEKUA...**

- Hizkuntza trebetasunak ingelesez landu
- Ingelesa ikasten ikasi
- Ingelesa zerotik hasi
- Ahantzitakoa berreskuratu
- Ingelesa jolastuz eta gozatuz ikasi

...NAHI BADUZU

T. 615 70 68 02  
[eliarrietaeskola@gmail.com](mailto:eliarrietaeskola@gmail.com)

## Kirola eta musika uztartuko ditu uztaileko agendak

Larunbat honetan Trikidantz taldeak kontzertua emanen du Santa Luzia plazan

### MARGA ERDOZAIN

Azkeneko hilabetetako ildoari jarraituz, uztailean hainbat hitzordu izanen dira.

Joan den asteburuan, adibidez, hainbat herri kirol txapelketa jokatzekoak ziren Ezkurra pilotalekuan eta larunbat honetan, uztailearen 17an, Santa Luzia plazan Trikidantz taldearen emanaldia izanen da, 19:00etan.

Uztailearen 30ean eta 31n, berriz, erremontez gozatzeko aukera izanen da Ezkurra pilotalekuan, Nafarroako Erremonte Txapelketako partidak

jokatuko baitira. Horrez gain, uztailearen 31n, Intzakardi parkean disc golf txapelketa bat antolatu udalak, herritarren artean kirola ezagutarazteko asmoz.

Bertzetik, laxoaren txapelketarekin ere aitzinera segitzen dute. Txapelketa nagusiaz gain, Baztan-Errekako gaztetxoan laxoa txapelketa ere abiatu da. Bortz talde ari dira lehian eta horietatik hiru talde bertakoak dira. Ligaxkan, zazpi jokotara lehiatuko dute eta abuztuaren 6an, Arraiozen, finala bederatzitik jokotara egingen dute.

## Azken lau asteburuetan ez bestek utzi duten ondorioa

### M. ERDOZAIN

Ez bestekutzitako sentimenduen laburpena egitea zaila da. Tristura, amorrua, haserrea... eta gehiagok osatuko lukete zerrenda. Norberak ondorioak atera ditu, aunitzek galderak ditugu, nahiz eta erantzun erraza ez izan. Erantzukizunaz ere haus-

nartu eta solas egiten dugu, batzuetan norberak hartu beharreko ardura bertzeen gain utzita. Zikinkeriez betetako edukiontziak, puskatutako kristalak, zirrikak... hori guztia utzi digute azken lau asteburuetan. Luze idazten ahal da... Baina horrela ez, denak ez du balio!



UTZITAKOA

## Dantzarien saio gustagarria

Erreka Dantza Taldeko dantzariak uztailearen 3an plazara bueltatu ziren. Itzuleraren seinale gisa, eguraldia lagun, Bear Zana pilotalekuan emanaldi ederra eman zuten. Ikusle aunitz bildu zen eta bertaratu zen orok saioaz gozatzeko aukera izan zuten.



UTZITAKOA

## Bertze gerriko beltz bat Errekarentzat

2003az geroztik gerriko beltzik ez zuten eskuratua Errekako judo taldeak. Aldi honetan, Aritz Zulaika Irigoienek, urte aunitz entrenatzen aritu ondotik, lortu du berea 18 urterekin. Horrez gain, Noelia Ariztiak defentsa pertsonaleko lehenbiziko Dana lortu du. Zorionak klubari!

**Lizun**  
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

**BORDALARRIA**

**Carnes Sein Haragiak, S.L.**  
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

**BIDASOA**  
ascensores

IGOGAILUEN SEKTOREAN ENPRESA LIDERRA GARA

**IRUN:** Primautzar 19 - T. 943 05 90 53  
**ERRENTERIA:** José María Usandizaga 8 - T. 943 96 93 49



**M<sup>a</sup> Carmen Larrainzar**  
GERENTEA

**Sara Apezteguía**  
BARNE-DISEINATZAILEA

**Anabel Oteiza**  
DENDAKO ARDURADUNA

ateratzea. Horrez gain, inguruko profesional askorengandik, senideengandik eta ezagunengandik jaso dugun laguntza ezinbestekoa izan da», azaldu du Mari Carmen Larrainzar Cosas de Casako gerenteak, Santesteban Interiorismo.

Proiektu berri honen helburua bezeroen familientzako zerbitzua hobetzea da: «20 urte baino gehiagoren ondotik, aldaketa eta espazio handiagoa behar genuen zerbitzuak bateratzeko, altzariari eta atsedinari eskaintako atalak handitzeko eta bezeroei aparkaleku bat errazteko, besteak beste. Gure bezeroentzat pentsatutako proiektua da», erran du Mari Carmenek.

Denda berria eta izen berria izateaz gain, zerbitzu eta produktuen eskaintza ere zabaltzen du. Zerbitzuak, 3Dko aurrekontuak eta proiektuak sortzea, landetxeei eta apartamentu turistikoari zerbitzu berezia ematea, interiorismo pertsonalizatuko aholkularitza eskaintzea eta koltxoak eta altzariak etxez etxe banatu eta muntatzea izan dira. Hemendik aitzinera, Cosas de Casa, Santesteban Interiorismok, interiorismo integralerako zerbitzua ere hartuko du.

Nabe horri esker, enpresak produktu eta artikulu gehiago eskainiko ditu; altzarien (logela eta gazte-gelak, altzari osagarriak eta sofak), atsedenen (koltxoak, somierrak, kanapeak eta burkoak), argiztapenaren, dekorazioaren, lurrinen eta opari pertsonalen ataletan.

Uztailaren 8an marka berria aurkeztu ondoren, datorren uztailaren 23an, ostirala, hasiko du Cosas de Casa, Santesteban Interiorismok bere etapa berria, goizeko 11etan inaugurazio ekitaldi bat egin ondoren. Bertara lagunak, ezagunak, bezeroak eta establezimendu berria ezagutu nahi duten guztiak gonbidatuta daude. Irekiera egunean, bisitariak aperitiboak, sorpresak, opari-txartelen zozketak eta egindako erosketak bakoitzeko opari bana izango dituzte.

Bezeroekin elkar-banatu nahi dugu gure ametsa, horregatik, gurera hurbildu eta gure proiektua ezagutzera gonbidatzen zaituztegu.

## Cosas De Casa enpresak 600 m<sup>2</sup>-ko nabe berri bat zabalduko du Donezteben

**C**osas de Casak, altzari, atsedena eta dekorazio munduan espezializatutako enpresak, datorren uztailaren 23an denda berriko atea irekiko ditu, kokapen berri batean eta izen berri batekin; Cosas de Casa, Santesteban Interiorismo.

Establezimendu berriak 600 m<sup>2</sup> eta bi solairu ditu, eta Aparan industrialdearen sarreran dago, Donezteben (Mourgues etorbidea, 22). Proiektua Landa Garapenerako 2014-2020 Programaren bitartez (LGP 2014-2020) kofinantzatuta dago. Santesteban Interiorismo enpresaren sorrera Landa Garapenerako 2014-2020 Programak (LGP 2014-2020) kofinantzatu du, FEADER funtsen eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaren bidez. Europak landa-eremuetan inbertitzen du.

«Betetako ametsa da. Bi urte baino gehiago iraun duen lana eta proiektua geldiarazi zuen pandemia bat eduki ditugu tartean, baina denon artean ilusio handiz lortu dugu proiektu hau aurrera



**Mourges, 22 - Aparan ind. 1. nabea | 31740 DONEZTEBE | T. 948 45 04 09**  
**info@santestebaninteriorismo.es | www.santestebaninteriorismo.es**



Plazaz plaza txapelketako parte-hartzaile batzuk. UTZITAKOIA

## Pilota partidak eta kontzertua uztailaren 31n

Plazaz plaza txapelketako finalurrekoak eta Trikidantz taldearen emanaldia izanen dituzte uztailean

### N. REKARTE

Herriko bestarik eta ohiko ospakizunik ez dagoen arren, udalak antolaturiko hitzorduei esker, mugimendua sumatuko da udan honetan ere herrian. Uztailearen 31rako, hondarreko larunbaterako, bi hitzordu prestatu dituzte.

### Esku pilota finalurrekoak

Batetik, 16:00etan hasita maiatzean sortu zen Ados pilota klubak antolatu duen Plazaz plaza txapelketako finalurrekoak jokatu dituzte. Plaza pilotari profesionalak eta pilotazaleek

hartuko dute eta txapelketa Leitzaan akituko da abuztuaren 14an jokatu den final handiarekin.

### Trikidantz taldea

Egun berean, ilunabarrean, Trikidantz taldearen doinu alaiek girotuko dute herria. 19:00etan hasiko da kontzertua eta 20:30era arte luzatuko da.

### Abuztuan gehiago

Kultur hitzorduek abuztuan izanen dute segida. Eguna hurbildu ahala zehaztuko dira ekitaldiak.



UTZITAKOIA

## Ludoteka martxan

Uztaileko goizetan, astelehenetik ostiralera, Malen Etxekolonea eta Lorea Mayarekin ludotekan biltzen ari dira herriko gaztetxoak. Eskulanak egiten, naturaz gozaten edo jolasean pasatzen dute goiza, 09:30etik 13:00etara. Izena eman nahi dutenek eurei jakinarazten ahal diete.



UTZITAKOIA

## Bost herritarrek jaunartzea egin dute

Herriko bost gaztetxok, Maialen Hualdek, Ane Santestebanek, Eñaut Babazek, Janire Elizalde eta Aimar Elizalde, lehenbiziko jaunartzea egin dute aurten. Mezako buelta egin ondotik, familia eta lagunekin egun ederra pasatu zuten guztiek.



**inelsa**  
**ZENER**  
ascensores  
igogailuak

Igogailuen instalazioak.

Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

**T. 948 232 400**

**www.inelsazener.com**



**Bizikleten salmenta eta konponketa.**

 Kanttonberri, 1 | BERA

 T. 948 631 218

 joxemi@kateabike.com

 [www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)



















## 'Azken eguzkilorea' erakusketa ikusgai da Bertizen

Uztailaren 2an egin zuten Gua-Mia-Bu artistaren lanaren aurkezpena eta inaugurazio ekitaldian izan ziren Rebeca Esnaola kontseilaria eta Oberena dantza taldea



Uztailaren 2ko inaugurazio ekitaldian, artista eta kontseilaria. JUAN MARI ONDIKOL

### TTIPI-TTAPA

Gua-Mia-Bu artistaren *Azken Eguzkilorea* ipuinaren sormen prozesua erakusten duen esposizioa Bertizko lorategi botanikoan dago ikusgai uztailean eta abuztuan, Kultur'21 egitarauaren barrenean. Uztailaren 2an egin zuten inaugurazio ekitaldia Oberena dantza taldearen emanaldiarekin. Rebeca Esnaola, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kirol kontseilaria ere ekitaldian izan zen.

Kultur programaren 26. edizioa martxan jarri du aurten gobernuak. Ekainaren 18tik irailaren 4ra hainbat ekitaldi eginen dituzte Nafarroako 38 herri eta kokagunetan. Beran estreinatu zuten egitaraua Hogei Berriro taldeak emandako kontzertuarekin, eta Bertizen txanda da uztailean eta abuztuan.

### Ipuin ilustratua erakusketan

Ipuin ilustratua da *Azken eguzkilorea*, Malerrekako ondare-elementuak nabarmentzen dituena; mendia, lanbideak eta tradizioak. Ibilbide bat sortzen du, ikusleek Nafarroako iparraldeko herriez goza dezaten. Bederatzi zatitan banatuta dago ibilbidea, lorategi botaniko eta erakustaretotik barrena, ipuin ilustratuaren sormen prozesua eta margoak ikusgai dituena. Bisitariak sormen prozesuan parte har dezakete, «pertsonaiak sortzeko eta kolorea erabiltzeko asmoa ezagutu, baita janzkeraren eta haren inguruneen zergatia ere.»

<h2>DESKONTUAK MALERREKA TTIPI TXARTELA</h2> <p>Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!</p>		<p><b>%10</b> DESKONTUA eskeletan eta oroigarrietan</p> <p>Koskontako bidea, 7-1   LESAKA T. 948 63 54 58   bagoaz@ttipi.eus</p>	<p><b>%10</b> DESKONTUA produktuetan</p> <p>Intzarkardi, z/g   DONEZTEBE T. 948 45 03 64</p>
		<p><b>%10</b> DESKONTUA pijama eta barruko arropetan</p> <p>Zazpigurutze, 1   DONEZTEBE T. 948 45 02 52</p>	<p><b>%5</b> DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan</p> <p><b>%10</b> DESKONTUA 100€tik goitiko erosketetan Promozioetan ezik</p> <p>Nagusia, 4   DONEZTEBE T. 948 45 07 27</p>
<p><b>%5</b> DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan</p> <p>Kale Nagusia, 1   DONEZTEBE T. 948 45 15 71</p>	<p><b>%5</b> DESKONTUA kontsultetan</p> <p>T. 948 45 14 73   DONEZTEBE lorea@kimetzelardenda.com</p>	<p><b>%5</b> DESKONTUA kosmetikan 50€tik goiti</p> <p><b>%10</b> DESKONTUA 100€tik goitiko erosketetan Promozioetan ezik</p> <p>Amezitia   DONEZTEBE T. 948 45 01 63</p>	<p><b>%10</b> DESKONTUA 2. produktua erostean</p> <p>Eliza, 18 behea   DONEZTEBE T. 948 45 02 86</p>
<p><b>%5</b> DESKONTUA 60€tik goitiko elektrogailu txiketetan</p> <p>Amezitia, 1   DONEZTEBE T. 948 45 09 25</p>	<p><b>%5</b> DESKONTUA bortz saiko bonoan</p> <p>Elizagibela, 4 behea   DONEZTEBE T. 607 85 32 08</p>	<p><b>%10</b> DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan</p> <p>Parrokia, 11   DONEZTEBE T. 948 45 01 12</p>	<p><b>%5</b> DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta elikagai konplementuetan</p> <p>T. 948 45 14 73   DONEZTEBE info@kimetzelardenda.com</p>
<p><b>%5</b> DESKONTUA estetika naturala, mesoterapia birtuala eta diamantzeko pilinga</p> <p>Santa Luzia plaza, 2   DONEZTEBE T. 667 30 88 26</p>	<p><b>%5</b> DESKONTUA zakur eta kaluen pentsuan</p> <p>Mourges, 20 Nabe 1   DONEZTEBE T. 948 45 18 45</p>	<p><b>%100eko</b> DESKONTUA Bela-gelaren erabilieran *Eskatzaileak edo hildakoaren bigarren gradu arteko senitartekoek txartela fisikoki aurkeztu beharko dute.</p> <p>Amezitia, 13   DONEZTEBE T. 948 63 74 04   T. 948 19 70 70</p>	<p><b>%10</b> DESKONTUA oinetakoetan</p> <p>Parrokia, 17   DONEZTEBE T. 948 45 02 89</p>

## Bertso-bazkaria uztailaren 17an Iturenen

Igandean, udalak antolatuta, haurrentzako jokoak, bazkaria eta kontzertua izanen dute

### A. MINDEGIA

Aurten ere, herriko bestarik ez izatea erabaki du udalak. Udalak eta herriko gazteek, ordea, besten seinale gisa ekitaldiak antolatu dituzte.

Uztailaren 17an, heldu den larunbatean, *Auskalo zeinek jarriak* goiburupean, bertso-bazkaria izanen dute herriko ostatuan. Aitor Mendiluze, Eñaut Agirre eta Unai Agirrek girotuko dute mahai ingurua. Koronabirusak eragindako arauak betez eginen dute hitzordua eta joan nahi zutenek aitzinetik jakinarazia behar



zuten. Biharamunean, uztailaren 18an, haurrentzako jokoak eta ginkana izanen dute. Ondotik, bazkariaren bueltan bilduko dira eta ondotik ipuin-kontalaria izanen dute. Ez bestak borobiltzeko, arratsaldean Trikidantz taldeak girotuko du herria.

### Oihan aprobetxamenduen enkantea Iturenen

Iturengo Udalak egindako azken bilkuran Axurdia/Amurri/Txokoa eta Ameziako oihan aprobetxamenduak enkantean ateratzea erabaki du. Horrekin batera, enkantea Nafarroako Kontratazio Atarian eta Irargari Ohoan argitaratuko dute.

### Aurtizko ostataua errentan emateko deialdia egin dute

Iturengo Udalak Aurtizko ostataua, hostala eta jatetxea errentan emateko deialdia egin du. Errentamendua iraupena bostz urtekoa izanen da eta hilabeteko errenta 300 eurokoa. Eskerak aurkezteko epea uztailaren 19an akituko da.

### Sanjuanetan urteroko seinalea Aurtitzen eta Iturenen

Udari hasiera emateko gure herriko bazter aunitzetan bezala, Aurtitzen eta Iturenen ere piztu zituzten San Juan suak. Eguraldia lainotuta egon bazen ere eta iluntzean euria egin arren, suaren gainetik gustura aritu ziren saltoka herritarrek.

### Ogasun bulegoa uztailaren 20ra arte itxita

Hiru astez Doneztebeko ogasun bulegoaren zerbitzua eten dute eta hala segituko du uztailaren 20ra arte. Holako erabakia hartu duten bulego bakarra da, Nafarroako gainerakoak ez baitituzte itxi. Gogoratu behar da Gizarte Segurantzako bulegoak ere itxita segitzen duela.

## Kontsumitzailearen udal bulegoaren udako egunak

### M. ERDOZAIN

Malerrekako Mankomunitateak kontsumitzaileei begira ematen duen zerbitzuaren udako egutegia zein izanen den jakinarazi dute berriki. Horren arabera, uztailaren 23an, abuztuaren 20an eta irailaren 10ean eta 24an, or-

tziraletan, hurbilduko dira Malerrekako Mankomunitateak Donezteben duen egoitzara.

Erabili ahal izateko Malerrekako Mankomunitateko telefonora deitu behar da hitzordua hartzeko: 948 45 17 46.



UTZITAKOA

## Etxeberriak Ezkurra izan du aztergai

Ezkurra herriaren jatorriaz eta historiari, herriko jauntxoek, baselizaz, eskolaz eta eskola gaiez, udal pilotalekuaz, armarriez, suteez, udalaz, bertako bordez eta bertzelako hainbat bitxikeriaz hornitutako lana plazaratu du Fernando Etxeberriak *Ezkurra herri paregabea* goiburupean.



J. ARIZTEGI

## Jaunartzeak Urrozen

Iaz Urrozen jaunartzerik izan ez bazen ere, aurten Mikel Zozaia eta Iraia Juanenaren txanda izan da. Ospakizuna ekainaren 13an egitekoa zen arren, Covid-19ak sortutako arazo baten ondorioz, ekainaren 27ra gibelatu behar izan dute. Seguru egun polita pasatu zutela!

## Masaje zerbitzua martxan da dagoeneko

Elkareko bazkideek aitzinetik hitzordua hartu beharko dute telefonoz deituz

### PABLO IRASTORTZA

Prest daude Doneztebeko aretoan Arkupeak elkarteko kideentzat masajeak hartzeko egunak eta orduak.

### Hainbat motatako masajeak

Hainbat motatako masajeak eskaintzen dituzte. Bertzeren artean jeriatrikoak, erlaxanteak, deskontrakturatzaileak, aurpegi eta burukoak, oin eta eskuetakoa... Egoitzara hurbiltzen diren bazkideek nahi dutena eskatzeko aukera izanen dute.

### Noiz eta nola

Astelehenak izanen dira Jaione Irisarri kiromasaje emaitzailearen lanegunak, hori bai, nahitaezkoa izanen da aitzinetik telefonoz deituz hitzordua ziurtatzea.

### Kanpoan ere bai

Komeni da gogoratzea, Doneztebe ez den bertze edozein herritan masaje-hartzaile kopuru bat elkartzuz gero, aski izanen dela telefono berera deitzea, Jaione herri horretara hurbiltzeko.



Adintze aktiboa sustatzea da elkarteko kideen helburua.

## 9.428 euroko dirulaguntza hartu du elkarteak

### P. IRASTORTZA

Beti da pozgarria berri positiboak lerrootara ekartzea. Ekainean jakin berri dugunez, Nafarroako Gobernuak Osasun Saileko adintze aktiboa planaren programaren hariara, eskaintzen dituzten laguntzak izan dira aldi honetan berri onak helarazteko aitzakia.

### 9.428 euro zahartze aktiboa sustatzeko

Gobernuak 9.428 euro eman dizkio elkarteari, urtean zeharreko eginkizunak aitzinera ateratzen laguntzeko erabiltzeko dituztenak. Arkupeak elkarteak jarduera anitzeko elkarteak denez gero, ziur izanen dela hartutako sosa non egokitu!

## GUTUNA

PABLO IRASTORTZA, ARKUPEAK ELKARTEAREN IZENEAN

### Nahigabe latza berriz

Pandemia dela eta, denon memorian dago azken urte eta piko negargarria. Aurten, iazkoaz gain, badirudi mamu beltzek ez dutela elkartearen ingurutik alde egiteko intentziorik, ia hamabortzero dugu heriotza berri tamalgarriren bat. Azkena, Doneztebetik jaso dugu. Elkarteko guztien alde buru-belarri lan mardula egindako Isabel Mitxeltorena maitagarria izan da.

### Isabeli, bihotzez

Zure desagerpena izan da azken berri damugarria Isabel. Hamabi urtez elkartearen idazkari gogoangarria izan zinen, Felipe Ganboa presidente ahaztezinarekin batera. Ez zen



Isabel Mitxeltorena.

alferrrikakoa izan (bertze hainbat lankideren laguntzarekin) bien artean Arkupeak elkartearen egitasmoaren zimenduak biziki sendotzeko egin zenuten ahalegina eta lortutako etekina. Ez zenuen sekula santan hutsik egiten, beti jarrera eta aurpegi baikorrez, zeure burua musu-truk bertzeen mesederako eskainiz, ingurukoei egunerokoa erraztuz. Zure hiletan entzun ziren laudorioek argi adierazten dute ez dela nolanahikoa izan zure familian, lagunena eta ingurukoen artean utzi duzun hutsune ordezkaezina. Zuei denei, besarkadarik eztieta. Eta zuk, Isabel, har itzazu elkarrekin onik sakonena eta jarrai ezazu zauden lekutik denei laguntzen. Zoriontsu izan!



P. IRASTORTZA

### Leitzara ekaineko sorta

Apirilean bezala, ekaineko Peron janari sorta ere Leitzara joan zen. Hamabi izan ziren 'Goizueta' erantzuna asmatu zutenak eta horien artean Mari Karmen Etxabarri Bengoetxea izan zen saritua. Lourdes Erbitiren eskutik jaso zuen oparia. On egin degizula!

## Karmen bezperako festaren ondoren ur txirrista larunbatean

Ostegunean 20:30ean afari herrikoia egingen dute eta larunbatean ur-txirrista jarriko dute

### TTIPI-TTAPA

Aurreko aldizkarian iragarri bezala, hainbat hitzordu izanen dira ondoko egunetan eta asteetan. Joan den larunbatean, esaterako, Umore Ona dantza taldekoek emanaldia egitekoa zuten eta ostegun honetan, uztailearen 15ean, Karmen bezperako ospakizuna izanen da. Horren harira, 20:30ean afari herrikoia antolatu dute plazan. Ohi bezala, talde bakoitzak bere jatekoa eramanen du.

Larunbatean, berriz, hilaren 17an, 15:00etatik 19:00etara ur-txirristan gozatzeko aukera izanen da.

Ez dira udalak, guraso elkar-teak, Goittikik, Umore Onak eta ezker abertzaleak antolatu dituen udako hitzordu bakarrak. Abuztuaren 1ean Tio Teronen semeak dantza ikuskizunaz gozatzeko aukera



Karmen bezperako irudia, 2019koa.

izanen da, 12:00etan, eta abuztuaren 13an bertsoari zama maitetuen antolatzaileekin hitzordua antolatu dute: *Bertsu txiki infernu handi* saioa, 19:00etan.



FELIX LOIARTE

## Jaunartzea egin dute sei gaztetxok

Ekainaren 27an argazkian ageri diren sei neska-mutikoen jaunartzea egin zuten: Izaro Saldiasak, Irati Salaberriak, Maialen Apezetxeak, Aritz Aranberrik, Beñat Narbartek eta Jon Larinek. Argazkian katekistekin eta apezarekin ageri dira, Mirentxurekin, Iñaxirekin eta Juananekin.

## Autobus garraio publikoa indartzeko eskariarekin bat egin dute herritarrek

### TTIPI-TTAPA

Autobus garraio publikoa eskasa dela iritzita, zerbitzu berria eskatuz sinadura bilketa egin berri du Leitzako Udalak eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztu ditu bildutako 1.635 sinadurak.

Bada herritarrek ere eskarera horrekin bat egin dute. Ekainaren 27an, esaterako, Mendialdeko Azoka Ibiltariaren egunean, ehun sinadura bildu zituzten eta horiez gain, herritar batzuek Leitzan sinatu zuten. Unai Miranda alkateak TTIPI TTAPAri adierazi be-

zala, «guretzat urrats garrantzitsua izanen litzakeelako astelehenetik ostiralera Hernanira eta Leitzara lauzpabost zerbitzu egotea, Iruñera joateko zerbitzua izatea eta asteburuetan ere garraio publikoa edukitzea».

### Egungo zerbitzua

Gaur egun, egunean bizpahiru linea daude Goizuetatik Hernanira joateko eta Leitzara joatekotan, Sarrioko langileen autobusa bakarrik aprobetxa daiteke, Iruñera joateko konexiorik gabe.

## Mendialdeko Mankomunitateko garbiguneen ordutegia aldatu dute

### TTIPI-TTAPA

Uztailearen 1az geroztik, Leiza eta Goizuetako garbiguneek ordutegi berria dute. Goizuetako garbigunea astelehenetan 14:00etatik 16:30era irekitzen dute, baita hilabeteko lehen-dabiziko larunbatetan ere, 09:30etik 13:30era.

Leitzako garbigunearen kasuan, astearte goizetan 09:00etatik 13:00etara irekitzen dute eta arratsaldetan 15:00etatik 17:30era. Ostegunetan arratsaldez irekitzen dute, 15:30etik 19:00etara. Honez gain, hileko bigarren larunbatetan 09:00etatik 14:00etara zabaltzen dute.



OLATZ ZABALA

## Lesakara mendi ateraldia

Arainburu Mendi Taldeak egindako deialdiari erantzunez, uztailearen 3an argazkian ageri den kuadrillak herriko plazatik abiatu eta Lesakarako bidea oinez egin zuten. Sei-zazpi orduko buelta Lesakan bazkalduta borobildu zuten.



FELIX LOIARTE

## Hip-hop emanaldi ederra

Ekainaren 25ean, hip-hop dantza emanaldi gustagarria egin zuten gaztetxoek. Dantzariak ikasitakoa plazaratuz gozatu zuten ikasturte bukaerako emanaldian, eta ikusleak eta ingurukoak kontent aski egon ziren plaza inguruan sortu zen giroarekin.



JANIRE BAKERO

## Gaztetxoak udalekuetan

Neska-mutikoak joan den astean hasi ziren guraso elkarteak antolatutako udalekuetan eta igeriketa ikastaroetan. Udalekuetan Janire Bakero eta Antton Apezetxea begirale dituztela uztailaren 29ra arte bilduko dira eta Hernaniko kiroldegian dabilzanek ere orduan bukatuko dute igeriketa ikastaroa.



FELIX LOIARTE

## Txapelak herrian eta herritik kanpo

Ekain bukaeran jokatu zituzten V. Umore Ona Pilota Txapelketako finalak, eta txapelak ongi banatuak gelditu ziren: Batzuk etxean gelditu ziren: seinetan mutiletan Zabala eta Zurutuza (Umore Ona) nagusitu ziren eta kimuetan, mutiletan Garmendia eta Sagardui (Umore Ona).



FELIX LOIARTE

## Mendialdeko Azoka Ibiltaria

Mendialdeko Azoka Ibiltariak geldialdia egin zuen ekainaren 27an pilotalekuan. Herriko eta herritik kanpoko jende asko hurbildu zen bertako eta inguruko produktuz beteriko postuetara. Uztailaren 4an Latasan egindako azokaren ondotik, 25ean Basaburuan izanen da hurrengo azoka.



Herritarrak Nafarroako Parlamentuaren aurrera eraman zuten «garraio publiko duinaren aldeko» aldarria.

## Autobus zerbitzu berria esleitu behar dela dio udalak

Autobus zerbitzua indartzeko neurriak «aurrerapausotzat» jo ditu udalak baina «zerbitzu zabalagoa» eskatu du

### TTIPI-TTAPA

Behin-behinean bada ere, hilabete hasieraz geroztik, autobus garraio publikoa erabiltzeko aukera gehiago dute orain leitzarrek, bai astelehenetik larunbatera, baita igandean eta jai-egunetan ere. Neurriak «ongi-etorriak» direla adierazi du udalak, baina gogoratu du «zerbitzu berria esleitu behar dela, zerbitzu zabalagoa eta ordutegi egoikiagoak behar ditugulako».

Mikel Zabaleta alkatea Berta Miranda Garraio eta Mugi-kortasun Iraunkorreko zuzendari nagusiarekin eta Leizaran eta Conda autobus konpainietako ordezkariarekin bildu zen ekainaren 29an Iruñean. Gobernuak horren ondoren eman zuen uztailetik aurrera autobus garraioa indartzeko asmoaren berri. Orain arte, Iruñea-Donostia bidea egin duen Condak debekatua zuen Leitza bidaiariak hartzea edo uztea, baina debekua alde batera utzi dute.

### Leitza Iruñera

Orain arte, astelehenetik ostiralera 07:50ean eta 15:30ean

ateratzen ziren Leitza autobusak, eta larunbatetan 09:00etan eta 15:00etan. Zerbitzua areagotu dutenetik, horiez gain, 11:10ean eta 21:40ean beste bi autobus ateratzen dira, eta zerbitzua igandetan ere emanen dute.

### Iruñetik Leitza

Iruñetik Leitza joateko zerbitzua ere zabaldu dute. Orain arte, astelehenetik larunbatera, Iruñetik Leitza joateko bi autobus izan dira eta asteburuetan batere ez. Orain, ordea, astelehenetik larunbatera, Iruñetik 08:30ean, 13:00etan, 18:00etan eta 20:00etan ateratzen dira Leitza doazen autobusak.

Horrez gain, abuztuaren 31ra arte, astelehenetik ostiralera 15:30ean beste autobus bat aterako da. Igandean eta jai-egunetan, berriz, goizean, 08:30ean,

## «ZERBITZU ZABALAGOA BEHAR DUGU»

MIKEL ZABALETA, ALKATEA

eta, arratsaldean, 20:00etan aterako dira Iruñetik Leitza-rako autobusak.

### Zerbitzua berritzeko beharra

Neurri horiekin «pozik» agertu da alkatea. «Ongi-etorriak direla eta eskertzen ditugula» adierazi du, baina «behin-behineko neurriak» direla gogoratu du, eta «zerbitzua berritzeko beharrak hor jarraitzen duela» gaineratu du. Halaxe adierazi zuen ekainaren 29an Nafarroako Parlamentuan egindako lan-saioan. Garraio zerbitzua «zaharkitua, eskasa eta desgokia» dela salatu zuen parlamentuan egindako agerraldian. Egun berean, hainbat herritar bildu ziren parlamentu atarian, «garraio publiko duina» eskatuz. Aipatzekoa da, bestalde, 1.635 sinadura lortu zituztela.

Zabaletak TTIPI-TTAPARI azaldu dionez, «2012an zerbitzua iraungi zen eta 2015ean zerbitzu berria diseinatzen hasi ziren». Geroztik «bilera eta ekarpen asko» egin dituztela gaineratu du. «2018an zerbitzu berria aurkeztu zuten eta horretan oraingoak baino egoikiagoak diren maiztasun eta ordutegiak ageri dira, eta hori da martxan jartzeko eskatzen duguna». Hori luzerako izanen dela ikusita adostu zituzten ekainaren 29an behin-behineko neurriak eta «ongi-etorriak» diren arren, «zerbitzu berria esleipenera ateratzea eskatzen dugu, zerbitzu zabalagoa eta ordutegi aldetik egoikiagoa behar dugulako».

## Txamukos taldearen kontzertua larunbatean

Pesta Batzordearen kulturagendari segida emanez, larunbat honetan, uztailearen 17an, Txamukos mariatxi taldeak kontzertua emanen du, 22:00etan. Uztailearen 24an, berriz, tobogana jarriko dute goizez eta arratsaldean Joandegiko aldapan, eta hilabetea borobiltzeko, Modus operandi musika taldearen emanaldiaz gozatzeko aukera izanen da, 22:00etan. Abuztuaren sartuta, berriz, herri kirol saioa antolatu dute, 12:00etan. Ondoko egun eta asteetako ekitaldien berri hurrengo aldizkarietan.

## BTT proba bertan behera utzi du Mendibil taldeak

«Leizulia BTT proba egin nahi, baina nola egin ez dugu garbi ikusi». Hala adierazi du Mendibil taldeak, eta hori horrela, aurtengo edizioa ere bertan behera uztea erabaki du. Datorren urtean «ongi egiteko bidea» izatea espero du mendibizikleta taldeak.

Bestalde, kirol kontuekin segituz, Euskal Herria Mendi Erronkako lantaldeak, 2022ko hitzorduaren berri eman du. Euskal Herria Mendi Erronkaren zortzigarren edizioa datorren urteko ekainaren 4an izanen da.

## Immersoko turismo programan izena emateko aukera

Udalak gogoratu duenez, uztailearen 30ean bukatuko da Immersoko turismo programan izena emateko epea. Eskerak [www.immerso.es](http://www.immerso.es)-en edo gizarte zerbitzuen mankomunitatean egin daitezke, eta informazio gehiago nahi duenak ere gizarte zerbitzuetara jo dezake.

# Kultur teknikaria kontratatatu nahi du udalak

Aldi baterako kultur teknikaria kontratatatzeko deialdia egin du eta ostegunean bukatuko da eskaerak aurkezteko epea

## TTIPI-TTAPA

Aldi baterako kultur teknikaria kontratatatzeko asmoz, deialdia egin du udalak eta interesa dutenei ostegun honetan, hilaren 15ean, bukatuko zaie eskaerak aurkezteko epea.

Jardunaldi erdiko lanpostua izanen da eta bere ardura, besteak beste, kultur programak eta jarduerak diseinatzea izanen da. Izangaiek, izena emateko, erdi mailako unibertsitate titulua edo baliokidea, CI euskara titulua edo Euskararen Gaitasun Agiria eta gidabaimena beharko dute.

Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda udalaren iragarki- taulan eta egoitza elektronikoko iragarki- taulan ([leitza.egoitza-elektronikoa.eus](http://leitza.egoitza-elektronikoa.eus)) argitaratuko dute eta hortik aurrera, bost egun baliouduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko edo eskabidean egindako akatsak zuzentzeko.

Inor baztertua ez bada, zuzenean argitaratuko dute behin betiko zerrenda, eta zerrenda horretan bertan jarriko dituzte hautaprobak egiteko eguna, ordua eta tokia.



Herri Aretoan egin zuten jardunaldia.

## Euskal kulturak Nafarroan dituen erronkak hizpide izan dituzte

### TTIPI-TTAPA

Hari Izpia Hartzen jardunaldien barne, *Euskal kulturaren erronkak Nafarroan, lurraldea eta kultura* hizpide izan zuten uztaillaren lehen Herri Aretoan. Hainbat hizlarik parte hartu zuten, tartean, Jakin Fundazioko Lorea Agirrek, Arantza Santesteban ikerlariak eta

zinegileak, Kanpoko bulegoko Marc Badalek...

Elhuyar Aholkularitzako Jon Abilekin gogoeta gidatua egin zuten eta Dabid Anaut euskara teknikariak, Karekin Kulturako Kati Leatek eta (H)ilbeltzako Aitziber Zapiak egin zituzten aurkezle lanak.



Herri curriculumaren aurkezpena ekainaren 28an egin zuten. LEITZAKETA

## Herri curriculumuma osatzeko lehenbiziko urratsak egiten hasi dira

### TTIPI-TTAPA

Leitzari buruzko informazioa eta ezagutza bilatzea, antolatzea, ordenatzea eta eskuragarri jartzea helburu duen herri curriculumuma proiektua abiatu dute Leitzaketa taldea osatzen duten Arantxa Azpirozek, Dabid Anautek, Edurne Zabaletak, Goretti Calderonek, Iñigo Alduntzinek eta Lordi Saralegik.

Ekimena ekainaren 28an aurkeztu zuten, udaletxeko batzar aretoan bildu ziren 30 bat lagunaren aurrean. «Denon ztat oso baliagarria izan daitekeela» adierazi zuten, baita «auzolanean egin beharrekoa»

dela ere. Hori horrela, auzolanean eta elkarlanean parte hartzeko proposamena luzatu die elkarteak herritarrei; «proiektua aurrera eramateko prozedura bat landu dugu, eta orain herriko norbanako eta eragileen txanda izanen da, curriculumak jaso beharreko gaien eta edukien inguruko proposamenak egiteko».

Ondoko hilabeteetako lana gaiak eta edukiak, informazio iturriak eta bibliografiak, lehen-tasuneko ideiak eta elementuak identifikatzea izanen da, «curriculumaren hezurdura osatu eta antolatzea».



LEITZAKO UDALA

## Kalteak salatu ditu udalak

«Plazako kioskoko lonak zarratatuta, kotxez Ixkibar ingurua kaltetuta edota Atzea estalpean su hondarrak agertu dira». Hala zioen udalak duela pare bat aste. Horrelako jokabideak «ulergaitzak eta benetan tristeak» direla salatzeaz gain, «denona dena, denon artean zaindu dezagun» eskatu du.



Iker Gomez –ezkerrean– eta Iraitz Uriarte –eskuinean– Hiru Erregeen Mahaian. LHL ERRONKA

## «Ez genuen espero proiektuak halako indarra hartuko zuenik»

IKER GOMEZ ETA IRAITZ URIARTE LEITZAKO MENDI LASTERKARIAK

Linza-Hiru Erregeen Mahaia-Leitza arteko 150 kilometroak egin dituzte Uriartek eta Gomezek. Isuri duten izerdi tanta bakoitza solidariora izan da, herri inklusiboagoa lortzeko pausoa

**G. PIKABEA** | LEITZA

«Brutala». Horixe da azken boladan Leitza hitzetik hortzera ibili den hitza. Halaxe izan delako Iraitz Uriartek eta Iker Gomezek egin duten kirol erronka, baita erronka horren bueltan Leitza inklusibitatearen alde egin duten guztia ere. Uriarteren eta Gomezen mendirako zaletasunari bide eginez, «zerbait berezia egiteko nahiarekin» hasi zen dena. «EHME Euskal

Herria Mendi Erronka bertan behera utzi genuenez, erronka pertsonala egin nahi izan genuen» eta hala okurritu zitzaizen Linza-Hiru Erregeen Mahaia-Leitza arteko 150 kilometro eta 6.000 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea atsedenek gabe egitea. Ekaineko azken asteburuan egin zuten, «oso pozik» eta «asko gozatzuz». Baina hori baino gehiago egin dute, lasterketa Leitza herri inklusi-

boagoa izan dadin amua izan baita. Leitzako sei familiaren elkarlanaren eta auzolanaren bitartez, ikusezina ikusgai bihurtu dute, sei hilabetez herri oso bat mobilizatzea eta kontzientziaztea lortu dute.

**Ez da erronka makala izan...**

Mendian ibiltzera ohituta gaude eta uste baino hobeki bukatu genuen, bai gorputzez baita buruz ere, eta fisikoki ez dugu ajerik izan. Aurretik inoiz baino

gehiago entrenatzen arituak ginen, baina ez gehiegi, eta ez genekien nahikoa izanen zen edo ez. Neurrian entrenatu genuela esan dezakegu, eta horrek erronka egunera lasaiaigo ailegatzeko balio izan zigun. Gehiago entrenatu izan bagina igual justu ailegatu izanen ginen...

**Beraz, gozatu zenuten...**

Bai, asko gozatu genuen, bai gurekin korrika etorri zirenekin, bai familiarekin baita paisaia-ekin ere. Gurekin etorri ziren lasterkari guzietatik giro ona jarri ziguten eta oso talde ona bilatu genuen. Bidean barre asko egin genuen...

**Egindakoaz ohartzeko aukera izan duzue?**

Leitzara ailegatu ginenean konturatu ginen nolako olatua sortu zen. Herrian hainbeste jende ikustea izugarria izan zen, ez genuen espero halako harrierarik. Biharamunean lantaldekook bazkaria egin genuenean, hasi ginen hausnartzen eta gertatutako guztia asimilatu genuen.

**Hainbat bidelagun izan dituzue: herritarrek, familia, Kemen elkar-terakoak, Gorka Zubeldia... Momentu berezirik izan duzue?**

Dena berezia izan zen. Aitor eta Arkaitzekin Linzatik Hiru Erregeen Mahaira abiatu ginen momentua, kaskoan Euskal Herria Mendi Erronkan gurekin antolatzaile lanetan aritzen den Junkal ikustea, Jon eta Patxirekin gauzez ilargi betean egin genuen bidea, Kemen taldekoekin Udane eta Ander aulki berezietan eramatea eta momentu hartan Artesiatatik Belatera 20 bat lagun bildu izana, Gorka Zubeldiarekin edo Belatetik aurrera ondoan izan genituen lau lasterkariekin ibiltzea, Garbiñe, Amaiur... Momentu horietako bakoitza berezia izan zen.

**Mendian gora eta behera ordu asko izan ziren. Zer pasatu zitzaizuen burutik?**

Gauza asko... Eta tartean poza. Beheraldi askorik ez genuen izan eta oso ongi etorri ginen, lagunak ondoan hobeki. Hasi-eran gu biok bakarrik etortzea



planteatu genuen, eta hala etorri izan bagina askoz ere gehiago eman izanen genion buruari, baina jendearekin oso erraza izan zen.

#### **Gauz ibiltzea nolako izan zen?**

Ilargi betea zen, urteko egunik luzeena eta gaurik motzena eta gainera, ohituta gaude gauz ibiltzera eta asko disfrutatu genuen. Iparraldea lainopean ikusi genuen, itsasoa zirudiela, animalia batzuk ere ikusi genituen eta kantari ere ibili ginen, *Dragoi Bola* kantatuz... Entrenitutu ginen.

#### **Zuen mendi erronkarekin hasi zen dena, baina hori baino gehiago egin duzue herri inklusiboagoa lortzeko...**

Bai, proiektua biok hasi genuen. EHMEren antolatzaileak gara eta aurten lasterketa ez zela eginen eta, gure harikadarekin zerbait pertsonala eta berezia egin nahi genuen. Hala okurrituzitzaigun Linza-Hiru Erregeen Mahaia-Leitza egitea. Hortik hasita zergatik ez genituen kilometro solidarioak egiten pentsatu genuen. Eta azkenean kristoren proiektua bilakatu da, herri guztia mobilizatu duena, eta inklusibitatearen alde nolabaiteko kontzientzia sortu duena. Ez genuen espero halako indarra hartuko zuenik eta egin dena guretzat oso garrantzitsua da.

#### **Helburua lortu duzue?**

Hasieran aipatzen genituen lorpen adierazleak lortu ditugu, eta gehiago ere lortu dugu. Orain, bildutako diruarekin inbertsioa egitea gelditzen da.

#### **Eta zer egingen duzue?**

Uda pentsatzeko, lasaitzeko eta deskantsatzeko hartuko dugu. Sei hilabete haueko oso intentsoak eta lan handikoak izan dira, eta denok opor txiki batzuk merezi ditugu. Udazkenean edo irailean, eragileekin hizketan hasiko gara, herrian zein behar dauden jakiteko. Parkeak inklusibitatearako birmoldatu, jubilatuentzako bidexka eta banku batzuk egin... Beraiekin hitz egin ondoren erabakiko dugu zer egin.

#### **LHLren ibilbidea ez da bukatu...**

Ez. Hasieran, lasterketa egunarekin bukatuko zela uste genuen, baina gero ohartu ginen ezetz. Bildutako diru inbertitu behar da eta kontzientzia-arekin segitu behar da. Urtebete baino gehiago luzatuko da azkenean. **Orain arte egindakotik zer nabarmentzeko zenukete?**

Alde batetik, elkarlana eta auzolana, gure arteko elkarlana oso garrantzitsua izan baita. Eta bestetik, herriak gure proiektua nola hartu duen ikustea ederra izan da; eskolak, institutuak, gizarte zerbitzuek, Okille tailerrak, udalak... Oso kontent gaude izan dugun erantzunarekin eta gure proiektuan sinesteagatik eskerrak eman nahiko genizkieke.

#### **Zertan aldatu da Leitza LHL proiektuarekin?**

Inklusibitatearen aldeko kontzientzia handiagoa nabari da. **Eta zuek aldatu zarete?**

Bai, sei hilabete hauetan asko, batez ere mentalitatea aldatu zaigu. Lehen ikusten ez genituen gauza asko ikusten ditugu orain. Adibidez, lehen lau zentimetroko koska bat koska txiki bat baino ez zen, eta orain hesi bat ikusten dugu. Pareta oso handiak daudela ohartu gara.

#### **Zuen familiak ere oinarriak izan dira proiektuan...**

Bai, bai, beraiek gabe hau ez zen posible izanen, eta umeak ere oinarria izan dira eta hunkituak ikusi ditugu. Denon kontzientzian eragin du.

#### **Zuek biok gehiago elkartzeko balio izan du?**

Lehen ere nahiko elkartuta geunden, eta hemendik aurrera ere elkar xaxatzen segituko dugu. Orain denboraldi batez ez dugu deusetan pentsatuko, eta ondokoek ere hori esaten digute, arriskua dugula...

**Hortaz, ez duzue baztertu halako erronka gehiago egiteko aukera...** Orain lasai hartuko dugu eta ea hurrengo urtean zer ateratzen den.

#### **Baina mendian segituko duzue...**

Bai, bai, hori seguru. Ia ez da egunik mendirik gabe. Gorputza lasaitzeko eta burua askatzeko lekua da mendia.



LHL erronkako lantaldean aritu diren familiak. LHL ERRONKA



Udanek eta Anderrek ere mendian ibiltzeko aukera izan zuten. LHL ERRONKA



Gomezek eta Uriartek hainbat bidelagun izan zituzten. LHL ERRONKA



Udaneren gelakoek pankarta prestatu zuten bi lasterkariak Leitza ailegatzera.



Auzolan erraldoiaren emaitza izan da CD-DVDa. JM ONDIKOL

## Ikastolaren diskoa eta bideoa eskuragarri dago

Ikastolaren historiaren zati bat dokumentalean biltzeko hainbat irakasle, ikasle eta gurasoen parte-hartzea izan dute

### TTIPI-TTAPA

1970-71 ikasturtean sortu zen Baztan Ikastola. Seme-alabek euskaraz ikasteko zuten ilusioak bulkatuta abiatu zuten hainbat gurasok eta 27 ikaslerekin ireki zituzten atek. Aurten 50 urte bete ditu eta urteurrena ospatzeko hainbat ekimen izan dituzte ikasturte honetan. Horiek borobiltzeko *Baztan Ikastola-Musikak erakusten du nola dantza izeneko CD-DVDa* argitaratu berri dute.

Izenburua bera edukiaren isla da; batetik, diskoari erreferentzia egiten dio, hainbat

kantu eta dantza biltzen dituelako, eta bertetik, «ederki laburbiltzen du ikastolaren historia, momentuan momentukoa bizi izan duen eta bizi duen ikastola, garai hobeak eta makurragoak ezagutuz, bidean aurkitutako oztopoak gaindituz».

Baztan Ikastolako guraso elkarteak bulkatutako proiektua da, «ikastolaren filosofia barnebilduz, auzolanean egina, jende aunitzen lanari esker». Gaur egun Baztan Ikastolaren partaide diren ikasle, irakasle eta gurasoek hartu dute parte, hala nola, ikasle

ohiek, irakasle ohiek eta guraso ohiek. «Auzolan erraldoia» izan da. Duela bizpahiru urte hasi ziren proiektua pentsatu eta martxan jartzen, eta hasieratik ikastolaren 50. urteurrena gogoratzea izan da asmoa, gogoratu eta ospatu, baina ez soilik gibelera begiraturuz, oraina eta etorkizuna ere kontuan hartuz.

### Edukia

11 kantuz osaturiko CDak 11 bideoz osaturiko DVDak eta duela hiru aste aurkeztu genuen 50. urteurrenaren harira egindako dokumentalak osatzen dute lana.

Bildumako 11 kantuetatik 10, proiektu honetako sorturikoak dira, gai aunitz jorratzen dira eta musika eta hainbat letra biltzen dituzten kantuz osatua dago, koreografiak eta bideoak bezala, egile bakoitzak bere sinadura utzi du sorkuntza lanean. Kantuen bidez, gibelera begirada bat egiten da, baina «hori baino gehiago, orainari eta etorkizunari begiratzen» dio, izan ere kantuetan ikastolak lantzen dituen baloreak transmititu nahi izan ditugu, ikastolaz harago, jendarte osoarendako baliagarriak direnak. «Anitza» da, Baztan Ikastola bezala, oro har jendarte bezala, eta bide horretan, hainbat estilo jorratzen ditu, edonork kantatu, dantzatu eta ongi pasatzeko kantu eta bideoen bidez. Ikasketarako ere baliagarria da, edozein etxe edo ikastetxetan

material didaktiko gisa erabil daiteke.

Bertzalde, 11. kantua, *Hamabortz Ama Bat*, 2015. urteko Nafarroa Oinezarako egindako kantua da. Kantu honen bidez bidean joan zaizkigunak gogoan izan nahi ditugu. Jon Barberenak egin zuen kantu horren letra. «Jonek proiektu honetan parte hartzeko konpromisoa hartu zuen, baina zoritxarrez, ezin izan zuen parte hartu. Bere omenez, eta gaur hemen ez dauden Baztan Ikastolako partaide izandako guziak gogoratzeko keinu gisa disko honetarako berreskuratutako dugu kantua». Kantuez gain, 50. urteurrenako dokumentala ere agertzen da CD-DVDan, «Baztan Ikastolaren historiaren zati bat erakusteko asmoz egina, hainbat garaitako irakasle, ikasle eta gurasoen parte-hartzearekin».

Jende aunitzek hartu du parte. Musika, letrak, koreografiak eta bideoak, baita diskoaren diseinu lanak egiterakoan ere, prozesu guztia auzolanaren bidez egin da, bakoitzak bere alorrean lan eginez eta lan guztiak uztartuz.

### Salmenta-guneak

CD-DVDa Elizondoko Axular eta Fantxikien, Erratzuko Altxuko dendan, Doneztebeko Ostiz liburu-dendan, Lesakako Ekaitza kafetegia edo Berako Errekalde ostatuan eskura daiteke eta *baztanikastola@gmail.com* helbidearen bidez ere eskatu ahal da.

**BRIKO BAZTAN, SL**

Drogeria · Garbiketa produktuak  
Ferretaria · Sukaldeko tresnak  
Mozorroak · Papertegia  
Kiroleko eta mendiko jantziak  
Moda · Oinetakoak  
Laneko arropa · Bitxiak  
Lurrin-denda  
Kosmetika, Elektronika  
Telefonoak · Poltsak eta mailetak  
Etab.

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

**asegi asesorías**  
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304
---------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------



agur  
plástico  
adiós

#AGURPLASTIKOA

# Kanpora! Inork ez zaitu festa honetara gonbidatu.

2021EKO UZTAILAREN 3TIK AURRERA, DEBEKATUTA DAGO  
ERABILERA BAKARREKO PLASTIKOAK ETA BIRZIKLATU EZIN  
DIREN MATERIALEZ EGINDAKO MONODOSIAK EDO KAPSULAK SALTZEA.

Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko  
14/2018 Foru Legea, 2018ko ekainaren 18koa.



Agurtzen ditugun  
produktu guztiak  
eta bere alternatiba  
jasangarriak  
ezagutu.

Gobierno  
de Navarra  Nafarroako  
Gobernua





Ekainaren 23an aurkeztu zuten plana jendearen aitzinean. UTZITAKOA

# Hirigune historikoen berroneratzerako Baztan Hobetzen

Ekainaren 23an aurkeztu zuen Bazango udalak Plan Berezia, hiriguneak hobetu eta babesteko xedearekin

## TTIPI-TTAPA

Baztan Hobetzen lelopean, Baztango Udalak Hiri Jarduketarako Plan Berezia (HAPB) prestatzeari ekin dio, hirigune historikoen hiri-berroneratze integralerako. Proiektu honen bidez, udalerrak bere hiriguneak hobetu eta babestu nahi ditu, bertako biztanleen parte-hartzearekin. Proiektua Paisaje Transversal enpresak garatuko du, auzoetako eta gune historikoetako hiri-berroneratzean espezializatutako hirigintzako bulegoak eta plana 20 hilabetez egingen da.

## Parte-hartzea «funtsezkoa»

Baztango alkatearen arabera, «urtetan lurzoruen kalifikazio aldaketak eta eraikuntzak markatu du agenda publikoa, eta orain eraikia dagoenari

**«HIRIBILBEAK HOBETU, BIRGAITZEA SUSTATU ETA PAISAIA ZAINDU NAHI DUTE»**

begiratzeko ahalik hobekien aprobetxatzeko ordua da». Joan den ekainaren 23an aurkeztu zuten jendearen aitzinean 15 hirigune historikoak eta gainerako herrigune eta auzoak hobetzeko eta zaintzeko balioko duen plana. Eta, hiru helburu nagusi dituzte: «hiri- bilbeak hobetzea, hainbat ikuspegitatik: etxebizitzak, merkataritza, espazio publikoak, zerbitzuak eta azpiegiturak, mugikortasun jasangarria, gizarte-, ingurumen- eta ondare-alderdiak. Bertetik, birgaitzea sustatzeko, etxebizitza hutsen ugaritzea saihesteko eta etxebizitzarako sarbidea hobetzeko estrategiak zehaztuko dituzte, baita lurzoruen artifizializazioa eta hiri-hedapena geldiarazteko estrategiak ere. Eta azkenik, ondarea, paisaia eta ingurune naturala zaintzeko mekanismoak planteatuko dituzte».

## Lau fase

Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren idazketa lau fasetan egituratua da. Lehenbizikoan, hiriguneen arazoak eta beha-

rrak ikuspegi integral eta parte-hartzaile batetik aztertuko dituzte. Bigarrenetan, diagnostikoa, aitzinproiektua eta planaren alternatibak egingen dituzte. Eta, azkenik, hirugarren eta laugarren faseak dokumentuaren izapidetzeari, alegazioei eta onarpenari buruzkoak izanen dira.

## Herritarren parte-hartzea

HJPBren idazketa Baztango herritarren iritziarekin egingen dute. Horretarako, herritarrek parte hartzeko prozesu oso bat jarri da abian. Hala, datozen hilabeteetan hainbat ekintza egingen dituzte, hala nola elkarrizketak, talde-mapak eta partaidetza-tailerrak. Gainera, inkesta digital bat eta webgune bat prestatu dituzte, Baztan Hobetzen prozesuari buruzko informazio guztia argitaratzeko: [www.baztanhobetzen.baztan.eus](http://www.baztanhobetzen.baztan.eus).

Hilabete bateko prestaketa lanen ondotik, Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren idaz-

keta eta Baztan Hobetzen prozesua jendearen aitzinean aurkeztu ziren 2021eko ekainaren 23an, Baztango Udalaren egoitzan. Ekitaldi horrekin 20 hilabetezko lan gogorari ekin zitzaion, HJPB 2023. urtearen hasieran onartu ahal izateko.

## Paisaje Transversali buruz

HJPB egiteko ardurak Paisaje Transversal enpresak izanen du, hiri plangintzako bulego integrala, Donostian, Valentzian eta Madrilen egoitzak dituena. Hirigile gazteen bulego hau auzo eta gune historikoetako hiri-berroneratze integral eta parte-hartzailean espezializatuta dago. Hamar urteko esperientzia du, eta 120 proiektu baino gehiago egin ditu; bertzeren artean, Gasteizko Erdi Aroko hirigunea leheneratzeko planak, Oloteko Nucli Antic edo Medina de Pomar eta Xixonako zentro historikoak.

Horrela Paisaje Transversalek Baztanen egingen duen proiektu honen iduritsukoak aukeratu dituzte berriki Biurteko desberdinetarako, hala nola Biennale di Venezia ospetsurako eta Arkitektura eta Hirigintzako Espainiako Biennialaren hamabosgarren edizioarako (XV BEAU).

Prozesuari buruzko argibide gehiago izateko edo harremanetarako [jon@paisaje-transversal.org](mailto:jon@paisaje-transversal.org) edo [BaztanHobetzen@baztan.eus](mailto:BaztanHobetzen@baztan.eus) helbidera idatz daiteke.

**INDAUTO  
TAILERRAK *ELITE!***

**Mekanika  
Elektrizitatea  
Pneumatikoak  
Ibilgailuen salerosketa**

Ind. Ordoki · Arizkun (NA)  
T. 948 453 488 · M. 675 324 960

[info@indauto.es](mailto:info@indauto.es)

## Erbesteratuei omenaldia eginen die Nafarroako Gobernuak irailean Elizondon

1936ko kolpe militarren ondorioz erbesteratu joan behar izan zuten nafar guztiak omenaldia dugu Nafarroako Gobernuak irailean 4an, lehenbiziko larunbatean Elizondon. *Nafarroako erbesteratzea. Erbesteratzea, oroimena eta artea* programaren barnean eginen dute Herriarrekiko Harremanetako Departamentuak antolatutako omenaldia. Duela gutxi, memoria historikoko elkarteei eta haien senideei aurkeztu zieten ekimena.

Interesa dutenek [www.pazy-convivencia.navarra.es](http://www.pazy-convivencia.navarra.es) web

orrian erbesteratu ziren nafar guztien zerrenda osoa daukate ikusgai, bakoitzaren jatorrizko herriarekin. Nafarroako Memoria Institutuak egindako lanak 1.362 lagun bildu ditu osotara.

Ekitaldian parte hartu nahi duten senitarteko eta lagun guztiak Nafarroako Memoriariaren Institutuarekin harremanetan jartzera animatu dituzte. Horretarako, [inn@navarra.es](mailto:inn@navarra.es) helbide elektronikora idatzi edo 848 42 60 21 telefonora deitu beharko dute.



M. MARITORENA

## Udari ongietorria egiteko suak Anizen

Urtero bezala, udari ongietorria egiteko suak piztu zituzten ekainaren 23an Anizen. Arratsaldean haurrak etxetik etxera ibili ziren kartoiak eta paperak biltzen. Suak piztu eta saltatu ondotik, xixtor eta xingar jatea izan zuten. Postretarako, berriz, etxeetatik eramandako bizkotxoak izan zituzten.

## Xubeleten kantu eta kontakizunek girotutako ibilaldi bohemioko Arizkun

Xabierren erakusketa, ibilaldia, Xubeleten kantuak eta kontakizunak uztartuz, ibilaldiak egiten dituzte udako ortziraletan Arizkun. 16:45ean abiatuko dira eta Lamixarreko dolarean sagardoak dastatuz akituko dute buelta (7,5 euro ordaindu behar da).



Xubeleten kantuak girotuko dute.

## 'Plazaz plaza Covid-ari beste begirada bat' Elizondon

Euskal Herri osoko 33 kolektibok osatzen duten Bizitza plataformak *Hitza plazaz plaza* ekimena abiatu zuen joan den uztailaren 3an. Euskal Herriko 42 herritatik pasatuko da karabana eta uztailaren 19an Elizondon izanen du geldialdia, 18:00etan.

## Iñaki Beorleguiren pintura erakusketa ikusgai

Hilaren 31ra arte Arizkunenean Iñaki Beorlegui artistaren pinturak erakusketaz gozatzeko aukera izanen da. Asteartetik ortzegunera 18:00etatik 21:00etara eta ortziraletik igandera, goizez zehar arratsaldean, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, bisita daiteke.

# ARTEAREN IBILBIDEA

## 2021



Baztango  
Udala

Informazio gehiago:

T. 948 581 279


[www.baztan.eus](http://www.baztan.eus)



**JOSÉ LUIS ALZUGARAY GALARREGUI**  
PINTURA ERAKUSKETA  
Jaime Urrutia 3, behea - ELIZONDO  
Uztailaren 16tik urriara arte



**DIANA INIESTA**  
PINTURA ERAKUSKETA  
"Argia"  
Diana Iniestaren pintura tailerra  
ERRATZU  
Uztailaren 26tik abuztuaren 31ra



**IÑAKI BEORLEGUI ESTÉVEZ**  
PINTURA ERAKUSKETA  
"Jatorriaren sustraia"  
Arizkunenea KULTUR ETXEA,  
ELIZONDO  
Uztailaren 9tik 31ra



**FERNANDO GOROSTIDI**  
PINTURA ERAKUSKETA  
Jaime Urrutia 15-1ª - ELIZONDO  
Uztailaren 29tik irailaren 15era



**XABIER SOUBELET**  
PINTURA ERAKUSKETA  
Lan berriak eta lehenagokoak  
Casa Sasternea etxea, ARIZKUN  
Uztailaren 15etik irailaren 15era



**TOMÁS SOBRINO HABANS**  
PINTURA ERAKUSKETA  
"Artearekiko maitasuna"  
Arizkunenea KULTUR ETXEA, ELIZONDO  
Abuztuaren 1etik irailaren 15era



**SANTXOTENA PARKE MUSEOA**  
ESKULTURA PARKEA  
BOZATE, ARIZKUN  
Uztailaren 15etik abuztuaren 31ra



**TERESA LAFRAGUA**  
PINTURA ERAKUSKETA  
Santxotena Parke Museoa  
Eskultura Parkea-BOZATE, ARIZKUN  
Abuztuaren 1etik 31ra



Zutik, ezkerretik hasita, Kristina eta Maki Urtasun Jaimerena.

## «Urte hauetan guztietan aunitz ikasi dugu Abesbatza Ttikiarekin»

**MAKI ETA KRISTINA URTASUN JAIMERENA** ELIZONDOKO ABESBATZAKO ZUZENDARIAK

Zirraraz bizi dute abesbatzaren emanaldi bakoitza Maki eta Kristina Urtasun ahizpek, eta hori horrela izateko, ilusioz eta gogoz lan egiten dute entseguetan. Aunitz erakutsi eta aunitz ikasteko bide eman die orain arte egin duten ibilbideak

### TTIPI-TTAPA

Hamabortz urte joan dira Kristina eta Maki Urtasun Jaimerena Elizondoko Abesbatzan kantatzen hasi zirenetik eta dozena bat pasatu dira Abesbatza Ttikia sortzeko lehenbiziko pausoak eman zituztenetik. Hasiera-hasieratik jendearen arreta erakartzea lortu zuten eta 30 bat gaztetxorekin hasi ziren lanean. Orduetik asteazkenak kanturako eta gozamenerako egun bilakatu dira Urtasun ahizpendako, baita eurekin bat egitea erabaki duten hamarnaka baztandar gaztetxorendako ere. Aurtengoa ikasturte berezia izan da eta, parte-hartzaile gutiago izan dituzte. Kopuruan ez ezik, en-

tsegu eta kontzertuetan ere aldaketak egin behar izan dituzte. Musukoa jantzita eta segurtasun neurriak hartuta aritu dira eta ohi baino emanaldi gutiago egin dituzte. Hurrengo urtean, ahal den heinean, ohiko martxa berrartu nahi dute, bidaia eta irteerak eginez.

**Noiz eta nola sortu zen Abesbatza Ttikia?**

Elizondoko Abesbatza 2005ean hasi ginen kantatzen, eta 2008an abesbatza ttikia sortzearen ideia azaldu zen.

**Nolako izan zen hasiera hori?**

Abesbatza haundiko talde bat bildu ginen, gure zuzendaria, Isabel Lacar, barne eta hortxe hasi ginen abesbatza ttikia

sortzeko aukera aztertzen. Ez genekien zer erantzun izanen genuen, iragarkiak paratzen hasi ginen eta 30 haur inguru apuntatu ziren. Irailean hasi eta urtarilean gure lehenbiziko kontzertua eman genuen, zazpi kantarekin. Hasieran arras urduri geunden eta beldur haundia genuen... baina aitzinera egin genuen.

**Zuzendarietako bat zara...**

Bai, Kristina ahizpa eta biok hasi ginen hasiera-hasieratik. Guk solfeoagenerik eta, erran dudan bezala, Elizondoko Abesbatza kantatzen genuen. Gure zuzendariak animatu gintuen, eta hortxe gaude orduetik. Ikastaro aunitz egin ditugu eta horretan segitzen

dugu, beti ikasten. Badugu laguntza ere, hor ditugu beti Edurne Biguria, Gurutze Aizpuru, Mari Joxe Alaña, Jexux Baylon, Mertxe Barbero, Jaime Biguria, Amaia Cordoba, Xabi Urtasun, Joanes, Miren, Txomin Atxu... Eta jende gehiago ere badago, beraz, hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu den-denei. Talde ona dugu, dudarik gabe.

**Zein izaten dira zuen egitekoak?**

Lehenik zer kantatu erabaki behar izaten dugu, gero kanta horiek bien artean banatu, ikasi, gure taldera egokitzeko moldatu... Entseguetan Kristina ttikiez arduratzen da, eta haundiekin biek aritzen gara, kantuen arabera. Edurne pianoan izaten dugu beti. Kontzertuak antolatzen eta biak aritzen gara.

**Non eta noiz izaten dituzue entseguak?**

Orain Irurritako Gizarte Bilgunean egiten ditugu asteazkeneko. Batzuetan, kontzertua dugunean, bertze entseguen bat ere egiten dugu.

**Emanaldi bakoitzaren gibelean lan handia dago...**

Bai, egia erran gaztetxoek lan haundia egiten dute: kantak eta letrak ikasi, ahots desberdinak edozein hizkuntzatan, afinazioa, ahotsaren emisioa, mugimendua... Eta horrez gain, emanaldirako tokiak bilatu,

**«GAZTETXOEK LAN HANDIA EGITEN DUTE EMANALDIK PRESTATZEN»**

**«GURETAKO ZIRRARAGARRIA DA PRESTAKETA LAN GUZTIA»**

**«AFINAZIOA, AHOTSAK... ARLO AUNITZ LANTZEN DITUGU»**

bertze taldeekin solastatu, musikariekin kontaktatu, autobusa eta lo egiteko tokia bilatu... behar izaten dugu.

#### **Nola bizi duzue prestaketa hori guztia?**

Guri aunitz gustatzen zaigunez arras gustura aritzen gara. Kristina eta bioi zirrara handia eragiten digu eta batak bertzea kutsatzen du: 'hau egin behar dugu, bertzea egin behar dugu...' aritzen gara. Eta laguntzen digutenek martxa segitzen digute. Gaztetxoak ere gehienetan etortzen dira entseatzera, batzuetan azterketak edo kirola dute eta ezin dute baina gehienetan ez dute huts egiten.

#### **Zenbat kidek osatzen dute Elizondoko abesbatza ttikia?**

Aurten 35 inguru ditugu, koronavirusagatik batzukez dira animatu. Hala ere, laguntza moduan etortzen dira aurten ez dauden gaztetxo batzuk: Alba, Paula, Nahia, Izaro... Eskerrak hauei ere.

#### **Zertan aldatu da hasiera hartatik abesbatzaren martxa?**

Hasieran denak berriak ginen, bai haurrak baita gu ere. Badira gaztetxoak hasiera-hasieratik gurekin daudenak. Horiek aunitz ikasi dute: ahotsaren emisioa, ahots desberdinak egiten, gorputz perkusioa, mugimendua... Beranduago sartzen direnek imitazioz ikasten dute. Beraz, ikasketa aunitzez azkarrago doa. Guk ere ikasi dugunez, kanta zailagoak eta afinatuago egiten ditugu eta soinua hobetuz joan da urteetan. Parte-hartze haundiena, musikala egin eta hurrengo urtean izan zen. Orduan mundu guztia animatu zen. Eromena izan zen, baina zer eromen polita! Ez genuen bertze gauzarik buruan.

#### **Azken urte hau arraro samarra izan da. Zertan eragin dizue?**

Urriari hasi ginen, zenbat denboraz segitzen ahalko genuen jakin gabe. Entseguetako tokia aldatu dugu, gela haundiago

bat bilatu eta distantziak mantendu ahal izateko. Maskara erabiliz kantatzen dugu eta entseguetan ere halaxe aritzen gara. Ez da batere eroso, ez da modu berean aditzen, baina ez dago bertze aukerarik. Gaztetxo batzuk konfinatuak egon dira tarteka, baina nahiko martxa normala izan dugu. Hasieran kontzertu gutiago egin ditugu, baina orain akabaila aldera animatu gara, beti ere arauak errespetatuz. Lehenbiziko hiruhilekoan suabe hasi ginen, EITBra bidaltzeko kanta bat grabatuz, eta Eguberriak baino lehen kontzertua eman genuen. Azken hilabeteetan kontzertuak egin ditugu: Iru-ritan, Elizondon, Urdazubin... Azken horretan bertako eskolako ikasleekin egin genuen saioa.

#### **Ekainaren 25ean eta 26an, dantzariekin batera, emanaldi berezi bat izan zenuten Iru-ritan...**

Bai, dantzaketa kantak, argiak... ikuskizun ederra izan zen. Joan

den urtean saio bakar bat egin ahal izan genuen, baina aurten bi egin ditugu.

#### **Udan bertzerik izanen duzue?**


Udarako momentuz ez dugu deus, koro ttikiak normalean ekain hasieran akitzen baitu... Aurten pixka bat luzatu dugu, baina udan segur aski, deskantsua izanen dugu eta hurrengo ikasturtean bueltatuko gara.

#### **Irailean berri ere izen-ematea irekiko da. Nola animatuko zenuzke parte hartzera?**

Talde batean abestea ederra dela erranen nieke. Arlo aunitz lantzen dira eta, ahal bada behintzat, bertze urteetan egin dugun bezala bidaiak eta irteerak eginen ditugu. Kanta politik ateratzen direnean ongi sentitzen gara. Nahiz eta kanta batzuk ikastea kosta egiten den, emaitzak merezi du, zenbat eta zailagoa izan orduan eta gehiago. Kantatzea gustuko baduzue, etorri, probatu eta gero erabakitzeko aukera izanen duzue.

# ALMACO BAZTAN

GRUP **GAMMA**



*udako  
gauza berriak ditugu,  
zure estilora  
egokitzen gara!*

**T. 948 580 104**

Errepide nagusia 93, Elizondo  
[www.almacobaztan.com](http://www.almacobaztan.com)

# Eskola ttikietako ikasleak Iruritan biltzeko eskatu dute

Ikasleek asteazkeneko tailer horiek «merezi eta behar» dituztela aldarrikatu dute guraso elkarteek

## TTIPI-TTAPA

Baztango Eskola Ttikietako 4., 5. eta 6. mailako ikasleek urteak daramatzate asteazkenetan Iruritan bildu eta tailerrak egiten. Musika, ingelesa, gorputz heziketa eta bertzelako ikasgaiak lantzeko elkartzen dira haurrak, baina baita bertze hurrekin harremantzeko eta «euren behar psikologiko, sozial eta emozionalak asetzeko». Izan ere, «herrietako eskolen maila bakoitzean ikasle bakarra dago maiz. Beraz, Iruritako saioak dira beren adineko jendea ezagutzeko bidea».

Aurten, Hezkuntza Departamentuak 2021/22 ikasturterako tailer hauek bertan behera uztea erabaki du. Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Irurita, Urdazubi eta Zugarramurdiko Guraso Elkarteek

**«TAILERREK BEHAR SOZIAL ETA EMOZIONALAK ERE ASETZEN DITUZTE»**

«erabakia berrikusi dezala» eskatu diote Hezkuntza Departamentuari, «bilera zuzenak eskatuz eta herritarren firma bilketa eginez». Jasotako erantzuna honakoa izan da: «ez da eskola berean ikasten ez duten ikasleak nahasten dituen jarduerarik eginen».

## Neurriak betez

Ikasturte honetan «protokoloak zorrotz bete eta eskola kutsaketak saihestu» dituztela adierazi dute. Gehiago ere bada. Udalekuak eta eskolaz kanpoko ekintzak abiatu dituztela oroitarazi dute, «hainbat herritako haurren parte-hartzearekin». Honez gain, hurrengo kurtsorako «biztanleriaren %70a eta irakasleriaren %100a txertatuta egonena dela» gaineratu dute.

Aurten haurrek «murrizketa gogorak jasan behar izan dituzte: musukoak, eskola patio debekuak, jolas parkeak itxita...». Hortaz, Baztango Eskola Ttikietako haurrek Iruritako tailerrak «merezi eta behar» dituztela aldarrikatu dute, «neurriak betez, doike».



J. INZIARTE

## Terra, emanaldi ederra

Iruritako dantzariak eta abesbatza ttikiak antolatutako *Terra* emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten ekainaren 25ean Iruritan. Euriagatik bertan behera utzi behar izan zuten bertze emanaldia eta orai, uztailaren 30ean, ortziralearekin, 19:00etan eta 22:00etan bi saio egingen dituzte.



ONDIKOL

## Asier Lizartzari agurra

Hogei urtez Baztan Kirol Elkartearen futbolearen aritu den Asier Lizartzari arizkundarrari 'aio' erran dio taldeak. Opari eta besarkada artean agurtu zuten «jokalari zintzo eta borrokalaria, gure harrobiko neska-mutilentzat eredu izan dena».

## MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK  
PANTEONAK  
KANPOSANTUAK  
HARRI LANAK  
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

**TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**

Jarrai gaitzazu!

**facebook**

www.facebook.com/ttapi.ttapa

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



# Juan Miguel Gil zirujaua omendu dute Elizondon

Elizondoarra sortzez, Madrilgo Gregorio Marañon ospitalean haurren bihotz-kirurgia saileko burua da medikua

## TTIPI-TTAPA

Madrilgo Gregorio Marañon ospitalean haur kardiologian Juan Miguel Gil Jaurenak egindako lan guztia aintzatetsi zuen Elizondoko herriak uztailearen 3an egin zion omenaldian.

Hasiera batean Arizkunenea Kultur etxean egin behar bazuten ere, ttiki geldituko zelakoan, Iriarte pilotalekura mugitu zuten omenaldia. Bertan, herriko jendeaz gain, Gilen pazienteak izandako haur eta gazteak ere bildu ziren. Madrilgo Gregorio Marañon ospitalean haurren bihotz-kirurgia saileko burua da Gil.

Aitor Bazterrika alkateak eskerrak eman zizkion egindako lanarengatik, eta hainbat opari eman zizkieten, tartean Baztango bandera. Gainera, aurrekoa dantzatu zuten Elizondoko hiru dantzarik.

Akitzeko, Gilek bere esker ona eman zien familia, lagun, maisu eta bertze hainbertze jenderi eta bere lehenbiziko mediku lanak oroitarazi zituen Don Eusebio Urrutiarekin, Elizondoko medikua izan zena.

## Baztango artisauen azokak uztaileko larunbatetan

Uztailearen 17an, 24an eta 31n Baztango artisauak eta Baztango zapoak elkarrekin antolatutako azokak izanen dira Elizondoko plazan. 10:00etatik 14:00etara plazan paratuko dituzte postuak eta bertan erosteko aukera izanen du bertaratzen den orok.



Elizondon sortutako Juan Miguel Gil senideekin, omenaldian. JUAN MARI ONDIKOL

INBERTSIO-FUNTSAK

## Zure izenaz deitzen zaitugu

Rural Kutxan, badakigu nola deitzen zaren eta zer behar duzun.

**Marcela**

MARCELA IRURAKO  
LIBURU-DENDA BATEN JABEA DA

Horregatik, zure izaerara eta gauzak egiteko zure modura hobekien egokitzen den inbertsio-funtsa eskain diezazukegu.

**Zure izenera.**

**CAJA RURAL DE NAVARRA**

Inbertsio-funtsetan, ez inbertitutako kapitala, ez errentagarritasuna ez daude bermatuta. Funtsetan egindako inbertsioen balioa merkatuaren gorabeheren mende dago.

Informazio hau komertziala da, eta ez da inolaz ere eskainiza. Harpidetza-gomendioa edo inbertsio-erako finantza aholkularitza. Bertan dagoen informazioak ez du ordenatzen inbertsioari buruzko erabakia hartu aurretik kontsultatu beharreko legeriko dokumentazioa. Funtsen liburutak eta inbertitzailearentzako funtsario datuak fitzen dituen dokumentua Rural Kutxako bulegoetan, [ruralkutxa.com](http://ruralkutxa.com) helbidean eta CNMV-n kontsultatu daitezke. Kudeatzailea: GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C. Gorkaizua: Banco Cooperativo Español.

# Tunelak bikoizteko proiektua baztertzea eskatu du Almandozek

143 herritarrek proiektuaren kontra sinatu dute, Mendiolako auzokideak «arras isolatuak» geldituko direlako

## TTIPI-TTAPA

Belate eta Almandozko tunelen bikoiztearen aurre-proiektuak kanpoan uzten du Mendiolik N-121-A errepidera dagoen sarrera, «auzokideak San Blas bentatik eta Belateko gainetik pasatzera derrigortzen dituen». Aurre-proiektuaren kontrako alegazioa aurkeztu zuen ekainaren 29an Pello Sarratea Almandozko alkateak Elizondoko Abeltzaintzako Departamentuan. Herriko alkateaz gain, «Baztango alkateak, Joseba Otondok, udal gobernua ordezkatuz sinatu zuen, baita oposizioko zinegotzi guztiek ere». 143 sinadura bildu dituzte herrian, «herritarrenak eta kaltetuak diren bizilagunenak, bide horretatik pasatzen direnak». Sarrateak dioenez, udako egoeraren arabera, «mantso-

xeago edo agudoxeago, erantzunen bat espero dugu».

Herritarrek salatu dutenez, «gaur egun dugun zerbitzu bat da, hortaz, lotura zuzen hori mantentzea eskatzen dugu. Errepide nazional bat izanik, Nafarroako Gobernua orain arteko zerbitzuak mantentzera eta leheneratzera behartuta dago, baina behin ere ez makurtzera edo kentzera».

12 baserri eta etxebizitza ditu Mendiola auzoak. Oinarrizko zerbitzu guztiak auzotik kanpo dituzte eta «ezinbertzekoa da etengabe atera edo sartu behar izatea. Badira eskolara joan behar duten haur tikiak edo medikuarengana joan beharra duen adineko jendea». Errepiderako lotura kenduta, Belateko portutik egin beharko lukete itzulia egunero, denbora eta distantzia nabarmen handituz.



ZALDUA

## Sendotzak izan dira Almandozen

Aizaroz Larroquek, Iker Sagardiak, Ioritz Mitxeok, Oier Arozenak eta Lorea Agirrek uztailaren 4an, hilabeteko lehen igandean, sendotza egin zuten Almandozko elizan. Argazkian sendotza egin zutenak Francisco Perez Iruñeko artzapezpikuarekin eta Ramon Apezetxea apezarekin.

# Ikaburuko lezearen eguna ospatuko dute uztailaren 17an

Joan nahi dutenek alde zurrerak erreserbatu beharko dituzte web orrialdearen bidez edo telefonoz deituz

## ARANTXA ETA IRAIA

Heldu den larunbatean, uztailaren 17an, Ikaburuko lezearen eguna ospatuko dute. Urtero bezala egitarau zabala prestatu dute seinalea egiteko.

## Egitaraua

Goizean, 11:00etatik 14:00etara hainbat tailer izanen dituzte eta historiaurreko bizitza-tekniken erakustaldia egingen dute, Iñaki Libanoren, Edestiaurre Arkeologia Elkarteko presidentearen, eskutik. Aldi berean, 11:00etatik 18:00etara artisau azoka izanen da leze inguruan. Arratsaldean, 15:00etatik 18:00etara, txalaparta tailerra emanen dute eta 16:00etatik 18:00etara magia ikuskizuna. Gainera, 17:00etan, artisau produktuez betetako saski baten zozketa egingen dute. Lezearen sarreran txalaparta

erakustaldiaz gozatuko du bertaratzen den orok.

Joateko asmoa dutenek go-goan izan behar dute lezearen sarrerak lehenagotik erreserbatu behar direla 948 59 92 41 telefonora deituz edo [cueva-surdax.com](http://cueva-surdax.com) web orrialdearen bidez jakinaraziz.

## Teileria auzoko Aitaxonea etxea hustu da

Zoritzarrez Teileria auzoko Aitaxonea etxeko azken bizilaguna zendu zen uztailaren 2an. Patxiko herrian arras ezaguna zen eta 82 urte zituela hil zen. Honekin, herrian bertze etxe bat hutsik gelditu da. Pena da herri osoarentzat, bereziki auzoko guztientzat.



ONDIKOL

## Txarrantxetako iturria berritu dute

Hainbat herritar bildu ziren Txarrantxetako iturria eta bide bazterra berritzeko uztailaren 1ean egin zuten auzolanean. Iturria konpontzeaz gain, ondoko lurrak, bide bazterra eta zubia ere garbitu eta txukundu zituzten. Mila esker herriaren alde egindako lanagatik!



Asteazkenetan itxiko dute.

## Herriko Marixan ostatua berriz ireki dute

Duela gutti arte plazan lau ostatu izatetik bakar bat izaterat pasatuak ziren

### MARIFA ETA KORO

Berri arras ona izan dugu uztaile hasieran. Lehenbiziko ortziraleaz geroztik, hau da, uztailearen 2tik, herriko Marixan ostatua berriz irekita dago. Lehenbiziko erabakia guztiz hestea izan bazen ere, familiako ostatuarekin segitzera animatu da Ainara Ariztegi eta erabaki hori Zugarramurdiko herritarrek txalo artean hartu dute.

### Lehenengo martxa

Ainarak bere *ixoa* zuen gisan eskainiko du zerbitzua, aldaketa ttiki batzuekin: itxiera

eguna asteazkena izanen da hemendik aitzinera. Gainerako egunetan 11:00etan irekiko dute eta gauera arte irekita egonen da. Ogitartekorik ez du emanen, baina pintxoak eta errazioak aukeran izanen dira orain.

### Ostatuak berriz irekitzen

Duela gutti arte plazan lau ostatu izatetik, ostatu bakarrrerat pasatuak ginen. Orain, berriz ere, bi ditugu, eta luze gabe Herriko Etxeko moldaketen ondotik, hirugarrena berreskuratzea espero dute la nabarmendu dute.



Harremanak jubilotekakoek opilak saldu zituzten selairu hustean. MARIFA ETA KORO

## Selairu hustea egin dute uztaileko lehen asteburuan herrian

### MARIFA ETA KORO

Herritar batzuen artean antolatutarik, uztailearen 3an eta 4an, lehenbiziko asteburuan, seilari husteko merkatu ttiki bat izan zen. Batzuek etxean zituzten sobrak atera zituzten, eta bertze batzuek gauza politak prezio politean hartze-ko aukera izan zuten.

Harremanak jubilotekako kideek ere giroa animatu zuten, selairu hustera joan zirenendako jatekoa eta edatekoa prestatzen aritu baitziren. Jo eta ke aritu ziren opilak egin eta saltzen eta, horrez gain, sagarno tragoa ere oparitu zieten bertaratu zirenei.

### Xaretako hiztegia

- **Ixo:** lzeba.
- **Kirikatu:** Begiratzea, bertzeek ikusi gabe. Zelatatu.
- **Karraskan:** ahotsa moteltzea zinturreko minagatik.
- **Mindulina:** pertsona mainuntzia edo sinplea.
- **Motza:** Emaztekien sexu-organoa. Alua.

## Orain arte landetxea zen errota errentan emateko etxebizitza da orain

### MARIFA ETA KORO

Orain arte landetxe bezala eskaintzen zen errota, laister errentan emateko etxebizitza izanen da. Horretara egokitze-ko, moldaketa batzuk egin behar izan ditu Herriko Etxeak, batez ere lehenbiziko pisuan, sukaldeta eta egongela haunditzeko.

Horretaz gain, terraza estali da, eta den-dena pintatu dute. Altxariz hornituta eskainiko dute. Oraindik sukaldetan lan ttikiren bat bukatzeko falta da, baina laister eskeintza ateratzea espero dute. Interesa dutenek, Herriko Etxean eskaera egin beharko dute.



JATETXEA • ERRETEGIA

@asadormontxo

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

Etxera eramateko aukera







Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21

# Gazteen literaturak ere lekua izanen du Idazleen Biltzarrean

Urriaren 8an eta 9an Ikusi Mikusi Azoka egingen dute eta urriaren 10ean eta 11n egile eta profesionalentzako biltzarra

## GANEX

Aurten ere izanen dugu Idazleen Biltzarra eta ohi baino egitarau zabalagoarekin gainera, lau egunez egingen baita. Urriaren 8an, ortziralez, eta 9an, larunbatez, Ikusi Mikusi Haur eta Gazte Literatura Azoka egingen dute. Amaia Hennebutteren hitzetan gazteen literatura euskaraz jakinarazteko hiru elkarte bildu dira: Kiribil Iparraldean, Pamiela Nafarroan eta Galtzagorri Gipuzkoan. Beraz, plataforma hori egingen dute haur eta familiendako, Lur Berri gelan, Keinu Taberna gelan eta plaza.

Urriaren 10ean, igandean, Idazleen Biltzarra egingen dute egileendako, usaian bezala kiroldegan, eta urriaren 11n, astelehenean, profesionalendako. Espero dute aurten, orai



Amaia Hennebutte aurkezpenean.

bezala baldin bada, pandemiarengatik arazorik gabe egiten ahalko dutela.

## Erakusketak

Daniel Jallaisek, Atxuri arte elkartearen laguntzarekin, argazki erakusketa antolatu du Keinu Denda gelan, uztailearen 9tik 18ra (10:00-12:00 eta 14:00-18:00).

Larrungo kolore elkarteko margolariek, berriz, erakusketa egingen dute uztailearen 26tik abuztuaren 4ra arte.



UTZITAKOA

## Basurdeek Euskal Liga irabazi dute

Animainea errugbi-zelaian jokatu zuten Euskal Ligako finala ekainaren 26an Sarako Izarrak eta Durangoko Errugbi Taldeak. Sarako basurdeek lortu zuten garaipena (22-14). Durangoko taldeko kapitainak trofeoa Sarako Michel Bertisbereari eman zion eta ederki ospatu zuten mutilek.



Sébastien eta Evelyne Tapiak, bestetan lanean. JL BESSONART

## 31 urteren ondotik Gantxiki ostatua utzi dute Sébastien eta Evelyne Tapiak

### JEAN LOUIS BESSONART

Bestetako astelehenak eman du Sébastien eta Evelyne Tapiaren abenturari amaiera, emozioz beterik dudarik gabe. 31 urte iraganik ostatuan, jendeen zerbitzu lanetan, beti zintzoki, ele goxoak erabiliz, diskrezio handiarekin baita garbitasun aipagarria erakutsiz ere. Ehunka kide pasatu dira Gantxikitik, bai pilotan, bai tenisean edo eskubaloian aritzeko, belaunaldi guzietakoak, ostatu hori elkarbizitzako sehaska bilakatua zen. Sébastienek bereziki ahal zuen aldiro euskaraz solas egiten zuen,

zoritzarrez, herriko saltegieta guti entzuten baitugu gure ama hizkuntza. Milaka anekdota izanen dituzte kontatzeko. Pilotaren inguruan, erraterako, bereziki Munduko txapelketak iragan zirelarik, baita errugbi taldearen egonaldiak ere.

Orain erretiraren ordua jinda, Céline alaba eta honen bi mutiko ttipiekin gozatzeko astia ukanen dute. Sébastienek, bere aldetik, lasterka edo oinez ibiltzeko pasioajarraikitzen ahalko dio eta Euskal Herriko gastronomia hurbilagotik probatzeko aukera ere izanen dute.

## Hatsaren Poesiaren Eguna arrakastatsua izan da aurten ere

Hatsaren Poesiaren Eguna ospatu zuten ekainaren 13an Larraldearen gerizan. 30 lagun bildu ziren. Aitortzekoa da, partehartzaileen artean Hegoaldetik jende gehiago jin zela, Iparraldekoen aldean. Aurten go 33. liburuan, 113 idazle parte hartu dute. Aurkezpenaren ondotik, aperitifia eta bazkaria izan zuten. Arratsaldean, olerki irakurketa eta kantuak izan zituzten. Auxtin Zamorak erakusketa berezi bat proposatu zuen, dena poesia. Aurten goa finitu ordu, hurrengoari begira daude, dudarik gabe.

## Beatrice Uria opera kantaria elizan uztailearen 28an

Kultur ekintzak pixkanaka bueltan dira. Cuarteto Taff eta Trio Apasionat taldeek Larrekon emandako kontzertuen ondotik, uztailearen 28an, asteazkenean 21:00etan kantaldia eskainiko du Beatrice Uria Monzon opera abeslari ezagunak Saint Pierre elizan (sartzea: 20 euro). Frantziako oholtza handienetan aritu eta gero, Buenos Airesen, Miamin, Turinen, Veronan, Vienan, New Yorken, Munichen, Madrilan, Bartzelonan, Venezian... kantatu du Frantziako opera abeslari ezagunenetakoa denak.

**Ttipi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

~%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**785** zenbakiko irabazleak >

**ttipi txartela**

Josune Sorondo Odriozola

72673152-A

epemuga 2023/04

Zk. 372

ttipi-ttapa

fundazioa

**ZOZKETAK**

**Donostiako aquariuma - Bi sarrera**  
Pili Etxeberria Madariaga | ARANTZA  
**Onddo Ta Punto - Kamiseta bat**  
Arantxa Zaldain Maisterrena | ELIZONDO  
**La Rhune - Sarrera bat**  
Jose Mari Hernandez Lastiri | SUNBILLA  
**Giltxaurdi kiroldegia - Sarrera bat**  
Tere Berho Iriarte | ORONOZ-MUGAIRI  
**Irrisarri Land - Sarrera bat**  
Joan Mari Beloki Kortexarena | LEITZA  
**Baztan Escape Room - Sarrera bat**  
Ainara Aranburu Madariaga | LEGASA  
**Katxiporreta - Bi liburu**  
Araceli Molinero Ugalde | BERA  
**Katxiporreta - Bi liburu**  
M<sup>a</sup> Pilar Altzugarai Larralde | LESAKA

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



Bi sarrera

**BUATXABAL**

[www.buatxabal.com](http://www.buatxabal.com)



Kamiseta bat

**LA RHUNE**

[www.rhune.com/eu](http://www.rhune.com/eu)



Sarrera bat

**ZUGARRAMURDIKO LEZEA**

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)



Sarrera bat

**BKZ ABENTURA**

[www.navarraaventura.com](http://www.navarraaventura.com)



Sarrera bat

**ARKUPE**

[www.arkupegozotegia.com](http://www.arkupegozotegia.com)



Lote bat

**LI  
BU  
RU  
AK**



Euskal Kantagintza Berria,  
Pako Aristi



Olivetti, Aitziber Etxeberria



[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.txalaparta.eus](http://www.txalaparta.eus)



[www.martiko.com](http://www.martiko.com)



Euskal Herriko I. Disc Golf Txapelketako txapeldunak eta podiora igo ziren kirolariak IrriSarrin. UTZITAKOA

## Euskal Herriko lehen Disc Golf txapelak Igantzin eman dituzte

Jon Hedreida eta Vilja Hulden izan dira kategoría nagusietako lehen txapeldunak ekainaren 26an IrriSarri Landen

### TTIPI-TTAPA | IGANTZI

Igantzioko IrriSarri Landeko disc golf zelaian Euskal Herriko 1. Disc Golf Txapelketa jokatu zuten ekainaren 26an. 27 jokalarit aritu ziren, batzuk bezperatik zelaia ezagutzera etorriak, bortz kategorietan banatuak: MA1 (gizonezkoak), FA1 (emakumezkoen), MJ18 (18 urtez behe-itikoak), MA40 (40 urte edo gehiagokoak) eta MA50 (50 urte edo gehiagokoak). Baxi Bajasauna Disc Golf Elkarteak eta IrriSarri Land, Euskadisc Golf, Zona DiscGolf eta Discmania disko-markak antolatutako Euskal Herriko lehen txapelketa honetan Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko jokalariek parte hartu zuten, bi txandatan (goizean eta arratsaldean).

Bederatzi urte dituen Bilbao Disc Golf Clubeko Alberto Lopez, Tarnos Disc Golf Clubeko Kristine Sanchez eta Baxi Basajaun Elkarteak Mikel Ibarrola doneztebarra izan ziren jokalarit helduenak. Duela urte

### SAILKAPENAK

#### FA1 (EMAKUMEAK)

1. Vilja HULDEN 111 (+3)
2. Kristine SANCHEZ

#### MA1 (GIZONEZKOAK)

1. Jon HEDREIDA 98 (-10)
2. Kristopher VAN BOGELEN 102 (-6)
3. Mans HULDEN 103 (-5)

#### MJ 18 (18 URTEZ BEHEITI)

1. Aidan YOUNG 101 (-7)
2. Beñat LOPEZ

#### MA 40 (40 URTEZ GOITI)

1. Calixto GARCIA 116 (+8)
2. Txobo VILLACIDES 118 (+10)
3. Hal MATTER 119 (+11)

#### MA 50 (50 URTEZ GOITI)

1. Sean YOUNG 102 (-6)
2. Mikel IBARROLA (Baxi) 120 (+12)
2. Iñaki GONZALEZ (Baxi) 120 (+12)
3. Jose ROUGET (Baxi) 121 (+13)



MA50 kategoríako podioa.

dezentetik Euskal Herrian bizi diren (txapela janzteko aukerarekin, beraz) bertze herrialde batzuetako jokalarit ere izan ziren Igantzin, hala nola, Vilja eta Mans Hulden Donostiatik etorritako finlandiarrak, Kristopher Van Bogel euskaldun bizkaitarra, edo Sean Young eta bere semeak, Aidan eta Nola Young Zabala, sortzez irlandarrak. Gonbidatu gisa parte hartu zuten Artaxoan bizi den Nail Graefe estatubatuarra eta Donatello Castellana kantabriarrak, bertzeak bertze. Txapelketarako IrriSarri Land zelaia 18 saski eta 54 jaurtiketako handicap bat ditu (saski guztiak PAR3koak izanik). Desnibelagatik eta teknikoki zelai gogorra da, bere baso eta maldengatik.

### Uztailean Donezteben eta irailan Espainiako I. Disc Golf Kopako proba IrriSarri

Uztailearen 31n, Doneztebeko Udalak txapelketa bat antolatuko du Intzakardi parkean dagoen hiru saskiko bere zelaian, disk golfa ezagutarazi eta herritarren artean aire zabaleko kirol-jarduera gisa sustatzeko. Bertan, teknika, arreta, jokalarien arteko errespetua eta ingurumena landuko dituzte, baita adin guztietarako egokia den ongizate fisikoa ere.

Irailan, berriz, Disc Golfe Espainiako I. Kopa osatzen duten bortz probetako bat hartuko du IrriSarri Landek.

## Bortz talde hasiak dira gaztetxoek Baztan-Errekako laxoa txapelketan

### TTIPI-TTAPA

Uztailearen 1ean hasi zen Baztan-Errekako gaztetxoek laxoa txapelketa. Ikasturte honetan Iruritako eta Doneztebeko laxoa eskoletan ibili diren jokalarit ari dira, bortz taldeetan banatuak. Finala abuztuaren 6an jokatuko dute Arraiozko plazan.

Bortz talde hauek hasiak dira lehian: **Doneztebe A** (Jon Larunbe, Javier Zabala, Iker Anzizar eta Ibai Elizondo), **Doneztebe B** (Urtzi Mendiburu, Asier Agesta, Markel Pikabea, Beñat Iribarren eta Joel Maylin), **Doneztebe C** (Koteto Ezkurra, Lander Arozena, Lukas Ezkurra eta Ekai Elortza), **Irurita A** (Kaiet Iribarren, Julen Elizaintzin, Aitor Ripa, Oier Ibañez eta Aimar Dean) eta **Irurita B** (Izai Urrutia, Eneko Irazoki, Mikel Iñarra eta Oihan Arraztoa).

Ligaxkako partidak zazpi jokatara jokatuko dituzte eta finala, berriz, bederatzi jokatara.

### Helduak azken txanpan

Baztan-Errekako 41. Laxoa Txapelketa nagusia, bere aldetik, azken txanpan sartua da. Zuzen bidean, datozen bi asteburutan jokatuko dituzte finalerdiak. Batean, Arraioz Sagardia eta Oiz ariko dira final-laurdenetan Doneztebe Ametzia eta Irurita Olari kanporatu ondotik. Bertze finalerdian, Irurita Miguelenek (final-laurdenetan Doneztebe Titi menderatu zuen, nahiz txapelketa honetako lehen partida galdu) Doneztebeko bertze talde bat izanen du aurretiko (hau idazterakoan, oraindik jokatzea dute Apezteguia eta The Moment taldeek final-laurdenetako itzulerakoa). Irabazleek abuztuaren 7an jokatuko dute finala Arraiozen.



Lehen aldiz maila autonomikoan ariko da Doneztebe Futbol Taldea, igoera lortu ondotik. FOTO ZALDUA



# Maila Autonomikora igo da Doneztebe Futbol Taldea

Hirugarren mailatik kategoría horretara jautsi da Baztan, baina multzo ezberdinetan suertatu dira datorren denboraldian

## TTIPI-TTAPA

Ekaineko azken larunbatean lortu zuen Doneztebe Futbol Talde nagusiak lehen aldiz Nafarroako Maila Autonomikora igozea. Bigarren postua segurtatu beharra zuen hon-

darreko jardunaldi horretan, baina lanak aitzineratuak zitu- en: hirugarren zen Amigó taldeak baino hiru puntu gehiago zituen eta sei goleko aldea. Beraz, Ardoi B taldearen kontrako partidari berdinketa

aski zuen eta galduta ere, Amigók gol alde horri buelta eman behar zion. Ez bata ezta bertzea ere ez zen gertatu. Doneztebek ez zuen hutsik egin eta 0-3 irabazi zuen Zizurren, Beñat Migeltorena, Xabi Erasun eta Ander Arbilla- ren golekina. Beraz, lehen aldiz Maila Autonomikoan ariko da Doneztebe datorren denboraldian, duela hiru urte Preferentera igozea lortu ondotik. Zoritxarrez hirugarren mailatik jautsi den Baztan Futbol Taldea ere kategoría berean ariko da, baina lehen fasean behinik behin, multzo ezberdinetan ariko dira eta ez da derbirik izanen.

## MAILA AUTONOMIKORA IGOERA

Oier ALDABE ERDOZAIN	DONEZTEBE
Ander ARBILLA ZABALA	LARRAINTZAR
Borja ARREGI MUÑOZ	DONEZTEBE
Xabier ERASUN ELIZONDO	DONEZTEBE
Fermin ESTANGA SANTESTEBAN	DONEZTEBE
Adrian GOÑI MIRANDA	IRUÑEA
Sergio LARRAINZAR ERIZE	ELTZO
Aitor LARUNBE MINDEGIA	BURLATA
Aimar LEATXE PORTILLO	DONAMARIA
Ibon LEIZA GARRIDO	DONEZTEBE
Xabier MARIEZKURRENA SOROZABALSUNB.	
Iñaki MAYLIN EZKURRA	DONEZTEBE
Beñat MIGELTORENA MARITXALAR DONAM.	
Javier OSTIZ ESCALADA	DONEZTEBE
Mikel RETEGI URROZ	DONEZTEBE
Julen RETEGI URROZ	DONEZTEBE
Jaime SEIN OSINAGA	DONEZTEBE
Jon SEIN OSINAGA	DONEZTEBE
Lamine SOLLY	IRUÑEA
Iñigo ZUBIRI ZIAURRIZ	IRUÑEA
Aimar ZESTAU CASTRO	DONEZTEBE
Irail ZESTAU CASTRO	DONEZTEBE

## Entrenatzaileak:

Ruben ALVAREZ MARTINEZ	ZIZUR
Garikoitz URROZ GELBENZU	DONEZTEBE

# WIKAI

HEMENGOAK GARA,  
ZUREKIN GAUDE.

ABIADURA BIZIAN NABIGATU  
GURE INTERNET ZERBITZUAREKIN

ESKATU INFORMAZIO GEHIO:

948 030 500

%50  
 DESKONTUA ALTA  
 BERRIENTZAKO.  
 DEITU ORAIN!

BAITA ZURE  
 BASERRIAN ERE!

Nafarroan komunikazio sarerik handiena eraikitzen ari gara, konexiorik onena zure etxeraino edo enpresaraino eramateko. Iruñean gaude, eta laguntza tekniko eskaintzen dugu urteko egun guztietan goizeko 8.00etatik goizeko 10.00ak arte.

f
t
@
in

[info@wikai.es](mailto:info@wikai.es) | 948 030 500 | [www.wikai.es](http://www.wikai.es)

## UZTAILAK 15 - 29

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



TXAMUKOS

### LEITZA Txamukos mariatxien kontzertua

Kultur agendaren barne hainbat ekitaldi izanen dituzte.  
Uztailaren 17an, 22:00etan.

### KONTZERTUAK

#### ARANTZA Satelitik

Aterpean, uztailaren 17an,  
19:30ean.

#### Gregorio, Beñat eta Andoni Mitzelena akordeoilariak

Aterpean, uztailaren 24an,  
14:00etan.

#### Joseba Irazoki eta Rüdiger

Aterpean, uztailaren 31n,  
19:30ean.

#### Estitxu Pinatxo

Aterpean, abuztuaren 1ean,  
12:00etan.

#### DONEZTEBE Trikidantz taldea

Santa Luzia plazan (euria eginez  
gero Ezkurra frontoian),  
uztailaren 17an, 19:00etan.

#### LEITZA Txamukos mariatxien kontzertua

Uztailaren 17an, 22:00etan.

#### Modus operandi

Uztailaren 31n, 22:00etan.

#### DONAMARIA Trikidantz taldea

Plazan, uztailaren 31n,  
19:00etan.

#### LESAKA Mice taldearen kontzertua

Plaza Zaharrean, uztailaren  
16an, 19:00etan.

#### Xabi Solano eta Zigor DZ kontzertua

Irubide atarian, uztailaren 29an,  
19:30ean.

### TAILERRAK

#### GOIZUETA Clown ikastaroa

Uztailaren 17an eta 18an,  
larunbatean 10:00etatik  
14:00etara eta 16:00etatik  
20:00etara eta igandean goizez.

#### Ur txirrista

Uztailaren 17an, 15:00etatik  
19:00etara.

#### LEITZA Tobogana

Joandegiko aldapan, uztailaren  
24an, goizez eta arratsaldez.

#### DONEZTEBE Udako kirol eskola

Uztailaren 26tik abuztuaren 20ra.

#### LESAKA Sormen ginkana

Biurranan, uztailaren 30ean,  
18:00etan.

### IKUSKIZUNAK

#### DONEZTEBE 'Euskañolitis'

Uztailaren 18an.

#### BERA Kantu Kolore 'Ametsen urtebetetzea'

Altzateko plazan, uztailaren  
18an, 19:00etan.

#### LEITZA Herri kirol saioa

Plazan, abuztuaren 1ean,  
12:00etan.

### ERAKUSKETA

#### ELIZONDO Iñaki Beorlegiren pintura erakusketa

Uztailaren 31ra arte,  
asteartetik ortzegunera  
18:00etatik 21:00etara eta  
ortziraletik igandera  
11:00etatik 14:00etara eta  
17:00etatik 21:00etara.

#### BERA Espresio transitorioak

Kultur etxean, uztailaren 22ra  
arte asteartetik igandera,  
10:00etatik 14:00etara eta  
15:00etatik 18:00etara  
(igandetan goizez bakarrik).

#### Armi pintura eta eskultura erakusketa

Suspela auzoan, 1A, 10:30etik  
13:30era eta 16:00etatik  
19:30era.

#### LESAKA Arte erakusketa: ikastolako ikasle izanak

Komentuan, uztailaren 25era  
arte, 16:00etatik 20:00etara.

### BERTSOA

#### ITUREN Bertso bazkaria

Herriko ostatuan, uztailaren  
17an, 18:30ean.

#### LESAKA Bertso saioa

Plaza Zaharrean, uztailaren  
18an, 19:00etan.

### AZOKAK

#### ELIZONDO Baztango artisauak eta Baztango zaporeak

Plazan, uztailaren 17an, 24an  
eta 31n.



Nire aukera

## «Gaztetxoek gustuen arabera egokituko dut Udako Kirol Eskola»

IÑIGO OSKOZ GAGO DONEZTEBEKO GAZTEA



Egunean egunekoa bizi duen gaztea da Iñigo Oskoz Gago (Doneztebe, 1996). Lagunekin egotea eta kirola ditu zaletasun eta horixe da gehien egiten duena: «kirola, lagunekin garagardotxo bat hartu, ilobari bisita egin...». Mendia, bizikleta, frontenisa... aunitz dira gorputza mugiarazteko dituen moduak baina, horrez gain, «musika aditzea, telesailak ikustea edota liburu interesgarriak irakurtzea» ere gustatzen zaio.

### Errekan urte andana

Aspalditik Erreka Kirol Elkarteak kidea da Oskoz eta, tartean, Atarrabiako Beti Onak taldean ere ibilia den arren, urte gehien-gehienak herriko taldean egin ditu: «zortzi-hamar urte nituela sartu nintzen Errekan eta Atarrabian egindako lau urteak salbu,

gainerako guztiak Errekan jokatu ditut». Eskubaloiaz gain, futbola ere probatua du doneztebe gazteak: «zortzi urterekin hasita Batxillergoko bigarren mailara arte biak uztartu nituen». Aukeratu beharrak eraman zuen eskubaloian segitzera eta gaur egun horretan bakarrik ari da.

### Hurrengo denboraldirako gogotsu

Aurtengoa, denboraldi «arra-roa» izan da eskubalo taldeko guztiendako: «egoera kontuan hartuz ez parte hartzea erabaki genuen eta gutxi-

**«JOKOAK EZ EZIK GAZTETXOekin ATERALDIK ERE EGIN NAHI DITUT»**

naka hamar bat taldekide entrenatzen hasi ginen». Entrenamenduak bai baina partidarik jokatu gabe egin dute aitzinera. Eta, orain, atseden hartzeko tenorean daude: «gaztetxoek eta seniorek ikasturtearekin batera entrenamenduak uzten ditugu. Denboraldi-aurrea abuztu erditsuan hasiko dugu».

Jendea «gogotsu» ikusten duenez, hurrengo denboraldia ere halakoa izatea espero du: «azken urteak arrunt politikak izan dira guretako. Taldeak baja garrantzitsuak izan ditu, baina gelditu garenekin eta indartsu heldu diren gazteekin hurrengo denboraldirako talde polita izanen dugula uste dut. Borrokarako prest gaude behintzat!» dio irri artean.

### Udako Kirol Eskola, gozamina eta kirola

Kirola du afizio, eta kirola izan nahi du ofizio. Hortaz, Lehen Hezkuntzako Heziketa Fisikoko ikasketak egin ditu Oskozek. Horri eta Errekarekin duen loturari esker, uda honetan, bere ikasketekin lotutako lana izanen du. Errekak antolatutako Udako Kirol Eskolaren arduradun izanen da aurtun: «Joseba Legarrak proposatu zidan eta, kontu hauek ikaragarri gustatzen zaizkidanez, berehala baiezkotzea eman nion, kontent gainera!».

Uztailaren 26tik abuztuaren 20ra bitarteko eskolara begira ideia andana ditu eta gogoz dago gaztea: «Kiroldegian eta frontoian egin daitezkeen kirol anitzez gain, jolas eta joko aunitz egin nahiko nituzke, baita bizikletaz, patinekin

**«GARENEKIN ETA HELDU DIRENEKIN TALDE POLITA OSATU DUGU»**

edo oinez ateralditxoren bat ere».

Saioak «gaztetxoek nahien edo gustuen arabera» egokitze asmoa du: «antolakuntzaren aldetik nahiko irekia izatea gustatzen zait, ttikiek horrela gehiago disfrutatzen dutela iruditzen zaidalako». Gehiago ere bada: «eguraldi ona dagoenean jarduerak kanpoan egiten ditugu».

### Izen-ematea eta taldekatzeak

Sei eta hamabi urte bitarteko gazteekin bilduko da Oskoz eta taldeak «adinarekin arabera» egiten dituzte: «jarduerak eta kirolak euren beharretara egokituz». Hala ere, oraindik ez daki banaketa nola izanen den: «izen-ematea uztailaren 21era arte irekita dago eta apuntatzen diren kide kopuruaren arabera izanen da antolaketa». Aitzineko urteetan bitan banatu zituzte: «talde bat 10:00etatik 11:00etara eta bertzea 11:00etatik 12:00etara». Hala ere, egokitze prest gaude.

Kirolaren arabera gaztetxoek materiala eramateko eskatuko zaie: «patinak, erraketak, bizikletak...». Gehienek badi-tuzten arren, Erreka Kirol Elkarteak beharrezko materiala ere utziko die eta material horiek ez dituztenei «elkar-tekoak uzten» saiaturiko dira, guztiak goza dezaten.

Oskozek argi du gaztetxoendako aukera ezin hobea dela kirol eskola eta, horregatik, «lagun artean kirolaz gozatu nahi duten gazte guztiei» gonbidapena luzatu nahi izan die: «edozein zalantza izanez gero Erreka Kirol Elkarteak zintziilikatu duen karteletan nire telefonoa duzue eskuragarri. Beldurrik gabe deitu, galdetu eta gustuko baduzue etorri eta probatu. Gozamina zuen esku dago, seguru nago ederki pasatuko dugula!».

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI

**BERA.** Herriko Etxeko Plazan etxea salgai. ☎616 24 35 30.



**LESAKA.** Koskontako bidea 9 hel-bidean, 90 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela. Garajearekin eta trastelekua-ekin. Prezioa: 170.000 euro negoziagarriak. ☎605 76 28 80.



**ARANTZA.** Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.



**BERA.** Etxea salgai 400m<sup>2</sup>ko lursailarekin. Terrazaren gainean bertze bi etxebizitza egiteko baimena eta proiektuarekin. Lauko bazkide kooperatiba, familia handi, edo partikularrentzako aproposa. ☎664 71 18 53.

**BERA.** Iparkarria 3an etxea salgai. bi solairu, bajera eta lur eremuarekin. Erreforma egiteko. ☎620 00 68 87/ 948 63 03 92.

#### ERRENTAN EMATEKO



**BERA.** Gela bateko apartamentu mobleztatua errentan emateko, apartamentuarekin. Pertsona arduratsua eta lasaia nahi dute. Ongi kokatua eta egoera onean. ☎629 97 00 02.

**BAZTAN.** Pisua errentan emateko, pertsona arduratsuei eta nominadunei. Mobleztatua. 3 logela, 2 bainu-

## IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 [www.erran.eus](http://www.erran.eus)

☎ 744 48 43 61

@ [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira  
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da  
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

gela, sukaldea, trastelekua eta apartamentuak. ☎693 69 49 76 (Jose M<sup>o</sup>).

#### ERRENTAN HARTZEKO

Umea duen bikote batek pisu edo baserri bat errentan hartu nahi du. Biak lanean. Lesaka aldean nahiago, eta bestela Baztan, Malerreka edo Bortzirietan. ☎622 74 52 14.

Eskari handiagatik, alokairuko etxebizitza behar dira. Baztango Higiezinaren Enpresa. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

**SUNBILLA, DONEZTEBE, ELGORRIAGA** edo **LEGASA** aldean berehala bizitzera joateko etxe bat errentan hartu nahi dute, gerora erosteko aukerarekin. ☎646 77 42 02.

Eskari handiagatik, alokairuko etxebizitza behar dira. Jabearentzat kosturik gabe. Kontratua eta kudeaketa barne. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### ERRENTAN EMATEKO

**BERA.** Ostatu-jatetxea errentan emateko, erretiroa hartu dutelako. ☎620 00 68 87 / 948 63 03 92.

### ZERBITZUAK

#### ZURGIN-LANAK

## ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA  
647 810 144 - 626 093 181

### LANA

#### ESKARIAK

Udan haurrak zaintzeko, klaseak emateko... lan bila. ☎677 09 95 99.

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

##### Aretze gizenak:

##### Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,12
- 1.koa 4,00
- 2.koa 3,85

##### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,23
- 1.koa 4,09
- 2.koa 3,95

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

##### Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

##### Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

##### Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

#### ZALDI-AZIENDAK

##### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,20/4,30
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

#### ARDI-AZIENDAK

##### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,10/8,90
- 8-10 kilokoak: 6,80/7,30

#### ZERRI-AZIENDAK

**Zerrikumea** (19 kilo): 59 €

**Zerri gizona** 1,460€

**Zerramak** 0,650€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernuaren ekainaren 25etik uztailaren 2ra bitarteko prezioak)

Adineko pertsonak zaintzen esperientzia duen emakumea lan bila. Garbitasunean, sukaldean... ongi moldatzen dena. ☎694 42 03 10.

30 urteko neska bat haurrak zaintzen ariko litzateke. Ama, arduratsua. Berehala hasteko prest. ☎680 78 61 82.

Adinekoak eta haurrak zaintzeko lan bila, interna moduan. ☎632 75 93 48.

Interna moduan esperientzia handia duen emakumea lan bila. Garbitasunean, sukaldean, zaintzan ongi moldatzen dena. ☎694 42 03 10.

### ESKAITZAK

Denda batean lanean aritzeko langilea behar dute epe luzerako, lanaldi osoan edo erdian. Curriculum: [sustrabelardenda@hotmail.com](mailto:sustrabelardenda@hotmail.com).

**BERA.** Zalain jatetxean esperientzia duen sukaldari laguntzailea behar dute lanaldi osoan. ☎617 72 34 75.

**BERA.** Gasolindegia batean aritzeko langilea behar dute. ☎629 08 35 67.

### ANIMALIAK

#### SALGAI



Sei urteko **zezen** mantsoa salgai, konpromisorik gabe erakusteko prest. ☎661 08 11 10.



**Txerrikume pintoak** salgai. Lonja arrazakoa. Bizirik edo laberako prest. Informazio gehiago Whatsapp bidez. ☎690 98 61 18.

### MOTORRAK

#### SALDU



John Deere 604 **traktorea** salgai. 11.500 euro. ☎687 66 50 89.

## BERAKO UDALA

### –OIHAN ENKANTEA–

BERAKO Udalak gutun-azal itxiko prozeduraren bidez enkante publikoan salgai jarriko du Arranoko Harria, lasola, Askaerrika eta beste parajeetako oihan-aprobeta mendua.

Proposamenak 2021eko uztailaren 14ko 13:30ak arte aurkeztuko dira.

Baldintza pleguak Udal Idazkari-tzan, web orrian ([www.bera.eus](http://www.bera.eus)) eta Nafarroako Kontratazio Atarrian ikusgai egonen dira.

Bera, 2021.06.25  
ALKATEA  
Aitor Elempuru Egaña



**GANIX**  
Tailerra  
948 63 06 69  
Zalain Pol., 11 . BERA  
EUROMASTER zegoen lekuan




**SANTESTEBAN TAILERRAK**  
RENAULT  
RENAULT KADJAR TCE 140 CV  
22.400 € (finantza-sustapenei lotuta)  
Nabigatzailea, erdi-larrua,  
aparkatzeko sentsoreak...  
[www.talleressantesteban.com](http://www.talleressantesteban.com)  
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com


## DENETARIK

### SALGAI

**Ohe artikulatua** salgai. Egoera onean. Sei hilabete bertzerik ez. 900 euro. ☎697 96 60 50.



Bi motatako **aldamioak** salgai: batetik 2x1 kruzeta eta plataformarekin; eta bertzetik, europar aldamioak plataformarik gabe. 132 m<sup>2</sup> muntatuta. Interesa duenak ikus ditzake. ☎608 17 45 10.



Haritz egurrekin egindako **baranda** salgai, 3,50 metrokoa. 500 eurotan. ☎651 07 48 65.

### EROSI

Eskualdeko baserri batean sagardoa egiteko sagarra behar dute. ☎663 59 17 76.

## URTEBETETZEAK



Zorionak **pitufa**!!  
Uztailaren 14an 5 urte egingen ditu gure **Olaia**!! Disfrutatu egun polit hau. Muxu handi bat familia guztiaren eta bereziki Xubanen partetik!!



Igantziako **Iraitz Arrieta Urtzegik** bere lehenbiziko urtea egin du uztailaren 3an. Zorionak tiki eta muxu eder bat familia guztiaren partetik.



**Aroa Agerralde Arretxeak** uztailaren 18an urtea bete du!!! Zorionak eta aunitz urtez gure etxeko printzesari eta muxu handi bat denon partetik!!!




Aunitz urtez **Saioa**! Uztailaren 20an urteak beteko dituzu eta ongi pasa zure egunean! Muxu handi bat lankideen partetik!



Berako **Alain Endara Rodriguezek** 9 urte beteko ditu uztailaren 13an. Zorionak futbolari! Atta, ama, Nahia eta Berako familiaren partetik.



**Irene Petrirenak** 39 urte bete ditu uztailaren 12an. Zorionak Aritz, Enaitz, Izarne eta attaren partetik.



Uztailaren 12an, **June Mendiburu Andresenak** 8 urte bete ditu. Zorionak!!!! Espero dugu zure egunaz disfrutatuz izana, polita! Muxu eta besarka potoloak zure familiaren partetik.



Aunitz urtez **Xuban**! Uztailaren 29an sei urte beteko dituzulako sei muxu handi zuretzat. Seguru gaude hagitx ongi pasatuko dugula zure urtebetetze-egunean!



**Arai Arteaga Andresenak** uztailaren 23an 8 urte beteko ditu. Zorionak!!! Egund polita pasatu! Muxu eta besarkada potoloak zure familiaren partetik.

**ttiipi txartela**

Josune Sorondo Odriozola  
72673152-A  
2023/04  
Zk. 372

ttiipi-ttapa  
Facebook

**ATERA  
TTIPI TXARTELA  
eta erabili**

pegatina hau ikusten  
duzun denda eta zerbitzuetan

*Aprobetxatu aukera!*

ttiipi-ttapa



SORTZEAK

- **Mara Satrustegi Marin**, Lesakakoa, ekainaren 26an.
- **Gozain Eskudero Almandoz**, Arantzakoa, ekainaren 28an.

EZKONTZAK

- **Jabier Gago Balda** eta **Anaixa Telletxea Iraola**, Doneztebekoa eta Arantzakoa, ekainaren 5ean Donezteben.
- **Garikoitz Larretxea Gortari** eta **Nerea Galain Agirre**, Arraiozkoa eta Iraiozkoa, ekainaren 19an Sunbillan.
- **Xabat Gonzalez Lasa** eta **Irene Jorge Fernandez**, Donostiakoa eta Coruñaakoa, ekainaren 28an Lesakan.
- **Iñigo Arrieta Gelbenzu** eta **Aitziber Zabaleta Irazoki**, Sunbillakoa eta Berakoa, uztailaren 2an Sunbillan.
- **Adei Ibargarai Agirre** eta **Idoia Iriarte Lastiri**, Nartartekoak, uztailaren 3an Nartarten.
- **Irune Goia Arretxea** eta **Cesar Irazoki Irastorza**, Lesakakoa eta Oiartzungoa, uztailaren 3an Lesakan.
- **David Gorbea Perez** eta **Ainhoa Rico Peña**, Gasteizkoa eta Iruñekoa, uztailaren 3an Igantzin.

HILBERRIAK


- **Miguel Mariezkurrena Alduntzin**, Leitzakoa, ekainaren 24an, 84 urte zituela.
- **Mª Josefa Erramuzpe Osés**, Elizondokoa, ekainaren 24an, 99 urte zituela.
- **Nekane Atxa Mindegia**, Legasakoa, ekainaren 25ean.
- **Rita Bergara Errandonea**, Arantzakoa, ekainaren 25ean, 88 urte zituela.
- **Engracia Beramendi Ormart**, Arizkungoa, ekainaren 26an, 80 urte zituela.
- **Mª Isabel Mitxelorena Atxa**, Doneztebekoa, ekainaren 29an, 88 urte zituela.
- **Lorea Sagastibeltza Zabaleta**, Leitzakoa, ekainaren 30ean, 49 urte zituela.
- **Francisco Aroztegi Bikondoa**, Iurritakoa, uztailaren 2an, 82 urte zituela.
- **Francisco Quevedo Beola**, Elizondokoa, uztailaren 2an, 90 urte zituela.
- **Ignacio Otxandorena Mutuberria**, Saldiasakoa, uztailaren 3an, 78 urte zituela.
- **Jose Joakin Azkarate Etxenike**, Anizkoa, uztailaren 3an, 77 urte zituela.
- **Josefa Isabel Elorga Gorostidi**, Arraiozkoa, uztailaren 3an.
- **Jose Mª Istilart Elizalde**, Amaiurkoa, uztailaren 5ean, 56 urte zituela.
- **Jose Jabalera Garcia**, Berakoa, uztailaren 5ean, 84 urte zituela.
- **Lucio Arretxea Sanzberro**, Etxalarkoa, uztailaren 5ean, 89 urte zituela.
- **Nieves Bengoetxea Mariezkurrena**, Leitzakoa, uztailaren 7an.



**948 05 90 90**  
ENPATIA, HURBILTASUNA  
ETA BEGIRUNEA  
[www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**BEILATOKIAK:** Elizondo,  
Arantza, Bera, Igantzi  
Doneztebe

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
ADÍ, A TU LADO



URTEURRENA

**Joxe Mari MAIZ BERGARA**

Arantzan, 2020ko uztailaren 29an  
**I. urteurrena**



Urak dakarrena urak darama  
zuk emandako guziya,  
gurekin gelditzen da.

Eskerrik asko.

ZURE FAMILIA



**BAZTAN BIDASOA**  
Ehorzketa Zerbitzuak

**BAZTAN:** ELIZONDOn Santiago kalea, 79  
**BORTZIRIAK:** BERAn San Jose Beilatokia  
**MALERREKA:** DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

web: [funerariabaztanbidaso.com](http://funerariabaztanbidaso.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU** | **948 48 95 50**  
**365 EGUN** | [info@funerariabaztanbidaso.com](mailto:info@funerariabaztanbidaso.com)

*Betiko taldea zu laguntzeka*

**IRACHE**  
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara


**948 63 74 04 / 948 19 70 70**  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

# HITZ GEZIDUNAK

	Nafarroa Behereko gailur ◆ Izena	Balea hiltzaileak Apaiza, fraidea	Israelgo hiria	Eskola maisua Jainko egiptoarra	Nafarroako urtegia Aranondoan fruitu
			Zeharo, erabat, oso Lepo, sama		
	Alkizako herritarra Guraso arra				
Amildegia, haitz pikoak ◆ Deitura	Abian jartzea, abiatzea Detektagailua			Kasik, abantzu Kontsonantea	Pluralean, harribitxi mota
Bi ken bat Jada, ja		Kontsonantea Emakumeari hika	Neona Suari dario	Nitrogenoa Oinei eraginez higitu	Kontsonantea Uhartek
			Ugatza Frantziako hiria		
Radioaren ikurra Urratu, urradura		Entzuteko moduan Jardun		Joan den gauean Errepikatuz, ikara	
			Zezen zikiratu Kontsonante bustia		Musika nota Bizkaiko udalerria
Arrain harrapariak Material, gai					
		Pluralean, ate ingurua			●

◆ Arraunlari sunbildarra


## GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Eguraldi gertakariez mintzatuz, eraso. [2] Gipuzkoako udalerrria, Donostia-Beterrin. [3] Gure lurraldeko udalerrria, Malerrekan. [4] Gaixotu. [5] Zerutik iristen zaigun ur. [6] Bizkaieraz, herri handi, hiri. [7] Pertsonetz mintzatuz, faltsu. [8] Ebaki sakon. [9] Nafarroako udalerrria, Zangozako merindadean. [10] Idi edo behi parea lotzeko zurezko pieza. [11] Harri zuta, harroina.

## ERANTZUNAK




# PLAZAN BAZAN





## HAMAIAKAKOA

Aurki itzazu bi irudion artean dauden 11 aldeak.



## SUDOKU

Uztaila eta abuztua (edo agorrila) urteko hilabeterik ederrenak dira batzuentzat, sasoi horretan ez delako eskolara joan beharrik izaten. Bete itzazu bi sudokuok, lehena UZTAIL hitza osatzen duten hizkiak idatziz (U, Z, T, A, I eta L), eta bigarrena AGORRIL hitza osatzen duten hizki desberdinen bidez (A, G, O, RR, I eta L). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.




**INTERNETEN ERE BAI !**

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)



# SIESTAN



Bederatzi irudi-zati hauetatik sei engainagarriak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta, hala diruditen arren. Zeintzuk dira onak eta zeintzuk engainagarriak?



# SUNBILLA

# ESKRIBAITA BERRI

145.000 EUROTOK GOITI (+ % 10 BEZa)



📞 667 88 69 53



6 ETXEBIZITZA,  
GARAJE PLAZA IREKIAREKIN,  
TRASTELEKUAREKIN ETA  
LORATEGI PRIBATUAREKIN



Apezteguia Elizalde  
ARKITEKTOAK

APEZTEGUIA ELIZALDEK  
PROIEKTATUA



CAJA RURAL  
DE NAVARRA

RURAL KUTXAK  
FINANTZATUA

KUDEATZAILEA

Lurgesta



SAROBK  
ERAIKIA

SUSTATZAILEA

SUMBILLALUR S.L.